

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-01-20
ASTELEHENA
437. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Asobaleko taldeen kontra lehiakorra izatea zaila da guretako"

Fernando Bolea
Bidasoako entrenatzailea | 27

Jendetza EOSen emanaldian, Gonzalez Bastida omentzeko | 29



Basilio Ugarte Aramaioko azken ikazkinari agurra | 11



David Guaporen arrakastaz hasi dute II. Monologo Mostra, Elgetan | 33

Gaztetxo kuadrila Amaia Txintxurreta aurkezleaz batera, Amaia antzokiko taula gainean.



Laster arte, Kantari!!!

Zapatuan grabatu zuten Arrasaten Kantariko laugarren aldiko azken emanaldia; 200 gaztetxok hartu zuten esku | 30

IMANOL SORIANO

Haurdun dagoela jakinarazi du Undak; aurten ez da lehiatuko

Rioko Joko Olinpiarretarako prestaketa atzeratu egingo du Oletakoak | 26



Maidar Unda, iaz, Arrasaten. | GOIENA

SINADURAK

-  AMAIA ARROYO | 8
-  8 | IBAN ARANTZABAL
-  ANDERETXEBERRIA | 14
-  17 | KARLOS ETXANIZ
-  JOSUZUBIA | 18
-  19 | IÑAKI AGIRIANO
-  OIHAN VEGA | 37
-  40 | MARKOS BALENTZIAGA

Cristian Varela DJ ezagunak bete egin zuen New Guass

Tekno musika gaua egin zuten zapatuan Bergaran | 33




Cristian Varela, Bergaran. | ISORIANO

Antzuolan ere taldea sortzeko 'Gure esku dago' dinamika aurkeztu zuten Olaranen | 4

Ibarraundi inguruan pago gorriek eta intxaurrondoek emango dute itzala | 12

Osasun Karpeta: historiala eta txostenak eskura eta seguru

- Osasun-informazioa Interneten gorde daiteke orain
- Txostenak, historiala... agertuko zaizkigu bertan
- Osasun zentroan hartu behar da sistemara alta



Debagoieneko ESIko ordezkari Carmen Jimenez, ordenagailuan Osasun Karpeta erakusten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gero eta zaharkituagoa dirudi pazientea, medikuarengana, norberaren historialetik aterako paperekin joaten zeneko garaia. Ez zen batere arraroa paperen bat etxean utzi eta ezin informazio zehatza eman eta medikuarengana bueltatu behar izatea, norberak dokumentuak galdu izana eta dena atzeratzea eta antzeko gauzak. Baina azken urteotako aurrerapenei esker, horrelako estampak gero eta gutxiagotan ematen dira: medikuek formatu digitalean dituzte informe eta emaitza guztiak, eta pazienteak ia inoiz ez dauka lehen arretako medikutik espezialistarengana ezer eroan beharrik; horrez gain, osasun-txartela giltza antzeko bihurtu da, eta errezeta elektronikoa guztiz inplantatuta dago, paperezko errezetak kasu jakin batzuetarako erabiliz; eta medikuarekin egin beharreko kontsulta asko telefonoz egin daitezke, norberaren etxetik, behar duen gutzia eskura duela.

Hori dena borobiltzera dator Osakidetzaren Osasun Karpeta, gure osasun-informazio guztia zentralizatuta eta eskuragarri ipini nahi duen zerbitzua. Osasun Karpeta honako webgunetik sar daiteke norbera: www.osakidetza.euskadi.net.

Dagoeneko Euskadi osoan

Joan den urria ezker, paziente bakoitzak bere historiala, proben emaitzak eta berari dagozkion beste dokumentu guztiak Interneten gorde ditzake, Osasun Karpeta bitartez. Norbera bere osasun txartelarekin edo beste agiri pertsonal batekin sar daiteke Osasun Karpeta. Pertsonala eta pribatua da, eta bakarrik medikuak edo dagokion profesionalak eta erabiltzaileak ikus

dezake Karpeta. Osakidetzako historialaz gain, norberak Osakidetzatik kanpo egindako mediku-txostenak igo ditzake karpeta, eta medikuarekin edo erizainarekin dauzkan hitzorduak ikusi eta kudeatu ditzake. Horiek dira Osasun Karpeta funtzionaltasun batzuk.

Proiektu gaztea da oraindik; lehenengo, Derion eta Abetxukon plan pilotua egin zuten, 200 bat herritarrekin, eta Euskadi osoa zabaldu da orain. Baina, "oraindik hasieran" dagoen arren, agudo egin du aurrera, eta gaur egun, "ia funtzionaltasun guztiak ditu", Debagoienean Osasun Karpeta arduratzen den Carmen Jimenez Debagoieneko ESIko ordezkariaren esanetan. Osakidetzak eskualde eskualde jarri du martxan Osasun Karpeta, eta eskualde bakoitzean formazio-saioak eman ditu, langileek ikas zezaten. Urria ezker, Debagoieneko osasun zentroek Osasun Karpeta sarbidea tramitatzen dute hala nahi duenarentako.

Debagoienean dagoeneko ia 100 lagun daude Osasun Karpeta alta hartuta, eta gero eta sarrera edo *login* gehiago daude sisteman. Osakidetzak eta, tartean, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak kanpaina egin zuten Osasun Karpeta ezagutarazteko, eta, aukera gehiago martxan jartzen diren neurrian, gero eta jende gehiagok interesa agertuko duela espero dute.

Azken lau urteotako datuak

Debagoieneko ESIko ordezkari Carmen Jimenezek Osasun Karpeta gaur egun ematen dituen aukera guztiak azaltzen dizkigu: "Aukera nagusien artean, hauek daude: txostenak eskuratzeko, norberak txostenak igoztea, historia klinikoa QRn

lortzeko modua eta norberaren historiala kontsultatzea".

Historialari dagokionez, momentu honetan farmakologia-historia (Osakidetzak norberari errezetatu dizkion botikak) eta txertoen historia kontsultatzeke parada ematen du Osasun Karpeta: botika-aginduak edo txerto-aginduak kontsulta daitezke, indarrean dauden tratamenduen orria deskarga daitezke, norberak hartu dituen txertoak ikusi... Hori bai, "ez dago historial klinikoa osoa", ohartarazten du Jimenezek; izan ere, denbora batetik atzerako datuak

ez daude digitalizatuta eta ez dira Osasun Karpeta agertuko. "Gutxi gorabehera, orain dela lau urtetik honako datuak agertuko dira", azaltzen du Carmen Jimenezek.

Osasun Karpeta dagoen informazioari mediku-konfidentzialtasun arau berberak eragiten dio eta, beraz, pazienteak eta bere medikuak edo medikuek bakarrik ikus dezakete.

Ontzi-joko bidez

Osasun Karpeta izateko baldintzak oso gutxi dira: gutxienez 16 urte izan behar du erabiltzaileak; eta,


gero, ontzi-jokoa delako klabea duen txartel pertsonal bat izan behar du. Txartel horiek ONA, Izenpe eta Osasun Txartela dira, adibidez; txartelaren atzealdean, alfabetoko 16 hizki eta, bakoitzarendako, Orik 9ra digitu bat agertzen dira. Hori aktibatzeke, norbera bere osasun zentrori joan behar da, Nortasun Agiriarekin, pasaportearekin edo gida-baimenarekin eta horren fotokopia batekin; Osasun Txartela aurkeztu behar du, eta posta elektronikoa helbide bat eta poltsikoko telefono zenbaki bat eman.

Osasun zentroan, ontzi-jokoa operatibo ipiniko dute eta, poltsikoko telefonoan, SMS bidez jakinaraziko diote hasierako pasahitza; gero norberak aldatu ahal izango du. Horrez gain, posta elektronikoa mezua ere jasoko du, ontzi-jokoa operatibo jartzeko azken pauso gisa.

Txartel gehienek ontzi-jokoa dute, baina ez guztiek. Norberaren txartelak kode hori ez badu, osasun zentroan eska dezake. Jokoa desberdina da erabiltzaile bakoitzarendako, baina nahi den txartel guztietan inprima daiteke.

Behin konfirmazioa bidalita eta pasahitza jasota, Osasun Karpeta lehenengo aldiz sar daiteke erabiltzaile. Konfidentzialtasuna bermatzeko, pasahitza, batetik, eta ontzi-jokoaren hiru posizio, bestetik, eskatuko dizkio sistemak. Behin Osasun Karpeta sartuta, pasahitza alda daiteke.

Sarbidea da, hain zuzen, Osakidetzak denborarekin aldatu dituen gauzetako bat: "Lehen, txartel digitalizatuen bidez egiten zen sarrera, eta askoz konplikatuagoa zen, irakurtzaile bat behar zelako. Oso jende gutxi zeukan horrelako bat erabiltzeko aukera, eta, horregatik, jendeak ez zuen sistema oso praktikoa ikusten. Orain, sistemara



Osakidetzaren Osasun Karpeta webgunea. | GOIENA

O-sarean, hiru urte eta handitzen

Osakidetzak orain dela hain justu hiru urte aurkeztu zuen O-sarean, pazienteak Osakidetzarekiko tratua eta kontsultak modu ez presentzialean egiteko aukera indartzeko plataforma. Urte askoan, izapide ez presentzial bakarrik hitzordua telefonoz egiteko aukera izan zen, baina aukerak biderkatu egin dira orduz gozotik. Osakidetzako orduko arduradunek esan zuten moduan, O-sarean helburua zen egunerokoan osasun zentrori joateko astirik edo joerarik ez zuen jendea atentitza, gaixo kronikoa hobeto atentitza eta prebentzioa lantzea. Berrikuntza inoiz bukatzen ez denez, O-sarean hazten jarraitzen du.



n; Izenpe txartelarekin –eskuan duena– sar daiteke. | LEIRE KORTABARRIA

operazio baten gertatu denaren gaineko txostena da eta, besteak beste, ebakuntza egin duen lantaldearen gaineko datuak, diagnostikoa, prozeduraren deskribapena... agertzen dira; historial dosimetricoa ere topatuko du bertan –medikuak agindutako prozedura baten ondorioz, normalean TAC baten ondorioz, pazienteak jaso duen erradiazio-dosien erregistroa da– eta beste informazio mota batzuk.

Txosten horiek guztiak kontsultatzeko aukeraz gain, erabiltzaileak berak PDF formatuan dauden txostenak igo ditzake. Hori praktikoa da sare publikotik kanpoko zentzoren baten atentiditu, eta txostena bere ohiko medikuarendako eskuragarri izan nahi duenean pazienteak.

Txosten jakin bat bilatzeko, zenbait aukera eskaintzen ditu sistemak: dataren arabera bilatu daiteke, eta baita zentroaren arabera ere.

Hitzorduak, 'on-line'

Informazioa zentralizatuta eta formatu digitalean izateaz gain, Osasun Karpetak medikuarekin edo erizainarekin hitzorduak egiteko, kontsultatzeko eta aldatzeko aukera eskaintzen du. Carmen Jimenezek dioenez, "jendeak gehien erabiltzen duen funtzionalitateetako bat da hori. Hurrengo hitzorduak kontsultatzeko aukera, laborategiko txostenak kontsultatzea... sarre-ra dezente dituzte funtzionalitate horiek".

Ordenagailuan edo mugikorraren egutegi programa edo aplikazioa izanez gero, hitzordua programa horretan deskargatzeko eta posta elektronikoz hitzorduaren gogorazpena bidaltzeko aukera ematen du Osasun Karpetak.

Gaur egungo osasun egoeraren gaineko beste informazio mota baliagarri bat tratamendu-orria da. Hori ere topatuko dugu Osasun Karpetan. Kontsulta egiteko momentuan pazienteak jarraitzen dabilen tratamenduaren xehetasunak datoz hor: ze botika bidali ditzion medikuak, ze dosi hartu behar dituen eta nola hartu behar dituen.

Funtzionalitate osagarrien artean, norberak zenbat erretzen duen eta zenbat alkohol hartzen duen jarraitzen laguntzeko aplikazioa dago, eta, bestetik, pisua eta arteria-tentsioaren eboluzioa jarraitzeko aplikazioa ere.

Osasun Karpeta, begirada baten

Zer da Osasun Karpeta?

Osakidetzak iaz inplantatutako zerbitzua da. Interneten karpeta pribatu birtuala da, norberaren osasun-informazio ahalik eta osatuena gordetzeko aukera ematen duena.

Zeinek izan dezake Osasun Karpeta?

16 urtetik gorako Osakidetzako edozein erabiltzailek.

Zer egin behar da Osasun Karpeta erabiltzen hasteko?

Ezinbestekoa da ontzi-jokoa (zenbaki eta letra-kodigoa) duen txartela izatea; Izenpe, ONA edo Osasun Txartela izan daiteke; horrez gain, posta elektronikoa helbide bat, eta poltsikoko telefono zenbaki bat.

Dagokion osasun zentzora joan behar da norbera, NA edo bestelako identifikazio-agiri batekin, eta ontzi-jokoa aktiba diezaioten eskatu behar du. Hori egin eta gero, pasahitza eta altaren konfirmazioa jasoko

ditu SMS eta mezu elektronikoa bidez.

Ontzi-jokoa ez duenak berau eska dezake.

Nolako informazioa eduki dezaket Osasun Karpetan?

Osasun-historial digitalizatu egongo da bertan, azken lau urteotakoa: hartu diren txertoak, alta-txostenak (larrialdiak, lehen arreta...), espezialistek egindako txostenak, laborategiko emaitzak, norbera jarraitzen dabilen tratamenduak eta bestelako informazio erabilgarria.

Beste zeinek ikus dezake nire Osasun Karpeta?

Informazio konfidentziala denez, Osasun Karpeta sartzeko hiru motatako klabeak edo datuak eskatzen dira. Horrez gain, bakarrik dagokion medikuak ikus dezake pazientearen gaineko informazioa; biek aldi berean ikus ahal izango dute.

sartzea askoz errazagoa da", esaten du Carmen Jimenezek.

Osakidetzatik kanpokoak

Informazioa hainbat ataletan banatuta topatuko du erabiltzaileak bere Osasun Karpetan.

Alta-txostenak daude, alde batetik: Larrialdi zerbitzuetakoa, ospitaleratzearena eta kanpoko kontsultena; eta berdin dio Osakidetzako bere ohiko zentroan zein sareko beste zentro baten atentiditu duten. Dataekin eta atentiditu zuen langilearen izenarekin agertuko zaio txostena. Zerbitzu horietako baten pazienteari alta ematen dionean medikuak egiten duen txostena da.

Hainbat espezialitateko txostenak ere izango ditu: Erradiologiako txostenak –ez erradiografia bera, baizik eta erradiografia baten harira medikuak egiten duen txostena– eta emaitzak; Anatomia Patologikoko espezialitatekoak –hau da, laginak aztertzeko espezialistek egiten dituzten txostenak, biopsia baten ondorioz, adibidez–; Lehen Arretako medikuak egindako txostenak; laborategietako informak; kirurgia-informak –kirurgia-

DATUA

4

HILABETE MARTXAN

Urria ezker, osasun zentroek Osasun Karpeta sartzeko klabeak tramitatzen dituzte.

ESANAK

"Sistemara sartzea erraztu da, praktikoa izan dadin"

"Hitzorduak kudeatzeko aukera asko erabiltzen da"

CARMEN JIMENEZ
DEBAGOIENENKO ESI-KO ORDEZKARIA

Osakidetzak, bai, esan?

On-line eta telefonoz ematen den zerbitzuetako bat Osasun Aholkua da. Hori batez ere telefonoz eskatzen da, eta arrakasta handia du. Urteko edozein egunetan, eguneko edozein ordutan deitu daiteke 902 20 30 20 zenbakira; Gipuzkoan, 943 20 30 20 da beste aukera; Araban, 945 20 30 20. Zerbitzu hori 2011n jarri zen martxan; larrialdietarako zerbitzu bat da eta, kasu askotan, Larrialdi zerbitzu batera fisikoki joan behar izatea paretik kentzen du. Egoera kritikoa ez dela deskartatu eta gero –horrela bada, Larrialdietako medikuetara bideratuko da deia–, erizainak jarraitu beharreko pausoak ematen dizkio pazienteari.

Azkenik, norberak bizimodu osasungarria egiten duen edo ez jakiten laguntzeko on-line inkesta bat ere badauka Osasun Karpetak.

Norberaren ohiturak zaindu

Gero eta gehiago dira Osakidetzak eta, horren barruan, Debagoieneko ESIk Interneten ipini dituen tresnak eta izapideak. Denetarako sarrera dago www.osakidetzak.euskadi.net webgurutik abiatuta.

Hala, Osasun Karpeta eduki barik ere, Osasun Txartela duen edozeinek Internet bidez kudea ditzake medikuarekin edo erizainarekin dituen hitzorduak, edo hitzordua on-line eskatu; Osasun Eskolaren gaineko informazioa eta estekak irakur daitezke; aurretiazko borondateen dokumentuaren gaineko informazioa jaso eta inprimakiak jaitz daitezke; EAEko farmaziak eta botikinak non dauden kontsulta daiteke; herritarren eta pazientearen eskubide eta bete-beharren gaineko arauak ikusi; eta Osakidetzaren kanpainen berri jaso, bai estreinatutako berri direnak zein lehendik indarrean daudenak.

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

Matrikula zabalik Informa zaitez!

emaiozu euskarari!

UDAL EUSKALTEGIAK
ikasturteakurso 13/14



Antzuolan ere 'Gure esku dago' dinamikaren baitako taldea sortu guran dabilta

Egubakoitzean egin zuten erabakitze eskubidearen aldeko dinamikaren aurkezpena Olanen

TXOMIN MADINA | ANTZUOLA

Erabakitze eskubidearen aldeko *Gure esku dago* dinamikaren barruko taldea sortu gura dute Antzuolan ere, eta dinamikaren jendaurreko aurkezpena egin zuten egubakoitzean Olanen.

Oinarrizko eskubidea

Goierri jaio zen dinamika, eta bi goierriarrek egin zuten aurkezpen orokorra: Aloña Galarragak eta Mikel Egigurenek. Helburua eta orain arte egindakoak azaldu zituzten, eta besteak beste, erabakitze eskubidea prepolitikoa dela esan zuten: "Hemen autodeterminazio eskubidea mugimendu abertzale batekin lotu den arren, beste herrialde askotan autodeterminazioa eskubide moduan hartzen dute alderdi abertzale eta ez abertzaleek. Guk eskatzen dugu eskubide hori lortzeko bidea batera egitea; gero bakoitzak erabakiko du nahiago duena: independentzia, oraingo egoera... Ideologiaz gaindi dagoen zerbait da, oinarrizko eskubidea".

Giza katea, Antzuolatik

Jon Ugarteburu da taldea sortu guran dabilen antzuolarretako bat: "Hiruzpalau pertsona ari gara



Egubakoitzeko aurkezpeneko une bat. | T.M.

horretan, eta esparru ezberdinetako jende gehiago erakarri nahi dugu taldea eratzeko".

Gure esku dago-k giza katea antolatu du Durangotik Iruñara ekainaren 8rako, eta Antzuolatik ere pasako da berau. Ugarteburuk azaldu zuen asmoa dela Antzuolak

kilometro bat hartzea bere kargu: "Kalkulatu dugu kilometroa osatzeko 400 pertsona behar direla, eta hori da gure helburua". Egun hori jendea motibatze moduan hartu eta talde iraunkorra sortu nahi dutela gaineratu zuen Ugarteburuk.



Gaztetxean egingo dute lanketa prozesua. | JOSETXO ARANTZABAL

"Estatu sozialista eta independentea nahi badugu, feminismoan oinarritu behar da"

Gazteei zuzenduta, feminismoaren inguruko lanketa prozesua hasi du Arrasateko Ernaik

T.M. | ARRASATE

Arrasateko Ernaik antolatuta, gazteei zuzenduta dagoen *Urrats feministak* izeneko feminismoaren inguruko lanketa prozesua hasi zuten atzo Arrasateko Gaztetxean. Lau saio dituen prozesua da eta atzo, gaian kokatzeko, sexu genero sistemaren inguruan hausnartu zuten.

Kontzientziario falta

Arrasateko Ernaiko kideen esanetan, bi helburu ditu prozesuak: "Batetik, herriko gazteei feminismoa landu eta gaiaz hausnartzeko aukera eman gura diegu gazteek eurek sortutako espazio baten, hau da, Gaztetxean. Bestetik, egungo gizarte patriarkal hau hausteko urratsak ematen hasi nahi dugu".

Izan ere, gazteen artean feminismoari buruzko kontzientziario falta nabari dute: "Uste irekia da genero berdintasun batean bizi garela eta feminismoa emakumei zuzenean eragiten dien gai bat dela, eurek bakarrik landu behar dutena". Ernaiko kideen esanetan, baina, feminismoak denoi eragiten digu, eta berdintasuna ez da benetako izango hori salatu eta gazteak horretaz kontzientziatu arte. "Feminismoa, gainera, ez da

soilik emakume eta gizonen arteko berdintasuna; anitzagoa da", gaineratzen dute.

Lanketa prozesuaren dinamika dagokionez, askotariko ariketak egingo dituzte, bai tailer eran eta baita ariketa personal moduan ere.

Feminismoaren garrantzia

Orain arte zeharka landu duten arren, Ernai eratzean, independentziarekin eta sozialismoarekin batera feminismoa identifikatu zuten erakundearen helburu estrategiko moduan: "Feminismoa ez da sozialismoaren beste ezaugarri bat; estatu sozialista eta independentea behar badugu, feminismoan oinarritu behar da".

Saio denak 17:30ean eta Gaztetxean izango dira eta atzokoaren ostean, otsailaren 2an izango da hurrengo, patriarkatuaren eta kapitalismoaren arteko harremana aztertzeke. Hirugarrena otsailaren 16an izango da eta feminismitik zein alternatiba eraiki ahal diren aztertuko dituzte. Otsailaren 23koa izango da azken saioa, eta gonbidatu berezi bat eta mahai-ingurua izango dituzte. Ernaikoen asmoa da saio hauek amaitzean, prozesuak jarraipena izatea.

Gutun Sozialaren inguruko informazioa banatu zuten egubakoitzean Oñatin

Herritarrak informatu ostean, ekarpenak jaso gura dituzte Gutuna osatzeko

T.M. | OÑATI

Duela bi hilabete hasi ziren Oñatin Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna lantzen, eta hasierako aurkezpen baten ostean, lan horretan ibili dira azkenaldian hainbat eragiletako ordezkariak; hala nola ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuak; mugimendu feministako ordezkariak; AHT gelditu plataformako eta Gaztetxeke kideak; eta baita zenbait norbanako ere.

Egubakoitz iluntzean, talde horretako hainbat kide Oñatiko Foruen plazan izan ziren Gutun Sozialaren inguruko esku-orriak banatzen.

Girote fasea

"Girote fasea da hau, herritarrak informatzeko fasea" azaldu zuen ELAko Ane Romeok, eta gaineratu Gutun Sozialak hainbat gai ukitzen dituela: ekologia, ema-



Informazio esku-orriak banatu zituzten oñatiarren artean. | IMANOL SORIANO

kumea, fiskalitatea, langabeak... "Gutun honekin gutxieneko batzuen zerrenda lortu gura da. Ezberdina egiten duena prozesua bera da. Helburua ez da eragile sozial batzuen ekarpena bakarrik

jasotzea; kalean eztabaida sortzea baizik, jendeak bere sentitu dezala" adierazi zuen Romeok.

Hurrengo urratsa, herritarrak bildu eta euren ekarpenak jasotzea dela ere azaldu zuen.

ZUZENKETA

Joan den egubakoitzeko alean, 17. orrian, aditzera ematen genuen Beartek Eibarko Portalean jaritako erakusketa kolektiboa bukatuta zegoela, baina otsailaren 2ra arte zabalik egongo da. Hala, Bergarako Aroztegiko erakusketa eta Eibarkoa, biak daude zabalik une honetan.

GI-632 errepide berriko lanak martxa onean doazela dio Larraitz Ugartek

- ▶ Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako diputatuak lanak bisitatu zituen, egubakoitzean
- ▶ Ugartek esan zuen, epeak beteta, 2015eko apirilera amaituta egongo dela errepidea

T. MADINA / I. GOITIA | ARRASATE

Bidegi elkarte publikoa eta Gipuzkoako Foru Aldundia GI-632 errepide berriko (Beasain-Bergara) azken bi zatiak egiten ari dira, eta egubakoitzean, hedabideekin bisita egin zen bertara, lanak nola doazen ikusteko. Bisita horretan Larraitz Ugartek, Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako diputatua, lanak bide onetik doazela azaldu zuen.

"Errepide estrategikoa"

"Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bidegi lan handia egiten ari dira GI-632 errepide berria 2015eko apirilera errealitate izan dadin. Errepide hau Aldundiarentzat oso garrantzitsua da, Gipuzkoa eta Euskal Herria egituratzeko estrategikoa delako, eta horregatik jarraitu du proiektu hone-

kin", adierazi zuen Ugartek lanak ikusteko egindako bisita aprobetxatuz.

Langabetuen kontratazioa

Bestalde, lan hauek eredugarri izatea ere nahi dela azaldu zuen Ugartek: "Gauzak beste modu

batera egin daitezkeela erakutsi nahi dugu: bai, lan arloan sindikatuekin elkarlanean lan hitzarmena bete dadin; bai, diru publikoaren kontrol zorrotza eginez...". Ildo horretan, gogoratu du lanak hasi zirenean Gipuzkoako Foru Aldundiak, inguruko Udalekin elkarlanean, bertako langabeen zerrenda osatu zuela, eta une honetan zerrenda horretako zazpi lagun ari dira lanean: Bergarako bi, Antzuolako bi, Zumarragako bi eta Urretxuko bat. "Lan hauek gipuzkoarron diruarekin ari dira egiten, eta garrantzitsua da obra horien onura ere bertako herritarrek sentitzea", azaldu zuen Ugartek.

Bi zati, bukatzeko

GI-632 errepide berria bukatzeko bi zati falta dira eta biak erai-

kuntza fasean daude une honetan. Urretxu-Antzuola zatia Bidegi ari da eraikitzen, eta obra zibilak bukatzeko epea 2014ko urria da; ondoren, instalazioetan lanak egin beharko dira. Amenabar eta Moyua enpresak ari dira lanak egiten, eta 46,8 milioi eurotako

(gehi BEZ) aurrekontua dute. Zatiaren ezaugarri nagusia da Deskargako mendatea saihesteko tunela.

Beasain-Bergara ardatzeko azken zatia, Antzuola-Bergara artekoa da. Hau Gipuzkoako Foru Aldundia ari da eraikitzen. Lanak 2015eko apirilera bukatzea aurreikusten da. Moyua eta Antzibar enpresak ari dira bertan lanean, 41 milioi euroko (gehi BEZ) aurrekontuarekin. Zati honen ezaugarri nagusia bidezubiak dira; bost eraikiko dira.

23 kilometro

GI-632 errepide berriak, amaitutakoan, 23 kilometro izango ditu. Lehenengo zatia, Beasain eta Zumarraga artekoa, 2006an ireki zen. Bigarrena, Zumarraga-Urretxu, 2012ko ekainean.

DATUA

7,6
KILOMETRO

GI-632 errepide berria amaitzeko falta diren bi zatien luzera. Tartean dago Deskargako mendatea gurutzatzen duen tunela.

ESANAK

"Deskargako lanak eredugarri izatea nahi izan dugu lan arloan eta gastuan"

LARRAITZ UGARTE DIPUTATUA



IRATI GOITIA

URRETXUKO LAUTADA 2012ko ekainean ireki zuten ibilgailuentzat Zumarraga-Urretxu zatia, Argixaoko tunelaz amaitzen dena. Bertan batzen da Urretxu-Antzuola zatiarekin.



I.G.

DESKARGAKO TUNELA Urretxu-Antzuola zatiko ezaugarri nagusia. Zehazki, bi tunel dira, eta Antzuolatik Urretxurako noranzkoan doanaren bi aldeak abenduaren 20an elkartu zituzten.



I.G.

LOTURA GI-632 errepidea bukatzeko bi zati falta dira. Urretxu-Antzuola Bidegi ari da egiten eta Antzuola-Bergara Aldundia. Toki honetan aldatzen dira eskumenak.



TXOMIN MADINA

LAPATZAKO BIDEZUBIA Antzuola-Bergara zatian bost bidezubi izango dira. Herria saihesteko hiru: Iturpika, Antigua eta Lapatza. Ibaia saihesteko beste bi egingo dira.

MCCko presidente Txema Gisasolak kargua utzi zuen

"Arrazoi pertsonalengatik" aurkeztu du dimisioa batzorde kudeatzaileak bideratuko du orain taldea

G.A./A.E | DEBAGOIENA

Prentsa ohar bidez jakitera eman zuen Mondragon korporazioak Txema Gisasolaren dimisioa. Ohar horretan arrazoi pertsonalak tarteko, postua utzi eta korporazioaren etorkizuneko ibilbide berria nondik nora joango den diseinatzeko aroa zabaltzen dela jakitera eman zuen, "Mondragon Korporazioari atxikitako kooperatibek azterketa eta hausnarketa etapa bati ekingo diote, datozen urteetako jardueraren esparru orokorra diseinatzeko. Lehen pauso gisa, Korporazioko hainbat kooperatiba eta arlotako ardura-dunek osatutako talde bat arduratuko da abiapuntuko egoeraren balorazioa egiteaz, eta datozen urteetan jarduteko ildo nagusiak identifikatu eta jarraitu beharreko bide orria marraztuko du".

Etapa hau Txema Gisasolak, arrazoi pertsonalengatik, Kontseilu Orokorrean dimisioa eman eta gero hasten da. Dimisioa aurkeztean hainbat aldarrikapen egin zituen Gisasolak: "Elkartasun, esfortzu, lehiakortasun, berrikuntza teknologiko eta gizartearekiko konpromisoko" printzipioak, Mondragonen elkartutako kooperatiben funtsaren eta beraien etorkizuneko zutabeen oinarri izan behar dutela.



Txema Gisasola MCCko presidente ohia. | GOIENA

Kontseilu Orokorreko lehen-dakari berria Mondragonentzako esparru proiektu berria definitzen amaitu eta gero izendatuko dutela jakinarazi zuten oharrean.

Batzorde kudeatzailea

Une honetatik aurrera, gaur egungo lehendakariaren dimisioak eragindako egoera Batzorde Kudeatzaile baten sorrerarekin bideratuko da, Kontseilu Orokorraren baitan, Korporazioaren zerbitzuen funtzionamendu operatiboa bermatzeko eta elkartu-

tako kooperatiba guztietako bazkide guztiek etorkizunean taldea nola izango den erabakitze oinarriak jartzeko. Gaur egungo krisi ekonomikoaren eszenatokia, Korporazioaren iritziz beharrezkoa da "azterketa, hausnarketa eta eztabaida kolektiboko" etapa honi ekitea, krisi ekonomiko globalak dakarren erronkari garantiekin aurre egiteko. Korporazioak berretsi egiten du Eredu Kooperatiboan duen erabateko konfiantza, aberastasuna sortzeko motor gisa".

TXALOAK ETA TXISTUAK



ANE ETXEBERRIA

Errepideetako marren ikuspen eskasa



Irakurle batek bere kexua helarazi digu, esanez, errepideetako marren ikuspena eskasa dela, gehien bat neguan eta iluntzean. "Neguan errepidean gabiltzanok Antzuolatik Eskoriatzara arteko bidean, gabe ibiltzea tokatzen zaigunean, eta euria egiten duenean, ez da errepideko marrarik ikusten kontrako kotxeko argiak direla medio eta batez ere marrak ia ezabaturik daudelako". Marrak udan margotu beharrean neguan margotzea eskatzen du irakurleak.



Komertzial taldeko kideak Antzuolako egoitzan. | GOIZPER

Goizperrek munduan dituen delegatuak geurean

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Pasa de asteen, Goizperrek munduan barrena dituen esportazioetako komertzial taldeko kideak Antzuolan izan ziren, izan ere, urteko konbentzioa ospatu zuten herrian. Bertan, enpresak aurkeztu dituen produktu berriak eta munduko toki ezberdinetan garatzen dabilen proiektu ezberdinak ezagutzeko aukera izan zuten komertzial guztiek. Frantzia, Holanda, Singapur, El Salvador, Jordania, Kenia eta Maliko ordezkariak izan dira Antzuolan.

Goizperko Ihintadura dibisioko ordezkariak dira guztiak eta nork bere tokiko merkatuaren berri ematen dio Goizperri, laborantza bakoitzak behar duen lainoztatze sistemaren berri emanez. Lan egun gogorrak izan direla aitortu dute etortitako ordezkariak, baina aldi berean esperientzia onak bizi izan dituztela ere adierazi dute Goizperretik jakinarazi duten arabera.

Goizperren ibilbidea

Goizper, S.Coop. Antzuolan sortu zen 1959an, Arrasaten jaiotako Mugimendu Koopera-

tiboaren ingurunean. Gaur egun 200 pertsonari ematen die enplegua. Sortu zenetik, Goizper produktu linea nagusi biren fabrikazioan espezializatu da: potentziaren transmisiorako osagaiak (makina-erreminten balaztak eta engrageak), hauek jardueraren ia %30 hartzen dute. Eta bestetik, eskuzko ihintzagailuak eta hautseztagailuak nekazaritzako, lorazaintzako, industriako eta etxeko tratamenduetarako. Horiek jardueraren gainontzeko %70a hartzen dute enpresan.

Gaur egun, Goizperren egitura komertzialak 6 ordezkari-tza propio ditu: Europan 3 ordezkari eta Asiako hegoekialdean, Ekialde Hurbilean eta Saharaz beheko Afrikan bana, eta helmugan laguntzaile eta inportatzaile-banatzaila ugari ere badira; horrenbestez, presentzia nabarmena dute 100 herrialdeetan baino gehiagotan, eta horietako askotan, liderrak dira. Urtero 1.000.000 erabiltzaile baino gehiago dituzte euren produktuek.ISO/TC23 esku ihintzagailuen arau internazionala lantzen ari den fabrikatzaile espainiar bakarra da.

Aizkorri-Aratzen lurak erosi nahi ditu Aldundiak

A.E | OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak salerosketa bidez landa lurak erosi nahi ditu. Alde batetik Aizkorri-Aratzen (Oñati zein Legazpiko lurak), interes komunitarioko lur batzuk eta Irunen Aiako Harria interes komunitarioko lekuaren barruan daukan zehazki.

Lurak erosi nahi ditu, beraz, Aldundiak erosteko egiteko gunean lurak dituztenei eta saldu nahi dituztenei dei egiten die, salerosketa honetan parte hartzera. Landa lurak erosteko 264.900 euroko aurrekontua dauka administrazioak.

Prezioari dagokionez, metro karratuaren gehieneko prezioa hau da: mendi zuhaitza bada

0,35 euro metro koadroko. Mendi zuhaitz gabea bada, aldiz, 0,20 euro metro koadroko eta mendi ez-emankorra bada, 0,10 euro metro koadroko. Esleipen prezioa behin betikotzat joko da eta, hortaz, ez du inolako igoerarik izango.

Esleitzeko prozesua

Esleipena gauzatzeko lehiaketa publikoaren prozedura erabiliko da. Lizitazioan esku-har dezakete, zuzenean edo ordezkari bitartez, pertsona natural edo juridiko guztiek. Informazio guztia zein bete eta entregatu beharreko dokumentu guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean (www.gipuzkoa.net) topa daitezke.

Hilero 150 euro gastatzen dute nerabeek batez beste

Hileko paga baino lau aldiz gehiago gastatzen dute, eta markako produktuak gustuko dituzte

L.K. | ARRASATE

14 eta 19 urte arteko nerabeek daukaten baino lau aldiz gehiago gastatzen dute. Zehazki, batez beste 40 euroko paga badute hilero, 150 euro inguru gastatzen dute. Hori da Keepunto aurre-banku eta nerabeendako Interneteko komunitateak Madrilo Unibertsitate Konplutensearekin batera egin duen azterketa baten ondorioetako bat. Adolescentes 2013: *hacia una correcta formación y autonomía en el consumo* da azterketaren izena.

Nerabeek arropan (26 euro), elikaduran (24 euro) eta tekno-

logian (20 euro) gastatzen dute gehien hilero. Bestalde, 10 nerabetik seik etxerako elikagaiak eta produktuak erosten parte hartzen dute, eta familiaren erosketa-erabakietan eragiten dute, nahiz eta ez duten berez diru-irabazirik ekartzen familiarendako. Are gehiago, nerabeen %70 familiaren mende daude, ikasleak direlako; bakarrik nerabeen %19k egiten dute lan, ikasteaz gain.

Nerabeak markistak direla baieztatzen du azterketak; izen ere, markek talde baten parte izateko sentsazioa indartzen dute.

Itxurazko deslokalizazioak aztertuko ditu Ogasunak

2014ko Ikuskaritza eta Egiaztapen Planeko "lehenetsunetako bat" izango dela dio Francok

L.K. | ARRASATE

Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak aurreratu du dirutza handien itxurazko deslokalizazioak jarraitzea lehenetsunetako bat izango dela 2014ko Ikuskaritza eta Egiaztapen Planean. Horrela esan zuen Ogasun eta Finantza diputatuak, Helena Francok, hilaren 10ean, prentsa ohar bidez. Iruzur fiskalaren aurka egingo zuela iragarri zuen iaz Foru Ogasunak, eta, jakinarazitako neurri horrekin, zergak ez ordaintzeko egin daitezkeen itxurazko mugimenduak aztertu nahi ditu.

Prentsa ohar berean, Abertasunaren eta Fortuna Han-

dien gaineko Zergak "zilegatasun osoa" duela aldarrikatu zuen, eta "zerga sistema osoari izatera progresiboagoa ematen laguntzeko oinarritzeko elementua" dela defenditu zuen.

Horrez gain, "EAJK, PSEK eta PPK defendatutako kontrarreforma" kritikatu zuen, eta ohartarazi zuen "orain hedatu nahi duten ideia" dela "fortuna handiak dituzten pertsonak Gipuzkoatik alde egiten ari direla. Ihes masiboaren arriskua zabaldu nahi duten arren, Ogasunak esku artean duen informazioaren arabera ez dago inondik ere horrelako alarmismorako oinarrik".

Errenta-berdintasun handia dago Euskadin; neurri handi baten, diru laguntzengatik

Krisiak diru-sarrerak txikitu ditu, baina berdintasunez banatu da dirua, ikertzaile batzuen arabera

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Euskadin, diru sarrerak berdintasun handienez banatzen dituzten Europako herrialdeen parean dago baina, bestalde, gizarte diru laguntzek zeresan handia dute hori horrela izan dadin, azterketa baten arabera. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko hiru teknikaririk -Francisco Javier Antón Murillok, José Angel Colinas Santosek eta Ricardo Iruarrizaga Presak- egin dute azterketa hori, eta *Ekonomiaz* aldizkarian argitaratu berri da.

Hiru ikertzaile horiek 1986 eta 2012 artean Euskadin errenta nola banatzen zen begiratu zuten. Horretarako, pobrezia eta gizarte desberdintasunak ezagutzeko helburuarekin, 4.200 familiari inkesta egin zioten.

Suediaren azpitik

Txostenaren egileek Gini indizea hartu dute aintzat. Horren muturreko balio batek, 1ek, berdintasun osoa adierazten du, eta 100ek, ezberdintasun osoa. Bada, hori hiru puntu jaitsi zen 1986tik 2008ra bitartean, eta 2008an, 25,2an kokatu zen. Maila hori Suediak (24,4) bakarrik hobetu du.

Bestalde, Europako Batasuneko datua (30,8) eta Espainiakoa (34) Euskadikoa baino "nabarmen handiagoak" direla azpimarratzen dute egileek. "Are gehiago, dezilak erabiliz eginiko analisiak adierazten du epealdi horretan lortu den hobekuntza goiko deziletatik behekoetara eginiko birbanaketaren ondorioa dela".



Lanbidek tramitatzen du RGI dirulaguntza. | GOIENA

Langabezia prestazioa

Bigarren ondorioa da "gizarte prestazioek paper garrantzitsua" dutela diru sarreraren banaketan. Garrantzi hori zifratu islatzen dute egileek: EAERI dagokion Gini indizea bost puntutan jaitea eragiten dute gizarte prestazioek. "%10 aberatsenaren eta txiroenaren arteko erlazioak islatzen du, transferentziarik ezean, bi talde horien arteko distantzia 2012an 15,5 aldikoa izango zela, baina transferentzietan esker distantzia hori 5,2 aldikoa bakarrik dela".

Gizarte prestazioen artean, "bereziki" langabezia prestazioak, aurretiko erretiroak eta familia babesteko prestazioak egiten dute ekarpenik handiena, Anton, Coli-

nas eta Iruarrizaga ikertzaileen iritziz. 1996-2008 epealdian, batez beste, guztizkoaren %70 inguru izan ziren prestazio horiek. Bestetik, Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak diru sarrerak bermatzeko errenta (RGI), etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte larrialdietarako diru laguntzak hartzen ditu eta, hori kontuan izanda, 2008. urtean prestazioen diruaren %13 eman zuen, eta handituz joan da partaidetza hori, 2012an %17ra ailegatu arte.

Laburbilduz, azterlan horren arabera, ekonomia krisiak diru sarrerak gutxitu ditu, baina ez du eragin esanguratsurik izan sarrera horien banaketan.

Rikardo Gonzalez de Durana | Kaltetuak elkarteko kidea

"Eroskik egin duen proposamena erabat onartezina da"

Ekarpen subordinatuengatik kaltetutakoek diote "Mondragonek konpondu behar" duela arazoa

L.K. | ARRASATE

Hilaren 21ean eta 22an hasiko da Eroskiren eta BBVaren aurka Adicae elkarteak ipini duen salaketaren epaiketa, ekarpen subordinatuak -*euskal preferenteak* deituak- direla-eta. Kaltetuak elkarteak epaiketa hori jarraituko duela esan du.

Epaiaketa laster hasiko da. Zer diotuzue Kaltetuak elkartekook?

Adicae-k ipintzen du salaketa, eta guk ikusi egingo dugu zer gertatzen den. Irabaztea opa diegu, baina bide judiziala labirintua da, izan ere, nahiz eta epaiketa bat irabazi, bankuek edo Eroskik helegitea ipini dezakete eta Auzi-



Rikardo Gonzalez de Durana. | L.K.

tegi Konstituzionaleraino iritsi daiteke kontua. Kaltetuak elkarrean barruan, batzuk bide judizialek joango dira, baina beste batzuek ezin dute.

Kaltetuak elkartekoak zertan zabiltzate orain?

Lehenengo boikot aktiboa indartu dugu. Gero, Eroskik eskaintza

bat egin du ekarpen subordinatuak kentzeko, eta guri aurretik Kontsumobidetik azaldu ziguten eskaintzaren diseinua, eta onartezina izango da. Kenketa edo kita handia egin nahi dute [%30 inguru], eta ematen dutena, bonuekin trukatu. Orduan, gure diru gehiena galduko genuke, eta guk

gure diruaren %100 exijitzen dugu. Bestalde, Eroski ez da gurekin zuzenean harremanetan jarri; egunotan jakin duguna prentsa bidez jakin dugu.

Fagor Etxetresnak ixteak ze eragin izan du zuengan?

Eragin kezagarria, noski, 10.000 kaltetu daudelako. Guk pentsatzen dugu hau Mondragonek konpondu behar duela, Fagor Etxetresnak Mondragoneko enpresa zelako. Dena dela, guri berdin digu Fagorrek, Eroskik, banketxeek... iruzur honetan parte hartu duen edonork dirua ematen badigu. Dirua berreskuratu nahi dugu.

Prozesu konkurtsalean zaudete?

Elkartekoei esaten ari gatzazkie nola jokatu behar duten, norberak parte hartu nahi badu. 18an bukatuko da aurkezteko epea. Hortik aurrera, norberak erabaki behar du aurkeztu nahi duen edo ez.

ZABALIK

AMAIA ARROYO SAGASTA
http://goiena.net/iritzia/



Olentzero maitea...

2013ko Gabonak pasata, eskutitza idaztea pentsatu dut. Arraroa egingo zaizu, ezta? Beno, bizitzak horrelako gauzak ditu, harritzen gaituzten gauzak. Gabon aurretik eskutitza idaztea ahaztu zitzaidan eta, aurten ekarri dizkidazun opariak ikusita, idaztea besterik ez zait geratu.

2013an opari zirraragarriak izan ditugu: osasuna, familia-besarkadak, bikotekidearen hamaika musu, lagunekin egindako barreak, ume txikien begirada gardenak... batzuei loteria ere tokatu zaie. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

Baina badira "hunkigarriak" izan diren beste hainbat opari: genero indarkeria sufritu duten pertsonak, desjabetzeen erruz etxerik gabe geratu direnak, oinarritzko eskubideak urratzen dituzten ekintzak, ingurumena suntsitzen dutenak, hezkuntza eta osasunean jazotako murrizketak... Horren berri izango duzu, Olentzero, ziur nago.

Badakit ez garelako oso ondo portatu. Dena kritikatzeko gai sentitzen gara eta, askotan, ez diogu geure buruari kritika bat bera ere egiten. Mundua aldatzea nahi dugu eta, maiz, ez dugu egunerokotasunean ezer egiteko denborarik. Badakit, Olentzero.

Horregatik, gauza bakarria eskatu nahi dizut: hezkuntza zaintzeko eta kalitatezko bihurtzeko indarra. Izan ditugun opari "hunkigarri" horien kontrako txertoa da hezkuntza, benetako aldaketa lortzeko giltza. Hezkuntza lehentasun bihurtzen badugu, etorkizun hobea lortuko dugu; ez dut zalantzarik. Askori, hori entzutean, Finlandiako hezkuntza sistema etorriko zaie burura. Ez naiz horretaz ari, Olentzero, guri dagokigun hezkuntza sistemari buruz baizik: gure kultura maiteko duen hezkuntza, herritar duinak (eta ez lehiatsuak) heziko dituen, ikasten eta sentitzen irakasten duena.

Hori da nire nahia eta, hori lortzeko, aurten hobeto portatzen saiatuko naiz, nire hitza duzu.

USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | iarantzabal@goiena.com

Euskara poz iturri

Ezer irabazita ez badugu ere, irabazitatz bizi dute hizkuntzaren gaia belaunaldi berriagoek. Berdin zaie ingelesez zein euskaraz irakurri, esaterako. Urrun zaizkie gazte askori euskara elkarte edo euskal hedabideak izatearen zergatiak, ahaztuxe. Askok ez dela, 50 urte-edo, Arrasateko kaleetan kartelak jarri aurretik joaten ziren Arantzazura pare bat lagun eta hangoei gomendioa eskatu euskaraz zelan idatzi beharko luketen. Askok eman digu Arantzazuk, eskertu ezindako beste. Gaur, kartel gehienak euskaraz ditugu herriko hormetan, baina Arantzazura joaten ziren haien ilusioa? Hori dugu langai, euskara poz iturri baita. Horretan bakana, eta betea.

KALE INKESTA

Murrizketa ekonomikoek eragin dute zure eskubideetan?



KRISTINA
ETXEBERRIA
ARRASATE

"Bai, soldatan igarri dut, asko, gainera. Larrialdi zerbitzuetan ere nabaritu dut: ez dago jende asko, eta denbora asko itxaron behar duzu".



ALAITZ
ZUAZUBISKAR
OÑATI

"Niri zuzenean ez, baina gertuko batzuei bai. Eskubide batzuk, ezintasunen bat dutenak, esaterako, oso beharrezkoak dira".



JONE
MARTIN
ARRASATE

"Osasun arloan lan egiten dut, eta Debagoieneko Ospitalean nabari dira murrizketak. Oinarritzko kontuetan nabari da, baita hezkuntza ere".



JOSE RAMON
BELASTEGI
ARRASATE

"Erretiratua naiz, eta guretzako dena beherantz doa. Atera kontuak: %0,25 igo, eta esaten digute ez dugula erosteko ahalmena galdu".

HANDIK ETA HEMENDIK

Juan Gelman

Inazio Arregi
blogak.goiena.net/margola/

Asteon zendu zaigu Juan Gelman poeta argentinarra.

Jasotako sariak, bere militantzia politikoa, eta seme-errain eta bilobari miliko-ek egindakoak aireratu dituzte bateko eta besteko hedabideek.

Juan Gelmanenganako zubia beste Juan batek eraiki zidan 70eko hamarkadan: Juan Cedronek hain zuzen, Gelmanen poemak maisuki musikatu zituenean.

Argazkitan bakarrik ikusi dugu.

Aurpegi argal zimurrez betea, asko ikusi eta bizitza gogorra egokitu zaionaren begirada sakona, eta sufrimendua azaleko ildo bakoitzean.

Galdutako biloba aurkitu izanaren poza, ete diktadurak lapurtutako seme-errainen galerak eragindako pena gaindi ezinaren tristura, biak batera islatzen duen aurpegia.

Cedronek Gelmanen poemak musikatu zituenean, anabasa eta oinazea ziren nagusi euren jaioterrian.

Musikariak eta poetak bat egin zuten hainbat erronketan,

eta argitaratutako doinu eta hitzetan iraultzailearen aldarrria aurkitzen dugu.

Kupida gabe kolpatu eta urperatzen duen tsunamiari aurre egiten dio duintasunez montonero militantek.

Hizkuntzaren iraultzaile eta iraultzaile sozialak; iraultzaile globalak.

70. hamarkadako Gelman militanteak bizirik dirau hainbat poema eta kantetan. 1976an Argentinako matxinada militarreko urtean, berak idatzi eta Juan Cedronek musikaturako *Cantata del gallo cantor* grabatu zuen Frantzian Cedron laukoteak.

Hirurogeita hamaseian Argentina eta Espainiak bide politikoa kontrajarriekin zioten.

Batean milikoak (Videla eta lagunak) boterera, bestean diktadore militarra lurperatu berri.

Bi herrialdeek abiatutako bideak desberdinak izanagatik hainbat parekotasun aurkitu daitezke aipatutako kantatan.

Ez ditut egoerak parekatuko Argentinan desagertutakoek, lapurtutako umeek eta bidegabekeriek ez dutelako parekorik mundu zabalean, baina Cedron laukoteak Paco Ibañezekin

batera abestutako kanta hau (*Cambios*) entzuten baduzu, ikusiko duzu zein gertuko egiten zaizun Eugenioren historia, eta ze parekotasun gordetzen dituen Itziarren semearenarekin adibidez. Seguru Kantata beraren *Cartas* izeneko garrasi mingarri eta tragikoak ez dizula urrutiko egoera sinestezin bat ekarten gogora.

Juan Gelmanek narrutik ordaindu zuen talde politikoa militarren kide izana. Zorraz kitatuta hainbat sari jaso ditu bere poetikaren aitortzea moduan.

Tartean Cervantes eta Reina Sofia sariak.

Espainiako erreinua talde politikoa militarreko kide ohiari sariak ematen! Handiagoak ikusiko ditugu!

Joan zaigu Juan Gelman, bere poemak, bere tragedia eta bere historiarekin.

Agur betiko.

Sefini:

basta por esta noche cierro la puerta me pongo el saco guardo los papelitos donde no hago sino hablar de ti mentir sobre tu paradero cuerpo que me has de temblar

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailatoko arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urzelai
Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Zierza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzone Gaintzarain,
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Goiena Klubeko urtarrileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Lenovo tableta

Arrasateko Eroski Hipermerkatuak emandako
Lenovo ideatab A2107A tableta

Parte hartzeko sariaren izena:
Lenovo



ARRIKRUTZ
oñatiko kobak

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko 6
sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz



Argia

3 liburu sorta.

Freexkue, Mantxut eta
Mantxut, Mantxut? liburuak

Parte hartzeko sariaren izena:
Liburuak



Argia

2 joko

Argiako Bizi Birzi jokoa

Parte hartzeko sariaren izena:
Bizibirzi

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Amaia Txintxurreta | Kantariko aurkezlea

"Emozionatu egin nintzen horrenbeste gaztetxo Kantariko abestia kantatzen ikustean"

- ▶ Kantariko 4. edizioko azken grabazioak burutu zituzten zapatuan, Amaia Antzokian
- ▶ Guztira 600 gaztetxok hartu dute parte GOIENako karaoke programa honetan

ANE ETXEBERRIA | DEBAGOIENA

Energiaz beteriko emakumea dugu Amaia Txintxurreta Kantariko aurkezlea. Karaoke ikuskizunaren laugarren edizioa amaitu berri da eta berarekin egon gara bizitako esperientziaren berri izateko.

Zapatuan Arrasaten izan ziren Kantariko azken grabazioak egiten, zer moduz joan ziren?

Primeran joan ziren Arrasateko grabazioak. Izugarritzko harrera egin ziguten Amaia antzokian; gure artista gazteen guraso, familiarreko eta lagun ugari joan ziren kantariak animatzera eta Amaia antzokia jendez lepo bete zen. Gazteei animoak emateko kartel eta guzti joan ziren lagunak ere egon ziren lehen ilaretan eta benetan pozgarria da bertaratutako zirenen aurpegiaren irribarreak ikustea. Nik ere asko disfrutatu nuen gaztetxoekin batera. Saio guztiak grabatu ostean, gainera, sorpresa bat ere egin zidaten lankideek; Arrasaten izan genuen harrera bikaina izan zela ikusita, bertan zeuden gaztetxo guztiak taula gainera igotzera gonbidatu zituen Aitor Agirianok guztiok batera Kantariko kantua abestu eta dantzatzeko. Nik ez nekien hori egin behar zenik eta sorpresa hartu nuen. Emozionatu ere egin nintzen horrenbeste gaztetxo Kantari kantatzen entzutean.

Zeu ere telebistako karaoke batean abesten hasi zinen musika munduan lehen urratsak egiten, ezta?

Bai, halaxe da. Telebista saio bateko karaokean abesten azaldu nintzen lehen aldiz telebistan 13 urterekin, Betimu izeneko saioan. Momentu horrekin ez naiz inoiz ahaztuko eta orain Kantariko gaztetxoak ikusten ditudanean ni gazteagoa nintzeneko momentu horrekin gogoratzen naiz. Nolako ilusioa nuen agertoki gainera igo eta abesteko, baina era berean urduritasunak ere banituen normala den moduan. Kantariko gaztetxoak

"600 gaztetxo inguruk hartu dute parte aurtengo edizio arrakatsuan"

"Pertsonalki gehien disfrutatu dudanean edizioa izan da aurtengoa"



Amaia Txintxurreta Kantari saioko aurkezlea. | IMANOL SORIANO

taula gainera igo aurretik ikustean, neu ere horrelaxe egon nintzela gogoratzen dut ilusioz.

Neska mutil asko pasa dira oholtza gainera, izar asko ditugu Debagoiengan?

Bai, horixe! Kantariren laugarren edizioan 600 gaztetxo inguruk hartu dute parte eta izan garen herri guztietan erakutsi digute badutela gaitasuna taula gainera igo eta horrenbeste jenderen aurrean dantzatu eta abesteko.

Aurten, entseguak egin dituzue

Bai, uste dut entseguak orokorrean oso eraginkorrak izan direla. Talde bakoitzarekin entseguak eginda harremana zuzenagoa izan da parte-hartzaileekin.

Kantariko laugarren edizioa amaitu da, zein balorazio egiten duzu?

Oso ona. Esango nuke nik pertsonalki gehien disfrutatu dudanean edizioa izan dela. Zergatik? Entseguak izan ditugulako gaztetxoekin, eta hor hartu-eman izan dugulako. Hala, ikuskizunetan DJ lanetan ere ibili naiz eta horrek ekarri dit denbora guztian agertoki gainean egotea eta zuzenean ikustea gaztetxoak egiten ari zirena; eta baita publikoaren erreakzioa ere. Behin grabazioak bukatuta, guraso ugari esan didate euren seme-alabek gustura hartu dutela parte Kantarin eta egiten dugun lanagatik zoriondu gaituzte, horrek asko bete nau. Eskerrak ematea ere gustatuko litzaidake Kantarin modu batera edo bestera parte hartu duten guzteei; bai artista gazteei eta baita ere lan-taldeari.

Urko Egia Port Aventura bidaiaren irabazle

Eroski Bidaiaren eskutik Port Aventura joango da aurtengo Pazkoa astean Urko. Izan ere, zapatuan, Arrasaten ospatutako Kantari saioan eman zuten ezagutzera aurtengo zozketa handiko irabazlea. Esan bezala Urko Egia izan zen garaile eta oso urduri egon bazen ere, zozketako irabazlea izateaz pozik zegoela esan zion GOIENARI. "Urtero joaten naiz Port Aventura, baina hala ere ondo pasatuko dut", gaineratu zuen Urkok.

Gure txapeldunak, Kantarik Oñatin ospatutako saioan hartu zuen parte eta esperientzia asko gustatu zitzaiola gaineratu zuen. Guztion partez ZORIONAK URKO!



Urko bere senideekin batera saria jasotzen. | IMANOL SORIANO

HERRIAK

ARAMAIO

Basilio Ugarteri, Aramaioko azken ikazkinari, agurra

- ▶ Erretiroa hartu zuenetik aritu zen ikazkin lanetan Basilio Ugarte
- ▶ Bizitza osoan zehar izan zuen egurrarekin lotura estua

ZURIÑE V.D.M. | ARAMAIO

Aramaioko azken ikazkina izan zen Basilio Ugarte; 2014ko urtarilaren 15ean hil zen Gantzaga auzoko bizilaguna. Liñatza base-rrian jaio zen 1925ean eta bertan hazi eta bizi izan zen.

Ez zen beti ibili ikazkin moduan; erretiratu zenean heldu zion zaletasunari: "Mutikotan aitarekin hasi zen, baina gero beste ogibide bat hautatu zuen. Gazte hartu zuen erretiroa, gainera, eta orduantxe hasi zen ikatza egiten berriro ere". Horrela ekarri du gogora Ana Mari Ugarte lobak. Urte dezente eskaini zizkion afizioari aramaioarrak. "Urtean behin egiten zuen txondorra eta azkenekoz 2008an izan zela uste dut".

Ikazkin lanetan

Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea jasotzen dituen Ahotsak proiekturako elkarrizketatu zuten 2009an Ugarte, eta bertan, ikatza egiteko jarraitu beharreko prozesuari buruzko xehetasun gehiago eman zituen: "Pagoa baliatzen nuen ikatza egiteko. Basotik etxera eramaten nuen egurra, bertan lautada bat egin eta egurra pilatzen nuen, eta txondorra eraiki. Egurrik sendoenak ipintzen nituen aurrena, eta meheak ostean. Guztia estali behar zen eta orbela erabiltzen nuen horretarako. Hurrengo urratsa barruan geratzen den zuloan sua egitea zen, eta, estalki antzerakoa erabiliz, egurrari gosten utzi behar zitzaion".

Lan handia eskatzen duen zaletasuna zuen Ugarterek; gustura eskaintzen zion bere denbora. Dena dela, adinean aurrera egin ahala gehiago kostatzen zitzaion, eta, azkenean, ekoizteari utzi ziola dio Ana Mari Ugarterek: "Egunez ere aritu arren, batez ere gauetan egiten zuen lan, eta lorik ere ez zuen egiten ia. Hain zuzen ere, betegarrria eskatzen joaten da txondorra eta adi-adi jarraitu behar da prozesua, goizeko ordu bietan, hiru-retan... Polita da ikazkinaren lana, baina gogorra".

Bildotsak erretzen abila

Horrez gainera, abila zen Ugartere bildotsak erretzen. "Azken



Basilio Ugarte txondorra prestatzen Gantzaga auzoan. | JONE INUNTZIAGA



Aramaioko azken ikazkina, txondor gainean. | JONE INUNTZIAGA



Erretiroa hartu zuenean hasi zen ikatza egiten. | JONE INUNTZIAGA



Ugarte Zabalandin. | ARAMAIOKO UDALA

urtetan alboratu egin zuen lan hori ere, adinak ez du barkatzen eta! Baina bizitza osoan egin zuen zerbait da. Gure etxean tradizioa izan da Pazko egunean osabak buruntzian erretako bildotsa jatea". Hasieran erositako ikatza baliatzen bazuen ere, gerora, txondorretik ateratakoa erabiltzen zuen aramaioarrak.

Egurrarekin lotura estua

Basilio Ugarterek lotura estua izan zuen egurrarekin; izan ere, ikazkina izateaz gainera, artisaua ere bazen, eskuekin ere lantzen baitzuen zura.

Besteak beste, idientzako uztarriak egiten zituela oroitzen dute gantzagarraren ingurukoek. "Kontatzen zigunez, idiak-eta ugariak zirenean, batez ere Bizkai aldera joaten zen eta neurri-egiten zituen uztarriak. Behar bezala lan egiteko, baserrietan geratzen zen lotan, egitekoa amaitu arte". Baina baserrietan idien erabilera txikitzen joan zen neurrian, lan hori egiteari utzi zion.

Horrez gainera, arotz lanetan aritu zen aramaioarra. Hain zuzen ere, Muebles San Josepe arotz-egia sortu zuen lagun batekin batera. Sukaldeko altzariak egiten zituzten eta dendei eta etxe partikularrei saltzen zizkieten, Ahotsak proiektuan gogora ekarri zuenez. "25 urte egin nituen arotzegan lanean, eta hor hartu nuen erretiroa. Urte horietan guztietan, aulkiak eta mahaiaik ere egin arren, batez ere armai-ruak sortu genituen".

Irribarre handiko gizon isila

Basilio Ugarte Urrutia ezagutu zutenek Aramaioko azken ikazkinaren bi ezaugarri azpimarratzen dituzte: gizon isila zela diote, baina, gainera, haren irribarre gogoratzen dute. "Berba askorik egiten ez zuen arren, azken urteetan aldatu eta irekiagoa zen. Esaten ez zuen hori irribarrearekin esaten zigun".

Gantzagarra sortzez, auzoko abadeekin ikasi zuen eskolan 7 urte zituenetik 12 urtera arte. Euskaraz ikasi zuen, gainera, idazketa-irakurketa izan ezik. Durangoko jesuitekin ikasi zuen gaztelaniaz, eta sukalde lanetan aritu zen bertan. Bizitza osoan egurrarekin harreman estu-estu izan zuen aramaioarrak.



Lan eta la zuloa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



Egindako lana txukuntzen. | J. ARANTZABAL



Zuhaitz berriak Ibarraundi museoan, 23 zuhaitz landatu dituzte. | J. ARANTZABAL

ESKORIATZA

Ibarraundi inguruan pago eta intxaurrondoek emango dute itzala

Urteroko ohiturari jarraiki, Zuhaitz Eguna ospatu zuten atzo Eskoriatzan; 23 zuhaitz landatu zituzten

ANE ETXEBERRIA | ESKORIATZA

Urteroko ohiturari jarraiki, 2013an jaiotako ume kopurua kontuan hartuta zuhaitzak landatu zituzten atzo Eskoriatzako Ibarraundi museoaren inguruan. Kasu

honetan, pago gorriak eta intxaurrondoak landatu dituzte. Ekimen honekin, "zuhaitzek gure bizitzan duten garrantzia", adierazi nahi izaten dute eta baita, herrian jaiotzen diren ume guztiek zuhaitz

bana izango dutela. Nahiz eta behe-lainoa izan eta hotz galanta egin, familia asko bildu zen Ibarraundin euren zuhaitza landatzeko. Familian burutzeko ekin-tza izan zen atzokoa eta bertara-

tutako guztiek, nagusi zein haurrek primeran pasa zuten eta gustura geratu ziren egindako lanarekin.

13 intxaurrondo eta beste horrenbeste pago gorri landatu

dituzte aurten, eta beraz, urteak aurrera joan ahala, zuhaitz horiek itzal ederra emango dute. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, zuhaitz mota horrek aukeratu dira inguru horretako naturarekin bat datoze-lako. Gainera haurrei ilusioa ere egiten dietela adierazi zuten, euren bizitzaren zati bilakatzen delako zuhaitza izatea.

Iaz, 21 zuhaitz landatu zituzten tren geltoki zaharra eta Zubia enpresa arteko bidegorri zatiko berdeguneetan, aurten beraz, bi zuhaitz gehiago izango dira iazkoarekin alderatuta.

**SAIOA
ALTZUA**
ANTOLATZAILEA



"Urtero antolatzen dugun kontu bat da, aurreko urtean jaiotako ume beste zuhaitz landatzen ditugu. Leku askotan burutzen den ekin-tza da, ohitura dago".

**ANDONI
AZKARATE**
PARTE-HARTZAILEA



"Ondo joan da, ez daukagu ohitura handirik halako gauzak egiteko, baina Aimarren laguntzarekin oso ondo. Bion artean lan eginda errazagoa da".

**MARI KARMEN
MUNILLA**
PARTE-HARTZAILEA



"Senarrak egin du lana, ni begiratzeko egon naiz. Lehen aldia da gatozena, orain egingo du urtebete umeak eta pozik nago zuhaitza izango duelako".

**PATXI
OROBENGOA**
PARTE-HARTZAILEA



"Nahiko gogorra izan da harriak zeudelako, lehena jaio zenean bat landatu nuen, baina ez daukat esperientzia handirik, polita iruditzen zait ekimena".

**SAIOA
ESNAL**
PARTE-HARTZAILEA



"Lekuz aldatu behar izan gara hormigoia topatu dugulako eta beste zulo txiki bat egin behar izan dugu. Pagoa landatu dugu umeak hala esanda".

ARAMAIO

Arabako sagardo berria dagoeneko dastagarri Iturrieta sagardotegian

A.E | ARAMAIO

Irekiera ofiziala Trebiñun egin dute aurten eta bertan bertso elkarteko kideak izan ziren sagardoa dastatzen. Egubakoitzean aldiz, Iturrietan "modu sinple batean" hasiera eman zioten txotx garaiari. Txalama talde gasteiz-tarraren txalaparta, adar eta perkusio doinuak alaitu zuten giroa herriko trikitilari eskolako kideen laguntzarekin. Azkenean 150 lagun elkartu zirela adierazi zuen Iturrietako sagardogile Peciñak, "Lagun giroko

hasiera eman genion, eta azkenean, azkenean 150 lagun elkartu ginen, lagun eta auzotar asko izan ginen".

Sagardo denboraldia maiatza bitarte izango da eta iaz bezala, autobus zerbitzua eskainiko dute, "Debagoienetik jende asko hurbiltzen da, gertutasuna dela medio eta Gasteiz aldetik ere, geroz eta jende gehiago etortzen da. Autobus zerbitzua jarriko dugu aurten ere jendea lasai ibili dadin edaten, gero kotxeak hartzeke", gaineratu zuen Juanjok.



Iturrietan aurtengo sagardoa probatzen. | IMANOL SORIANO



Txalaparta doinuak ere izan ziren. | I.SORIANO

ARRASATE

Baserritarren urteko lehen azokan sasoiko produktuak nagusi

Elkartruke azoka ere egin zen eta txistulariek kaleak girotu zituzten zapatuan

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Urteko lehenengo azoka egin zuten baserritarrek Seber Altuben zapatu goizean; eta Elkartrukerako lagunek ostera, Azoka plazan ipini zuten euren postua. Lehenengo orduetan giroa motel baze- goen ere, geroz eta jende gehiago animatu zen kalera orduak aurre- a egin ahala. Txistulariak ere hor egon ziren eta doinuaz jantzi zituzten herriko kaleak.

Denboraldiko jakiak

Aza, brokolia, babarrunak eta bestelako produktuak izan izan ziren nagusi zapatuan Seber Altuben.

"Horrelako azoka izatea aukera oso ona da eta aprobetxatu behar dugu. Ez dago sasoiko produktuak jateko kulturarik, eta aukera egon badago". Horiexek Rakel Perez de Arenazak bere postutik esandakoak. Bestalde,

Felix Barcina artisauak aditzera eman zuenez, oraingo honetan koilarez gain, Santa Ageda egunerako makilak saldu zituen batez ere.

Azoka plazara lekualdatu eta Elkartrukeren eskaintzari dago- kionez, arropa, jostailu eta libu- ruez gain, neguko gauzak aur- kitu zituzten bertaratutakoek, tartean, eski para trukatze- ko aukera egon zen.



Txistulariek zapatu goiza alaitu zuten kalez kale. | IMANOL SORIANO



Elkartruk azokan eski para truka zitezkeen. | Z.V.D.M.



Askotariko produktuak erosi zitezkeen azokan zapatuan. | IMANOL SORIANO



Sasoiko produktuak nagusi izan ziren baserritarren azokan. | IMANOL SORIANO

BERGARA

Aroztegi herriko artisten lanez bete da, eta jaso ditu lehenengo bisitariak

Beart elkarteko kideen lanak urtarrilaren 26ra arte egongo dira ikusgai Aroztegi aretoan

Z.V.D.M. | BERGARA

Egubakoitzean ireki zuten Ber- garako Beart elkarteko lanez osatutako erakusketa Aroztegin, eta aretoko arduradunek aditze- ra eman dutenez, "egun hauetan jende dezentek ikusi du erakus- keta".

Estilo ugari

Gutxi gorabehera 50 lan daude ikusgai eta askotariko estilo eta gaiak jorratu dituzte egileek euren koadroetan. Batzuek natura hilak pintatu dituzte, paisaiak bestek,

erretatuak gutxi batzuek... Eta koloretsuak dira Aroztegin ikus- gai dauden hainbat lan eta mote- lagoak besteak.

Bisitariei dagokienez, tantaz tanta bada ere, jendea gerturatz- en da Aroztegi. "Azken finean Bearteko kide ugariaren lanak daude ikusgai, eta horrek ere eragiten du, dela familiakoak datozelako, lagunak..."

Interesa dutenek urtarrilaren 26ra arte dute aukera azken urte honetan herriko artistek eginiko obrak ezagutzeko.



Erakusketan ia 50 lan ipini dituzte ikusgai. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Makatzena behealdean dauden eraikinetan hasi dira obrak; aldamiok ikus daitezke dagoeneko. | JOKIN BEREZIARTUA

Hasi dira Makatzena auzoa zaharberritzeko obrak

Beranduenaz 2015eko udaberrian amaituko dira lanak, 17tik zortzi eraikinetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
 Hasi dira Makatzena auzoa zaharberritzeko obrak. 1960ko hamarkadan eraikia, Makatzena 17 eraikinek eta 225 etxebizitzek osatzen dute. 17 atarteetatik zortzi sartu dira Jaurlaritzaren Revive planaren barruan. Obrak 30.000 euroko kostua du batz bestea etxebizitzako, eta horren %50a Jaurlaritzak ordainduko du. Hau da, etxebizitzako gehienaz 15.000 euro. Gainerakoa bizi-lagunek ordaindu beharko dute -kontuan izan behar da egun proiektuaren barruan daudenek sustatu zutela obra egitea-. Guztira, Jaurlaritzaren ekarpena 1.815.000 eurokoa izango da.

Oraingoz bi eraikinetan hasi dira lanean -zehazki 2 eta 2 bis zenbakia duten atarteetan- eta modu progresiboan helduko dira

obrak zortzi eraikinetara. Lanak izango dira Revive planak jasotzen dituenak: C energia ziurtagiria lortzea, oztopo arkitektonikoak kenduz irisgarritasuna bermatzea, kontsumoak kontrolatzeko monitorizazioa gauzatzea eta hezetasun arazoak konpontzea -auto-airez-tatzea eta isolamendua-. "Tamaina handiko" obra da, Suradesako

arduradun Luis Laskurainek gogoratu duenez: "Lanak urte amaierarako edo, beranduenaz, 2015eko udaberriko amaitzea da asmoa; Revive planaren puntu garrantzitsuetako bat da obrak epean barruan amaitzea".

Ez dira guztiak batu

Aspaldiko kontua da Makatzena zaharberritzeko proiektuarena. Plan osoaren aurrekontua oso altua zela ikusita, Suradesak diru-laguntza berezien bila jo zuen Jaurlaritzako Etxebizitza Sailera. 2011ko udan heldu zen zirriborroa Gasteiztik, baina atzerapenek eta proiektuan eman ziren zenbait aldaketek auzotar batzuek sinesgarritasuna galtzea eragin zuen.

Azkenean, 18 komunitatetik zazpi sartu dira proiektuan.

DATUA

15.000

EURO ETXEBIZITZAKO

Jaurlaritzak 15.000 euro eman ditu etxe bakoitzeko; guztira, 1.815.000 euro.

Sute txiki bat izan zen Iturbideko sukaldean

Egubakoitz goizean suhiltzaileen hiru kamioi eta anbulantzia bat gerturatu ziren Iturbide egoitzara. Egoitzako beheko solairuan kea sumatu zuten 08:30ak aldera eta bertako langile guztiak kalera ateratzeko agindua ematez gain, suhiltzaileei deitu zieten. Ez zen zauriturik egon eta egoitzan ez zuen kalte larregi eragin.



MIRIAN BITERI

NIRE USTEZ

ANDER ETXEBARRIA



Hizkuntzak eta hizkuntzak

Spainia lagun batek esan berri dit dagoeneko ez duela gustuko euskal kantari famatu bat. Zergatiari buruz galdetu eta erantzuna ondokoa: "Orain euskaraz abesten du eta ez dut ezer ulertzen". Seguru nago arazorik gabe entzuten dituela ingelesez, alemanez edo errumaniaraz diren kanta onak.

Estatuan zehar, sarritan entzun dut euskaraz nabilela: "Es que no se entiendo nada". Zer espero da ulertzea? Japonierarengatik ez legoke horrelako komentariarik.

Norbaitek esan dezake prestigio kontua dela, euskarak ez duela besteen ospea, alegia. Uste dut, ordea, sentimendu

konplexuagoa dela; ezinegona -edo, Estatu berean egonda zerbaitek esku artetik ihes egiten duelakoan. Joxemiel Barandiarani egotzitako anekdota batean, trenean zihoala euskaraz berbetan, inguruko batek botatzen zion: "¡Hable en cristiano!". Barandiaranek: "Estoy hablando en alemán". Eta haserretuak erantzun: "Ah, perdona".

Prestigioa ingelesak dauka. Abenduko gospel ekitaldian, koruko zuzendariak emandako azalpen guztiak ingelesez izan ziren, entzule askok -adinagatik- ezer ulertu ez bazuen ere. Zuzendariak ez zuen inongo erreparorik adierazi foro hartan ingelesez egiteagatik eta entzuleetako inor ez zen kexatu edota altxatu kanpora joateko.

Euskarak beharrezko ditu 365 egunak.

"Japonierarengatik ez legoke horrelako komentariarik"

San Baleixo jaiak aste bukaeran Meatzerrekan

J.B. | ARRASATE

Meatzerreka auzoa jaietan murgilduko da asteburuan. Egitarauan ez dago nobedade handirik; ez dute hutsik egingo programako izarra den mus txapelketak -aurtengoa 33. edizioa da-, baserri arteko patata -tortilla txapelketak, Gorritiren

animaliek eta txerri-harrapaketak, besteak beste. Mus txapelketan izena eman gura dutenek 943 79 97 37 telefonora deitu dezakete egubakoitzean, 18:00etatik 22:30era. Auzoko elkartera bertaratuta ere eman daiteke izena. Bikote bakoitzak 25 euro ordaindu beharko du.

JAIETAKO EGITARUA

URTARRILAK 24

18:00 Jaietako hasiera emateko suziri jaurtiketa.

19:00 Arrasaten Hazia hitzaldia, Meatzerreko garapen historiko eta artistikoaren gainean.

22:30 XXXIII. Mus Txapelketa.

17:00 Gorritiren eskutik pottokak. Geroago agertzen direnendako txokolate-jana.

21:00 Auzo-afaria.

23:30 Erromeria Orots taldearen eskutik.

01:00 Txerri-harrapaketa.

URTARRILAK 25

12:00 III. Baserri arteko patata-tortilla lehiaketa.

16:00 Hour eta gazteendako jolasak.

URTARRILAK 26

11:00 San Baleixo ermitan meza, Gesalibar eta Garagartzako abesbatzekin.

11:30 Lore Gazteak dantza taldearekin Auzo Dantza.

Domekako 'Hamlet' antzezlanerako sarrerak salgai daude Udalaren webgunean, hamar eurotan

William Shakespeare idazle ingelesak 1602an idatzitako *Hamlet* antzezlanaren Amaia antzokira helduko da domekan, hilak 26 (19:30). Antzerkiaren munduan izen entzutetsuenetako bat da obra. Ekintza politikan oinarritzen da: gezurra, jukutria, kalkulua, konplota, diru-gosea... Sarrerak salgai daude dagoeneko Udalaren webgunean, hamar eurotan: www.arrasate-mondragon.org.

Erronka ugari ditu bere gain Besaidek aurten

Besteak beste, Aiba! mendi martxa zein Besaide Eguna antolatzeko lantaldeak osatu gura dituzte

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Urtarrilaren 16an egin zuen Besaide mendi elkarrekin urteko batzar orokorra. Gai ugari izan zituzten hizpide Kulturateko bileran; beste artean, 2013ko jardueren errepaso egin zuten eta 2014ko erronkez ere egin zuten berba.

Ekintza arrakastatsuak

Mendi irteerak eta Mondran Bike martxa nabarmentzen dira 2013ko ekintzetatik, Besaideko Aitor

Zubiagak dioenez: "Jende gehien elkartu izan diren bi ekintzak izan dira. Bizkaiko bira, esaterako, arrakastaz amaitu zuten".

Arabako bira, Mendi Film Tour...

Bizkaia utzita, Arabako bira egingo dute 2014an, nahiz eta lehenengo irteera (ohiturari jarraituz) sagardotegira egingo duten; Usurbil aldera joango dira, otsailean. Ostean hasiko dituzte Arabako lautadarako irteerak. Apirillean

hasita, etapa ezberdinak antolatu eta azaroan emango diote amaiera ekimenari.

Mendi Film Tour ere ekarri dute azken bi urteotan Arrasatera eta aurten ere errepikatuko asmoz dabilta. "Daukan arrakasta aintzat hartuta goizetik antolatu gurako genuke zerbait, gazte jendearentzat ere erakar-garri bilakatuz".

Erronkei dagokionez, Aiba! mendi martxa antolatzeko ideia dute buruan. "Orain arteko antolatzaileekin bilera egin eta baloratu egingo dugu antolatu ala ez. Baina lantaldea osatzea funtsezkoa izango da, bestela beti berdina egoten dira nahasita". Eta bide beretik joango litzateke Besaide Egunaren antolaketa ere.

"Bestalde, eginda daukagun bide publikoen inbentarioari



2012ko Aiba! martxako une bat. | AKETZ ZUBIA

irteera eman gura diogu. Pleno-pasatzeko konpromisoa hartu du alkateak eta garrantzitsua da guretzat, ofizialtasuna emateko balioko du eta".

Amaitzeko, Besaideko bazkideak animatu gura dituzte Leixargarateko aterpea erabiltzera. "Aizkorri-Aratz parkean dago eta merezi du bertara joatea".

Jaso dituzte IV. Palindromo lehiaketako aurreneko lanak

Z.V.D.M. | ARRASATE

Otsailaren 15a izango da AEDk antolatutako IV. Palindromo lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna. Euskara elkarrekin dinamizatzailer Maite Agirrek aditzera eman duenez, jarraitzaile fidelak ditu sariketarak: "Deialdia egin eta egun gutxira dagoeneko jaso genituen lan batzuk". Eta bide horretatik jarraitu dute; izan ere, dagoeneko 25 lan jaso dituzte AED elkarrekin.

Aurreko urteetan esaldi bakarrez osatutako lanak izan dira nagusi. "Aurten, oster, palindromoz osatutako olerkia jaso dugu". Dena dela, gogora ekarri dute, horrelako lanak aurkeztea posible izan arren, zentzua izan behar dutela ekarpenek.

Euskal Herriko palindromo onena sarituko dute batetik eta bestetik, Arrasateko onena zein den hautatuko dute. Lanak AEDra eraman edo aed@aedk-arte.com helbidera bidali.

Gasteizko The Soulbreakers Company taldearen txanda

Z.V.D.M. | ARRASATE

Etenaldi luze baten ostean, indartsu itzuliko da The Soulbreakers Company talde gasteiztarra oholtzetara eta Kooltureko gonbidatu berria izango da, gainera, 22:00etan hasita.

Eguzi honetan Arrasateko Gaztetxean kantu zaharrak interpretatzeaz gainera, arabarrek otsailean argitaratuko duten *Graceless* deituriko diskoan jasotzen direnak ere entzun ahal izango dira.

Seikotea da The Soulbreakers Company. Rockaren bide-tik hasi zuten euren bidea 2003an eta laugarren lana kaleratzeaz dute. Aurreko lanak *Hot Smoke and Heavy Blues* (2005), *The Pink Alchemist* (2007) eta *Itaca* (2010) izan ziren.

Cobraren bisita

Urtarrileko azken egunean, hilaren 30ean, Cobra taldearen doinuek blaituko dute Koolture Osteguneko giroa.

Bitxien erakusketa Kajoen

Arrasaten bizi den Kasia Maslyk Poloniako bitxigileak zilarrezko belarritako eta lepoko erakusketa antolatu zuen Kajoen egunean. Herbeheretan bizi den lagun batekin duen Argenti Tui bitxi etxea eman zuen ezagutzera, hala.



IMANOL GALLEGO

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

AUKEA: ixe urtebete lanien Mondraueko deportie bateraketan

1988ko apirilaren 29an sortu zan AUKEA: Arrasateko Udaleko Kirol Erakunde Autonomoa.

Zertarako sortu zan? "Kirol munduko erabaki eta egitasmoak bateratzeko kirol elkarten partizipazio zuzenarekin".

Hainbat proiektu eukien ordureko, eta batzuk egindde: Antñoia pabiloie inauguratu euen 1989ko urtarrillien eta kiroldegixen barrikuntzak egin zittuen (bestuarixuek, klimatizaziñue, elektrizidadie...). Esku artien eukien proiektu harrigarrixena, barriz, hauxe zan: Garagartzan belodromue egittie!

Kirol elkartiek oso pozik euzen erakunde barrixekin, oso lagungarrixek zalako: "Orain badaukagu leku bat gure beharrak planteatzeko, eta jestionatzen zuten parte hartzeak aukera dugu, lehen gertatzen ez zena".

'Txepetx', euskerien erabilleriekin kezkatue Jose Maria Sanchez Carrion Txepetx soziolinguistari entrestie egin eutzien.

Euskeraz egitteko motibaziño faltie nabarmendu euen, jeneralien, eta batez be politikuen artien: "Ditugun alderdiak, edo erdaldukan dira erabat, edo sasi-euskaldunak. Denok dute erdara nagusi. Egoera hau aldatzen ez den bitartean, ezin daiteke euskararen izenean mintza (...) euskararen bizitza kolokan eta arriskuan orain dago".

AEDren lana nabarmendu euen: "Euskal Herrian beste alternatiba baten bila dabilzanen eredu eta exemplu da".

7. zenbakixe 1989-01-20



OHARRAK

1983AN JAIOTAKOAK

Otsailaren 8an elkartuko dira. Sara Merenderoan bazkalduko dute; txartelak Ekaitz tabernan daude salgai 25 eurotan, urtarrilaren 31ra arte.

1989AN JAIOTAKOAK

Martxoaren 15ean Hernaniko Itsasburu sagardotegian bazkalduko dute. Otsailaren 7a baino lehen eman behar da izena, honako kontu korrante zenbakian 40 euro sartuta: 3035

0001 54 0010127555. Izen-abizenak jarri kontzeptu moduan.

ODOL ATERATZEAK

Odo Emaileen Elkartearen ekimenez odol ateratzeak egingo dituzte urtarrilean. Ohi bezala Arrasateko ambulatorioan izango da: hilaren 22an, 28an eta 29an joan ahal izango dute interesatuek odola ematera. Ordutegiari dagokionez, 16:30etik 20:00ak bitartean bertaratu ahal izango dira.

Bizikletak garbitzeko eta gurpilak puzteko gunea erabilgarri dago

Agorrosinen dago, doako zerbitzua da, herritar guztiek erabil dezakete eta igerilekuko ur soberakina berrerabiltzen dute garbiketarako

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Erabilgarri dago Agorrosinen bizikletak garbitzeko eta gurpilak puzteko gunea. Edozeinek erabil dezake, kiroldegiko abonatu izan edo ez. Ordulegiari dagokionez, Agorrosin irekita dagoenean erabili ahal izango dute interesatuek zerbitzua. Zenbait baldintza ipini dituzte, gainera: harreraren nortasun agiria erakutsi beharko da, eta materiala hartu eta erabili ostean, dena gordeta utzi.

Eskaerei erantzunez

Bizikleta-gune delakoaren jatorriaz egin du berba Unai Asurmendik, Agorrosingo gerenteak: "Bazegoen kiroldegiko erabiltzaileen aldetik bizikletentzako txoko bat ipintzeko eskaria. Gainera, uraren birziklapen plan bat daukagu kiroldegian martxan, eta ekimen horren baitan kokatu dugu".

Hain zuzen ere, igerilekuko ur soberakina berrerabili egiten dute Agorrosinen: "Kanpora begira gune berri hau da gehien nabarmentzen dena. Baina beste hainbat gauzatarako ere erabiltzen dugu. Besteak beste, komuneko ponpak ur horrekin dabilta, Agorrosingo garbiketa berreraigorritako egiten da eta futbol zelaia ere ureztatzen dugu. Ez da edateko ura; beraz, kontuz!".



Unai Asurmendi, Agorrosingo gunean bizikletarekin. | ZVDM

Baina gainera, etorkizunera ere badituzte bestelako asmoak, Asurmendik aditzera eman duenez: "Esate baterako, Udaleko

brigadaren kamioi handia ur honekin bete gurako gureku".

Bizikletak soilik

Zerbitzu berria bizikletentzako bakarrik dagoela erabilgarri eman dute aditzera Agorrosindik. "Printzipioz, ibilgailu motorizatuek debekatuta daukate erabilera. Jendeak galdetu digu ea gurpildun aulkien gurpilak puzterik ote dagoen". Asurmendik esan duenez, oraindik ez dute erabaki zer egin. Mezu hau ere zabaldu nahi izan du: "Aitzakia bat gutxiago izan dezatela herritarrek bizikleta ez erabiltzeko!"

ESANAK

"Ibilgailu motorizatuek ezingo dute gunea erabili"

UNAI ASURMENDI | AGORROSINGO GERENTEAK

Bizikleten guneko arauak

- ▶ Agorrosin irekita dagoen ordutegian egongo da erabilgarri.
- ▶ Harreraren eskatu behar da mantentze-maleta.
- ▶ Edozeinek erabil dezake, kiroldegiko abonatu izan edo ez.
- ▶ Amaitzerakoan, aurkitu bezala utzi behar da guztia.

Baserriko plastikoa batzeko 8 egun aurten

Urtarrilaren 25ean batuko dute hondakin plastikoa lehenengo aldiz

L.KORTABARRIA | BERGARA

Ohi bezala, Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak gertu dauka baserri eta landa eremuetako plastikoa batzeko egutegia. Siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta negutegiko plastiko zuria batuko dute; ez, ordea, plastikozko sokak.

Plastikoa ateratzeko hurrengo eguna urtarrilaren 28a izango da, eta hurrengokoak: otsailak 25, martxoak 25, maiatzak 27, uztaillak 22, irailak 23, azaroak 25 eta abenduak 16. Plastikoa arratsaldean utzi behar da, leku hauetan: Ugarrizan, granja parean; Murinondon, trenbide ondoan; eta San Juan auzoan, eliza aurreko plazan.

Mutrikura, birziklatzera

Baserri eta landa eremuetako plastikozko hondakin horiek aipatutako hiru lekuetan bakarrik utziz gero batuko dituzte; dena dela, urtero bezala, badago beste aukera bat: ezohiko lekuren batek pasa daitezkeen eska daiteke, honako telefono zenbakira deituta: 943 76 25 47. Zerbaki horretara deitu behar da ere noizbehinka pasatzen diren lekuetatik pasa daitezkeen eskatzeko. Deitu ezean, bilketa zerbitzukoak ez dira toki hauetatik pasatuko: Elosu auzotik eta Santutxu auzotik.

Baserriko plastiko bilketa zerbitzua 2000. urtean hasi ziren eskaintzen Gipuzkoako landa eremuaren promoziorako elkarteak. Batzen duten plastikoa Mutrikuko enpresa batera erosten dute, han garbitu eta birziklatzeko.

Inbasio napoleonikoen gaineko erakusketa

Hainbat erakusketa izango dira urtarrilean herrian; tartean, historia lantzen duen bat

L.KORTABARRIA | BERGARA

Zortzi erakusketa izango dira ikusgai, denetara, urtarrileko egunetan. Horietako bat egunotan bukatu da, Bergarako Buztinzale Elkartearen lanena, eta horren ordez beste bat inauguratu da Aroztegi aretoan: Beart elkartearen margo erakusketa. Urtarrilaren 17a ezkerro eta hilaren 26ra arte, herriko margolarien lanak ikusteko parada izango da. Eta erakusketa bitxi eta ikusgarri bat ere izango da Barrenkale kaleko Aroztegi aretoan: Inbasio Napoleonikoak (1808-1813) izeneko erakusketa.

Pasabidea Frantsesendako

Inbasio napoleonikoen gaineko erakusketa ibiltaria da, eta Donostia 2016 Kultura Hiribu-

ruaren proiektu bat da. Frantziako gudarosteendako, pasabide gisako lurraldea izan zen Gipuzkoa. Lehenengo Portugalera bidean pasatu ziren Gipuzkoatik, eta gero, bigarren etapa baten, euskaldunen gerrillen erasoaren jasan zuten. Bergara izan zen frantsesen erasoaren eszenatoki nagusietako bat, Tolosarekin batera, eta horregatik ekarri dute erakusketa herrira. Bergarak ere parte hartu du erakusketa egiten, izan ere, Seminarioko eta Udal Artxiboko materiala ere badago bertan ikusgai.

Aroztegitik kanpo, herriko zenbait tabernak ere erakusketak antolatu dituzte oraingo hilabeterako. Dixula, Nahikari, Hamaika eta Pol-Pol tabernetan eta Raizabal gozotegian.

Zapatuan izango da lehen DJ jaialdia Zabalotegin

L.KORTABARRIA | BERGARA


DJ jaialdien denboraldi berria zapatuan, hilak 25, hasiko da Zabalotegin. Aurten ere Amaia Txintxurreta ibiliko da musika jartzaile lanetan gaztetxoek dantza egin dezaten. Zapatuan 18:30etik 21:30era izango da jaialdia. Aurtengoa Amaia Txintxurretak DJ gisa egiten duen 3. denboraldia izango da. "Oso-oso gustura" joaten da bera gaztetxoendako musika jartzera eta eurekin dantza egitera, eta berak ere ondo pasatzen duela esan digu.

Gaztetxoaren eskaerak

Gaztetxoek eskatzen dituen musika ipintzen du Amaiak. Jaialdietan aukera izaten dute eurek nahi duten kantuek eskatzeko eta eskatu ahala abesti horiek jartzen saiatzen da DJa. Modan dauden abestiak eskatzen dizkiote gehienbat baina koreografia daukaten betiko abestiak ere jartzen ditu eta horiekin animatzen dira gehienbat guztiak batera dantza egitera. Bestela, talde txoetan euren koreografiak prestatuta eramaten dituzte hainbatek. Amaiaren esanetan, benetan pozgarria izaten da beretako gaztetxoak horrela dantzan ikustea.

Amaia Txintxurreta oso ezaguna da ume eta gaztetxoaren artean aurkezle gisa, eta bergararren artean, DJ gisa ere bai. Gaztetxo asko Amaiaren jarraitzaile dira Tuenti sare sozialean. "Kontu bat egin nuen gaztetxoekin harreman zuzenagoa izateko eta hasieran abesti asko eskatzen zizkidaten bertatik. Orain eskariak jaialdietan bertan egiten dizkirate eta Tuenti erabiltzen dut gehienbat iragartzeko zein egunetan izango diren jaialdiak", kontatzen digu Amaia Txintxurretak. Jaialdietako argazkiak ere igotzen ditu bertara eta horiek ikusi eta komentatzen dituzte gaztetxoek.

Aurten ere, Amaiaren helburua jaialdi bakoitzean gaztetxoak dantzan jartzea eta musikarekin ondo pasatzea da. Ohiko DJ jaialdiez gain, Aratuste jaietako martitzenean ere izango da Bergaran, San Martin plazan.



Gaztetxoak dantzan. | GOIENA

Labegaraietako piraguismo guneko lanak bide onetik doaz

Beti-Busti elkarteak askotan hala eskatu ostean, duela bi urte hasi ziren hainbat egokitzapen lan egiten

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Piraguismoa ez da bailaran eda-tuen dagoen kirola, baina Bergaran beti egon dira uretako kirol honen aldekoak. Gainontzeko kirol instalazioen antzera hauek ere berritze lanak behar izaten dituzte, eta urte batzuetan proiektua albo batera lagata egon ostean, duela pare bat urte Udalak bere gain hartu zuen egokitzapen lanak egiteko ardura. "2012an ekin genien lanei eta urte bakoitzean zenbait hobekuntza egin ditugu", aipatu du Iñaki Ugarteburu Udal kirol teknikariak.

Proiektua berreskuratu zutenetik argiteria eta kableak jartzeko zutabeak egin dituzte "eskaera egin arren Gipuzkoako Foru Aldunditik ez dugu dirulaguntzarik jaso, horregatik, zatika garatzen ari gara proiektu guztia", azaldu du Ugarteburuk. Hala ere, aurten ere zenbait egokitzapen egiten jarraituko dute, tartean, oraindik bukatzeke dagoen Deba ibaira jaisteko aldapa. Kirol arduradunak azpimarratu moduan: "Kirol instalazio hauek osatzeko orduan, ibaia eta inguruak kontu handiz zaintzen ari gara".

Ingurumena ere kontuan

Lanak ez dira ohiko medio batean egiten ari, ibaia inguru bizia baita eta bertan kontuan hartzeko aspektu ugari baitaude. 2012an lanak egiteko ardura hartu zenezetik ingurugiroa bereziki zaindu da. "Lanak hasi genituenean ingurua garbitu eta gero instalazioekin baino, ingurumenarekin zerikusia duten hainbat lan egin ditugu", argitu du Ugarte-



Erreka jaisteko atontzen ari diren aldapa. | OIHANA ELORTZA

buruk. Ubidera eroritako zehaztzen bat kendu eta landare inbaditzaileak murrizteko ere lanak egin dira. Bigarren kasu honetan, ibaitik kendutako landareen tokian bertako flora berria landatu da. "Ura eta natura horren presente dauden kirol batean, ingurugiroa zaintzea gakoa da" diote Udal ordezkariak.

Lan gehiago egingo dira

Egun hauetan Labegaraietako auzoan amaitzen ari diren aldapa ez da proiektuko azken lana izango. "Aurten beste lan batzuk egingo ditugu, eta aurreko urtee-

tan moduan, laguntza ekonomiko eske Aldundira joko dugu", zehaztu du Ugarteburuk. Aldundiaren erantzuna jakin ostean erabakiko dituzte aurrerantzean aurrera eroango dituzten lanak.

Proiektua, baina, ez du Udalak bakarrik garatu. "Lanok Beti-Busti elkartearekin batera adostuak izan dira eta aurrerantzean ere gauza bera egiten jarraituko dugu" dio Ugarteburuk. Momentuz data zehatzik ez dagoen arren, laster piraguistek ere instalazio egoki bat izango dute.

NIRE USTEZ

KARLOS ETXANIZ



Grecoren urtea

Hasi berri dugun urte honetan, Domenikos Theotokopolos, Greco, margolari ospetsuaren heriotzaren IV. mendeurrena ospatzen da. Artista unibertsal honen omenez hamaika kultura-ekitaldi eta kontzertu antolatuko dituzte Gaztela-Mantxa autonomia-erkidegoan. Han 16 milioi euro baino gehiago gastatuko dituzte *Grecoren urtea* deiturikoan. Interesgarria, ezta?

Baina ez dugu arteaz hitz egin behar, ez. Kasualitatez, Greco protagonista izaten ari da egunotan, baina Greco hau ez da margolari ospetsua, baizik eta Europako Batzordeko ustelkeriaren kontrako taldea.

Txosten batean adierazi du Espainian dauden ustelkeria kasuek bere erakundearen sinesgarritasunari eraso larria egiten diotela. Hori guretzat ez da berria, aspalditik Euskal Herrian baitakigu, baina gure ahotsek ez dute behar besteko indarririk. Espainian, berriz, Esoporen fabularena gertatzen da: *Katuari joarea, zeinek ezarri?* Bi alderdi politiko nagusiek zerbait... edo asko ezkutatzeko dute eta.

Berriz ere, Europak etorri behar lotsagabe kuadrilla honen trapu zikinak aireztatzea.

Hala ere, garrantzitsuenaren haxe da: ez dadila dena geratu txosten hutsean, jarrai dezatela ildo horretatik ea lortzen dugun 2014. urtean Grecoren urtea izatea... baina ustelkeriaren kontrako Grecorena.

"Bi alderdi nagusiek zerbait... edo asko dute ezkutatzeko"

Superproduzioak eta zine konprometitua zineklubean

I.G. | BERGARA

Cannesko Zinemaldian estreinatu zen *El gran gatsby* filma eskainiko dute etziko zineklubean. 20:00etatik aurrera, 20ko hamarkadako New Yorkeko aberatzenen bizimodua barrutik ezagutzeko aukera emango du filmak. Francis Scott Fitzgerald idazle ezagunaren eleberrian oinarritutako *remake* horrek askotariko kritikak jaso dituen arren, entretengarria da oso.

Moulin Rouge film arrakatsuen Baz Luhrmann zuzendariak egindako film luzea da eta, bere film guztiekin gertatzen den moduan, hura ere pantaila

handian hobeto ematen duen lan horietako bat da. Kolorea, dekoratuak, dirua... eta guztiaren gainera, amodioa. Oscarretarako izendapena lortu duen Leonardo Di Caprio ikusteko ere balio du filmak.

Zine konprometitua

Datorren asteko filma *La lluita a la motxilla/Borroka bizkarrean* dokumentala izango da. 60 minutuan zehar, hiru emakumeren istorioa itxaropentsua kontatzen da. Guztia eduki arren, ezer ez zeukatenekin elkartu, eta ordu-tik, elkartasuna euren bizimodu bilakatu zuten.

Mariaren Lagundiak barnetasunari buruzko beste hitzaldi bat antolatu du

I.G. | BERGARA

Ikasturte honetan, Mariaren Lagundia Ikastolak *i Proiektuari* hasiera eman zion. Ekimen hori ikastolak bultzatutako barnetasun proiektu bat da. Proiektu horren helburuak plazaratzen lagundu, eta hartzaileei mezua ulertterazagoa egiteko asmoarekin, ikasturtean bi hitzaldi antolatu dituzte.

Egueneko hitzaldia irailetik hona *i Proiektuari*-ren barruan ikastolak antolatutako zikloaren hirugarren saioa izango da. Hirugarren hitzaldia ziklo baten parte izan arren, Mariaren Lagunditik zehaztu dutenez, aurreko hitzaldietara joan ez

direnentzat ere mintzaldi interesgarria izango da.

Espiritualtasunean aditua

Josean Manzanos izango da hizlaria eta gaia, berriz, *La interioridad como proyecto educativo docente*. Manzanos espiritualtasun edo barnetasun gaietan aditua dugu. Vera-Cruz ikastetxean garatzen diharduten Zugan Barnetasun proiektuaren arduraduna ere bada.

Aipatutako hitzaldia ikastolan bertan izango da arratsaldeko seietatik aurrera. Hitzaldia gaztekeraz izango da eta, hain zuzen ere, nahi duen guztiarentzat da.

Herri sahararraren aldeko janari-batzea

Kanpainaren helburua da Tindufeko kanpamenduetara ahalik eta elikagai gehien eroatea. Arroza, pasta, atuna... mota horretako elikagaiak herriko supermerkatuetan eta udaletxean ere utz daitezke. Kanpaina hilaren 19ra arte izango da. Bubisher elkartetik dei egiten diete herritarrei parte har dezaten.



MONIKA BELASTEGI



Urtarrilaren 10ean egin zuten urteko lehen odol ateratzea. | O.E.

Hilero hiru odol emaile berri egiten dira Oñatin

Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak egin du urteko lehen ateratzea; iaz 700 ateratze egin zituzten

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Urteko lehen hilabetean hasi du egutegi berria Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak. Aurten ere hamar ateratze egingo dituzte, hilean bat, udako bietan, uztailean eta abuztuan izan ezik.

Erantzun ona

Joan den urteko odol ateratzeek izan zuten erantzunarekin pozik daude elkarteak kideak. Guztira, 700 ateratze egin zituzten. "Kopuru hori, baina, Oñatin egin diren ateratzeei dagokiena da. Badaki-

gu oñatiar askok beste hainbat tokitan ematen dutela odola, lan-tegietan, unibertsitateetan eta ospitaletan, adibidez", adierazi du Odol Emaileen Elkarteko kide Pili Irazabalek.

Iraila, otsaila eta abendua izan ziren ateratze kopuru handienak izan zituzten hilabeteak eta abuztua, maiatza eta urria emaile gutxien joan zirenak. Abuztua, hala ere, berezia izaten da, ez delako deialdirik egiten.

Ateratze kopuruarekin ez ezik, odola eman gura duten herritarren

jarrerarekin daude pozik elkarteak kideak. "Egia da ez dakigula zenbatek uzten dioten odola emateari, baina hilero hiru emaile berri azaltzen dira, batez beste, eta hori pozgarria da oso. Horregatik, odol emaile guztiak eskertu eta zoriondu gura ditugu, eta aurten ere txintxo-txintxo etor daitezela eskatu. Baita 18 urte baino gehiago duten eta inoiz eman ez duten herritarrek ere", azpimarratu du Irazabalek. Datoren ateratzea otsailaren 14an izango da.

Gaztelekuko ekipo txikiaren erabilera arautzeko protokoloa

Azkenaldiko arazoak saihestea da helburua

IRATI GOITIA | OÑATI

Gaztelekuko ekipo txikiaren erabilera arautzeko protokoloa zehaztu du zerbitzuko arduradunak. "Azkenaldian, lagapenarekin zenbait arazo izan dira. Hori dela eta, protokolo txiki bat zehaztu behar izan da arazo horiek saihesteko asmoz", azaldu du Jon Lopezek.

Araudia

Honakoak dira herritarren edozein eskaeraren aurrean jakin eta kontuan hartu beharrekoak: eskatzaileak ekitaldia baino egun batzuk lehenago jarri behar dira harremanetan gaztelekua-rekin, ordutegi barruan bertara joanda; gaztelekuko langileek azalduko diete ekipoa nola muntatzen den eta nola dabilen, ez dago-eta ekipoa muntatzeko zerbitzurik (horretarako ordua eta eguna zehaztuko da); gomentatzen da ekipoa ibiliko duenak jasotzea azalpenak; gaztelekuko

langileekin adostuko dute noiz joango diren ekipoaren bila, baita noiz bueltatuko duten; beharrezkoa balitz, gaztelekuko giltza ere utziko zaie eskatzaileei, udaltzainek atezain lanak egin behar izatea saihesteko; hau da, ezin izango da udaltzainen bidez ekipoa hartu edo utzi, udaltzainak ezinbesteko kasuetan bakarrik erabiliko dira, eta, betiere, gaztelekuko langileen abisu baten bidez; ekipoa bueltatzen den bakoitzean errebitsatu eta frogatu egingo da, egoera onean bueltatu dela konprobatzeko.

Gaztelekuko musika ekipo txikiaren erabilerrako protokolo hori hainbat udal departamentutako arduradunei zuzendutako dokumentua da, hasiera baten. Komenigarria da, baina, ekipoaren beharrean egon daitekeen edozein kolektibok ezagutzea araudi hori, arazoak saihesteko.

'Aulki hutsak', doluari buruzko dokumentala emango dute etzi

Heriotzari buruzko dokumentala da *Aulki Hutsak* eta egungo gizartearen tabu bihurtu den gaia mahai-gaineratzeko asmoa du. Iñaki Peña medikuak zuzendu du eta oñatiarren esperientziak ere jasotzen ditu, beste askorenen artean. Etzi emango dute, kultura etxean, 19:00etan.

'Hansel eta Gretel' antzezlanerako sarrerak salgai

Grimm anaien *Hansel eta Gretel txokolatzeko etxean* ipuin klasikoaren antzezlan bihurtuta ekarriko du Glu Glu antzerki taldeak datorren zapatuan Oñatira. Santa Ana antzokian taularatuko dute, 19:00etan. Sarrerak 3,5 euro balio du eta dagoeneko salgai daude www.barrabarra.eu helbidean.

NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA



Nahia eta ezin egina?

Gaur gure zoriona lortzeko ibilbidean zehar hartu ditzakegun jarren aurrean hausnarketa zabaldu nahi dut, hau izango baita giltza hauek lortu edo borroka hori bertan behera uzteko.

Nahia eta ezina esapide beza oso hedatuta dago eta kontzeptu hauen artean, gure ametsak lortzerako bidean etsipenez betetzen gaituen lotura bat dago, ezkortasunez betetzen gaituena, esapidea egiazat badugu, bederen. Argi dagoena gauza bat da: nahi bat lortzerako bidean honen aurrean bi modutara jokatu genezakeela, ausardiaz edo koldarkeriaz. Segur aski bi jarrera horiek guztiok esperimentatu

ditugula gure azaletan eta bakoitzaren onura eta kalteak ere bizi izan ditugula. Bi jarrera horiek dira *nahia eta ezina* eta *nahia eta egina*-ren arteko muga. Ezagun ditudan batzuek bere nahia lortzeagatik edozer emango lukete; gainera, daukaten ohore guztia galtzeko prest leudeke eta ausardiaz jokatzeko hautua egiten dute. Beste batzuek, aldiz, zorionak koldartzen dituelako agian, gaizki baina ziur bizitzeko aukera hartzen dute euren nahi hori ezintzat hartzen baitute.

Eta zuk noraino eramango zenuke zure burua zure nahiengatik? Noraino eraman zaitzake zure nahiak? Noraino mugatu ezinak? Gai izango al zinateke lehengo ezina oraingo egina bihurtzeko? Frogatzea da bide bakarra...

"Burua noraino eramango zenuke nahiengatik?"



Gurasoak eta seme-alabak elkarrekin mendi bueltan

Eskola Kirolak kudeatuta, hiru ikastetxeetako 3. eta 4. mailetako hainbat ikaslek irteera egin zuten joan den domekan, gurasoekin, gaztetxoengan mendizaletasuna sustatzeko asmoarekin antolatzen den programaren barruan; 110 lagun elkartu ziren, guztira. Olabarrieta, Murgia eta Berezaio auzoetan barrena ibili ziren eta Eizargoiko baserriko landa baten egin zuten hamaiketako, Aloña azpian.

ASIER OSINAGA

ESKORIATZA


Antzokiko sarrera ingurua egokitzen hastear

Otsailean hasi gura dituzte Zaldibar antzokiaren sarrera eta urbanizazio lanak, eta ekainerako bukatu

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Gizarte eta kultur erabileratarako egokitzen dabilzan Santa Ana komentuko kaperaren –Zaldibar antzokia– hirugarren faseko lanak hastear daude. Eraikin barruko lanak bukatzekotan dira, lurzorua jarri eta azken lan txikiak bakarrik daude egiteko, eta orain hirugarren faseko ekingo diete.

Sarrerako atarte bat, guztia kristalezkoa, eta inguruko urbanizazio lanak garatuko dituzte oraingoan. Sarrerako atartean, leihatila kokatuko dute, eta aretoa sartu aurreko gunea ere egongo da. Gainera, lehen solairura igotzeko eskaileretarako sarbidea ere izango da gune hori.



Zaldibar antzokiaren aurrealdeko irudia. | ESKORIATZAKO UDALA

Kalea, kota berdinean geratuko da, Santa Ana auzoko beste gune batzuk bezala, eta zuhaitzak eta eserlekuak jarriko dituzte inguruan. Bertako aparkamenduak, Santa Marinako eremuan kokatutako parking-ak dirauen bitartean kendu egingo direla iragarri du Herce alkateak, "oinekoarendako eta auzoarendako inguru atseginagoa lortuz".

Obra lehiaketa prozesuan dago eta otsailean esleitzea espero dute udal agintariek. Lanek hiru hilabeteko iraupena izango dutelakoan daude, eta aurrekontua 269.594,80 euro da (BEZa barne). Proiektu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza jaso du, ia 74.000 euro. Bada, ekainerako lan horiek guztiak bukatuta izatea gurako lukete.

Diru laguntzen oinarriak ikusgai jarri dituzte

M.A. | ESKORIATZA

Gizarte garapena sustatzeko laguntzak –langabeendakoak, ezgaitasunen bat dutenendakoak, alargunendakoak...– eta garapen jasagarria sustatzeko arautuko dituzten oinarriak onartu zituen abenduan Eskoriatzako udalbatzak, eta urtarrilaren 7an horren berri eman Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Oinarri horiek ikusgai jarri dituzte orain, herritarrek kontsultatu ahal izateko.

Udalak, gainera, herriko garapena sustatu gura du laguntzon bitartez; betiere, garapen horrek ekonomia, gizartea eta ingurumena batzen dituela kontuan hartuta.

NIRE USTEZ

INAKI AGIRIANO



Tarrapata, tapata, tan...

Gaur, Donostiako danborradaren hotsak, hiriko kaleetan zehar barreiatuak, neguko jaien atariko tarrapata, tapata, tan... zabalitzen ariko dira, negu hotz eta beltzeko festen hasiera bailitza. Festa honen ostean turrustan etorriko dira beste guztiak: Kan-

delerio, San Blas, Santa Ageda, Inauteriak...

Danborren hotsek, aldi berean, Rodariren ipuin bat dakarkidate burura: *Danbolindari magikoa*. Danbolindari hau gerratik zetorren pobre, sosik gabe. Bidean amonaxo batekin topo egin eta honek txanpon bat eskatuko dio. "Amonaxo, bat ez, bi ere emango nizkizuke, banitu", erantzungo dio. Amonak orduan, poltsikoetan berriz begiratzeko esango dio, eta danbolindariak, poltsikoa berriz arakatzerakoan, txanpon bat aurkitu eta amonaxoari emango dio. Honek danbolindariaren mesedea eskertzeko opari bat emango dio trukean: "Zure danbolina jotzen hasten

zarenean dantzan hasiko dira entzule guztiak". Soldadutxoari etxera bidean hiru lapur aterako zaizkio, eta danbolindariak orduan zer? Tarrapata, tapata, tan...

Hamabost egun barru, danbor hotsek baino etxafuegoek itzartuko gaituzte, Santa Ageda mutilak, kintoak, kalera irteten direnean. Festan murgildurik, santa-eskean koplak kantatuz, etxafuegoak izango dituzte lagun bertan daudela abisatzeko. Ez daitezela bihur etxafuegoak, aurreko urteetan lez, zakarrontziak lehertzeko arma. Eta bestela, has dadila kintoen soldadutxoa danbolina jotzen tarrapa, tapata, tan... eta dantzan jar daitezela eurak lehertu arte!

Izaro Sanchez aretxabaletarraren irudiarekin egin dute Udal Bibliotekan erabiliko duten orri-puntua

Lehiaketa deitu zuten 2014an bibliotekan erabiliko duten orri-puntua aukeratzeko eta Izaro Sanchez aretxabaletarrak irabazi du. Zortzi lan aurkeztu ziren, eta epaimahaiak *Liburu bat, mila istorio* izenekoa hautatu du. Zuri-beltzean irakurle bat marraztu du hark, liburu batekin esku artean, eta liburu horretatik kolore bizia duten txoriak eta loreak doaz hegan.

Gaur arratsaldean astinduko dituzte danborrak Luis Ezeizako ikasleek, San Sebastianen omenez

Gaur, hilak 20, danborrada egingo dute Luis Ezeiza ikastetxeko neska-mutikoen, San Sebastian eguna ospatzeko. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak elkartuko dira, 220 inguru. Eguraldiak laguntzen badu, eskolako patioan izango da emanaldia, eta bestela, frontoian. 15:30ean astinduko dituzte danborrok ohiko doinu hotsei jarraituz: *San Sebastian martxa*; *Diana*; eta *Iriyarena*. Bukatutakoan, txokolatea hartuko dute.

ARETXABALETA

Santa Ageda neska-mutilak hasi dira entseguetan

M.A. | ARETXABALETA

1995ean jaiotako gazteak izango dira aurten Santa Ageda neska-mutil, eta dagoeneko hasi dituzte entseguak. Egubakoitzetan elkartzen dira Iturrigorri pilotalekuan (22:00), eta Santa Agedaren omenezko koplak eta jendaurrean egingo dituzten dantzak ikasten dabilza.

Entseguetan 30 bat lagun elkartu izan dira orain artean, eta iragarri dute "oso gogotsu" daudela ospakizun egunetarako; egun horietan, gainera, gehiago elkartuko direlakoan daude. Usadio zaharra gogoan, baserriz baserri joango dira kantuan eta eskean otsailaren 4an, martitzena, eta kalean jardungo dute hilaren 5ean, Santa Ageda egunean. Orduan hasi eta Aratuste-domekara arte domeka guztietan egingo dute dantzan Herriko Plazan (19:00). Aurten, gainera, bost domeka izango dituzte.

Danbor burrunbak gaur hiru ikastetxeetan

M.A. | ARETXABALETA

Donostian bakarrik ez, gurean ere ospatuko dute gaur, hilak 20, San Sebastianen omenezko jaiak, eta Sarriegiren doinuei jarraituz astinduko dituzte danborrak 2 eta 9 urte arteko herriko neska-mutiko guztiak.

Pausoka haur eskolako txikiak goizean (10:30) elkartuko dira ikastetxeko patioan; Kurtzebarri eskolakoak, 15:45ean, Herriko Plazan eguraldi ona eginez gero eta, bestela, Iturrigorri pilotalekuan; eta Arizmendi Ikastolako Basabeazpi gunekoak, 16:30ean, kanpoko patioan eguraldi onarekin eta barruan txarrarekin.

Senide eta lagunek danborrada horiek guztiak jarraitzeko eta musikari txikiak animatzeko aukera izango dute.

OHARRAK

ORDUTEGI ALDAKETA UDALETXEAN

Udaletxeko harrerako ordutegia aldatu egin dute. 08:00etatik 15:00etara dago zabalik orain, astelehenetan izan ezik, orduan 08:00etatik 17:00etara.

ZINEMA: 'LA VIDA SECRETA DE WALTER MITTY'

La vida secreta de Walter Mitty filma dago gaur Arkupen (16:00); sarrera, 2 euro. Eta egunean, hilak 23, zineklubaren barruan, *De tal padre tal hijo* filma (19:30); sarrera, 4 euro.

JAR GAITEZEN ERAKUSKETA

Jar Gaitezen ekimenean jasotako ekarpen eta ondorioak ikusgai daude Arkupeko erakusketa aretoan; baita *Aretxabaleta argazkitan* lehiaketara aurkeztutako lanak ere. Hona ordutegia: astean zehar, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapa-tuetan, 11:00-13:00; eta domeketan, itxita.

Aratusteak iragartzeko kartelak Arkupen aurkeztu behar dira

Lehiaketa deitu du Kultura Sailak eta aurkezteko azken eguna otsailaren 4a da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ohi baino beranduago dator Aratuste-domeka aurten, martxoaren 2an, baina Udala eta herriko kuadrillak dagoeneko hasita daude prestatze lanetan. Eta Kultura Sailak kartel lehiaketa deitu du egunotan.

Oinarrietan ez dago aldaketarik; edonork parte hartu ahal izango du eta teknika librea izango da. Kartelaren neurria, ostera, 50x70 zentimetrokoa izango da paperean aurkeztuz gero eta digitalean eroanda, berriz, DIN-A3.

Irudiak derrigorrez izan behar du honako testua: *Aratusteak, Aretxabaleta 2014*.

Otsailaren 4rako eraman behar dira lanok Arkupe kultura etxera. Eta horrekin batera ezizena duen kartazal itxi bat aurkeztu behar da egilearen datuak dituela barruan: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia. Epaimahaia Kultura batzordeko kideak eta herriko hainbat lagunek osatuko dute, eta erabakiaren berri otsailaren 5ean jakinarazi. Lehiaketaren irabazleak 200 euroko saria jasoko du.

Egoki iritzi gero, aurkeztutako kartel guztiak erakusketa antolatuko du Kultura Sailak, beste batzuetan egindako legez.



Ibargoia kalean jarriko dute orain argiteria publiko berria; bigarren fasea hasiko da horrela. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Udalak laster ekingo dio argiteria publikoa aldatzeko bigarren faseari

Energia kontsumoan eta mantentze-gastuetan aurrezteko, LED sistema ari dira jartzen; hurrengo ibargoia izango da: ekainerako argi berria izango dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

2013ko azken hilabeteetan argiteria publikoa aldatu zen Ibarra auzoan. Zehazki esanda, Nardeaga kalean, Bizente Goikoetxea plazan, Osteta kalean eta Santikurtz abadearen plazan jarri zen argiteria publiko berria. 43 farola aldatu ziren, gastua murrizteko eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko. Gastua murrizteaz gain, helburu ekologikoa ere badu proiektuak. Udalak lanei ekin aurretik egindako kalkuluei erreparatu gero, gastu energetikoa %80 aurrezteko lortuko da eta mantentze-gastua, berriz, %50 jaitsiko da.

Gehiegizko kontsumoa

Udalak Berdin eta Urondo enpresei esleitu zizkien lanak. Izan ere, duela hiru urte egindako auditoria batek -2013ko Arabako enpresari saritua izan zen Susana Malonek gidatu zuen auditoria hori- ondorioztatu zuen Aramaion argi publiko larregi kontsumitzen zela. Ibarra auzoan, argiteria publikoa aldatu aurre-

ko proiektua abiatu aurretik, 160 kilowatt-orduko gastatzen zen, gutxi gorabehera. Europako herrialdeetan 80 kilowatt-orduko gastatzen da; beraz, Aramaion bikoitza gastatzen zen; Udalaren ustez, "gehiagi".

LED sistema jartzen

Beste hainbat herritan egin duten moduan, Aramaion ere LED sistema duten argiak jarri dituzte, eta, Udaleko langile Xabier Arriolabengoa Luki-k azaldu duenez, dagoeneko igarri da aldea kontsumoari dagokionez: "Alde inportantea igarri dugu, kontsumoa

asko jaitsi da", dio. 26 kilowatt-orduko gastatzen zen LED sistema jarri aurretik eta orain, jarri den lekuetan, 18 kilowatt-orduko gastatzen da: "Gure kalkuluen arabera, sistema berriarekin 10.000 euro aurreztuko ditugu urte osoan, gutxi gorabehera". Proiektuaren lehen fasea amaitu da eta lehen fase horrek ekarri zuen inbertsioaren %70 Arabako Aldundiak eta Jaurlaritzako Euskal Energiaren Erakundeak finantzatu zuten.

Bigarren fasea, ekainerako

Orain, bigarren faseari ekingo diote: Ibargoia kale osoan jarriko da LED sistema. Aldundiak 20.000 euroko diru laguntza bideratu du bigarren fase horretarako. Hasiera baten, lanaren %100 egiteko balio beharko luke Diputazioaren ekarpenak; hortik aurrerako gastuak Udalaren esku geratuko dira.

Udalak jakinarazi duenez, bigarren faseko lanak ekainerako amaituko dira; gero, hirugarren faseari ekingo diote.

ESANAK

"Urtean 10.000 euro aurreztuko ditugu sistema berriarekin"

XABIER ARRIOLABENGOA | UDALA

LEINTZ GATZAGA

Arrate taberna, obretan. | U.M.

Arrate tabernaren etxeko obrak, Aste Santurako bukatuta

Barrutik eta kanpotik dihardute obra egiten; helburua da eraikina osorik saneatzea

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Arrate tabernak berak dagoeneko itxura berria dauka, bertako berrikuntza obra bukatu dutelako. Obra orokorra, baina, oraindik berde samar dago, etxearen fatxadak erakusten duen moduan. Izan ere, etxea barrutik eta kanpotik saneatzen dihardute, paretak, bereziki. Eta horrez gainera,

fatxadaren ahalik eta harri gehiena atera gura dute, hori guztia, "antzinako elementuak" zaindu eta errespetatuta, Begoña Plazaola Arrate tabernako ugazabak azaldutako moduan. Hori horrela, oraindik hilabete batzuetan obretan segituko dute, "Aste Santurako bukatuta egotea espero dut", dio Plazaolak.

ELGETA

Hamargarren urteurrena ospatuko dute Elgetako Espaloia kafe antzokian

Ekinean amaitzen da Udalak egindako esleipena, eta lantaldea erretiratu egingo da

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ekinean beteko dira hamar urte lehiaketa publiko bitartez Goibeko euskara elkarteari Espaloia kafe antzokia kudeatzeko esleipena egokitu zitzaionetik. Bada, urteotan kafe antzokiaren kudeaketan jardun duen lantaldea jakinarazi du egindako ibilbidea ospatzeko ekitaldi bereziak antolatuko dituztela. Horrekin batera, erretiratzeko hartu duten erabakiaren berri ere eman dute. Arrazoa nekea dela esan dute.

Oso balorazio positiboa

Goibeko euskara elkartearen lantaldea oso balorazio positiboa egiten du hamar urteko ibilbideak emandakoarekin. "Demos-

tratu da gure moduko herri baten funtzionatu duela eskualde proiektu batek. Hamar urterako konpromisoa hartu genuen, eta gure hitza bete dugu. Kulturalki jantzi gara, eta lantaldeak oso balorazio positiboa egiten du: kulturaren irabazi duguna dago gugan", adierazi du elkartearen presidente Iban Arantzabalek. Autogestioari buruz ere hitz egin du Arantzabalek: "Autogestioa zen helburuetako bat, eta lortu dugula uste dugu". Arantzabalek argi utzi du Goibeko euskara elkarte ez dela desagertzen.

Ekainera bitarteko programazioa dute Espaloian. Udalak lehiaketa publikoa egingo du esleipen berria egiteko.



Goibeko elkartearen bazkideak, egunean egindako batzarrean. | L.Z.

ANTZUOLA

Zozketatzeko zeuden zenbakiak badute jabea

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Antzuolako 8 Miliak lasterketarako hamar dortsal zeuden antzuolaren artean zozketatzeko. Bada, bederatzi lagunek eman dutenez izena, bederatziek dute zenbakia. Hauexek dira sarituak: Ander Iturbe, Iñigo Iparragirre, Xabi Mondragon, Josu Errasti, Izar Urteaga, Bego Oncala, Jon Kortabarria, Unai Uribealzo

eta Gorka Etxezarreta. Gogoratu behar da lasterketako egunean zein aurreko egunetan boluntarioak behar direla lan egiteko. Interesatuak antzuolako8m@gmail.com helbidera idaztea besterik ez dute. Izena emateko epea ere irekita dago, eta, antolakuntzatik adierazi dutenez, hiru egunean lasterketan parte hartzeko 200 izen jaso dira.



Irimotik pasatzen. | L.GOIENA.

Amaia antzokia

Urtarrila-Martxoa 2014

Egitaraua

Urtarrila

26	Hamlet	Antzerkia
29	Debagoieneko piano kontzertua	Musika

Otsaila

09	Ondoko hilobiko tipoa	Antzerkia
15	Kapsulak	Haur-antzerkia / Musika
28	Arrasate Musikaleko ikasleen Inauteritako kontzertua	Musika

Martxoa

04	Patxin eta Potxin pailazoak	Pailazoak
09	Arrasate Musikaleko Bandaren Inauteritako kontzertua	Musika
15	Kameleioia	Dantza
18	Madama Butterfly	Opera
29	El intérprete	Musika-antzerkia

**Aldez aurretiko
Sarrera salmenta:**
www.arrasate-mondragon.org



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



KIROLA

ESKUBALOIA

Bidasoa Irunek sailkapenak erakusten duena baino maila hobea erakutsi zuen

- ▶ Helvetia Anaitasunari irabazi zioten lagunartekoan
- ▶ Asobal mailako lehiak zaleak erakarri zituen

EMAITZA

BIDASOA IRUN

32-29

HELVETIA ANAITASUNA

FITXA TEKNIKOA

Bidasoa Irun: Mindegia, Caverio, Ugarte, C.Rawlex, Rincon, Diaz de Cerio, Zubiria, Satrustegi, Aldunate, Otegi, Aranburu, Susperregi, Mosika, Azkue, Fernando.

Helvetia Anaitasuna: Sanchez, Bazan, Bernatonis, Martinez, Garza, Reig, Etxeberria, Meoki, Montalves, Santana, Bozidar, Borroagan, Chocarro, Antonio.

Beste: Jende asko Zubikoako kiroldagian lagunartekoa ikusten.

hutsik- zegoela jokatu zuten urteroko hitzordua; hala, lagunarteko partidua izanda ere bai Bidasoa Irunek eta baita Helvetia Anaitasunak ere garaipen batekin hasi nahi zuten 2014a. Eta kantxan ikusitakoak ez zuten Asobal ligako sailkapenak erakusten duena islatu -irundarrak azkenak dira-, Bidasoak hiru goleko aldeaz partidua irabazi zuelako (32-29).

Hain zuzen, Bidasoako ordezkarari Jon Azkue jokalaria GOIENARI adierazitakoaren arabera, ligako bigarren itzulian beste talde bat ikusiko dugu: "Orain momentuan azkenak gara sailkapenean, baina egoera honi buelta emateko gauza garela sinistuta gaude. Lehenengo itzulian gauza asko ez ditugu ondo egin, baina zorteak ere ez digu lagundu, ditugunak baino puntu gehiago merezi izan ditugulako".

Bigarren zatian gakoa

Bigarren zatiko hasierako minutuetan egon zen norgehiagokako gakoa. Ordura arte bi taldeek partidu ordenatua jokatu zuten, oso parekatua. Atsedenaldira 16-15eko markagailuaz erretiratu ziren, baina bigarren zati hasieran Bidasoakoek hiru goleko errenta lortu zuten (24-21, 27-24, 31-28), kontraeraso azkarren ondorioz egindako golei esker. Anaitasunako entrenatzaile Aitor

ESANAK

"Ondo ikusi dut Bidasoa Irun, izan ere, Zilarrezko kategorian jokatzeko egin zuten taldea"

"Aloñako gazteek maila gorenean zela jokatzeko duten ikusteko ondo etortzen dira partiduok"

JOSE LUIS OSINAGA | ALOÑA MENDI

Etxaburu ez zen batere pozik kantxan ikusten ari zenarekin, jokalariek hainbat hutsegite egin zituztelako jarraian. Hala, nahiz eta abantaila txikia lortu, eta Anaitasunak esperientzia handiagoko jokalaria izan, nafarrak ez ziren kapaz izan partidua berdintzeko.



Anaitasunako Antonio, Bidasoakoen defentsen gainetik -Zubiria- jaurtiketa egin nahian.

Bidasoa, txukun

Partidua amaituta, Aloña Mendiko ordezkarari Jose Luis Osinaga pozik azaldu zen bi taldeek emandako ikuskizunaz, eta baita oñatiarrek erakutsitako interesaz ere: "Lehen Arratekoak gonbidatzen genituen, eta orain Bidasoakoekin eta Anaitasunakoekin oso harreman ona dugu. Partiduari dagokionez, ondo ikusi dut Bidasoa, Zilarrezko Ohorezko Mailarako egindako taldea da, eta azken orduan Asobalen jokatzeko aukera aprobetxatu zuten. Gaztetasun hori igarri egin dute ligako lehen itzulian". Baina, Fernando Boleak zuzentzen duen taldeko kideak sinistuta daude

baietz, 2014an Bidasoaren aurpegi onena ikusi behar dugula. Hasi dira horretan, urteko lehenengo lagunartekoa irabazita.

Zale asko Oñatin

Horrelako lagunartekoek erakusten dute eskubaloiak Oñatin zenbat zale dituen: "Klubeko gazteek ere ikus dezatela maila gorenean zela jokatzeko duten". Eta, Aloña Mendiko taldeen gainean ere galdetu genion *Osi*-ri: "Gure helburu nagusia harrobiaz lan egitea da. Horretan egiten dugu ahalegin handia, eta neska-mutiko mordoa ditugu. Eta gero, lehenengo taldeak lan txukuna egiten dabilta".

JON AZKUE | BIDASOA IRUN TALDEKO JOKALARIA

"Jokalariok garbi dugu oraindik posible dela kategoriari eustea"

Jon Azkue (Orio, 1994) da egun Bidasoa Irunek duen jokalaria garrantzitsuenetako bat. Gazte mailan Espainiako selekzioan, ikustekoa oriotarrak ate aurrean golak egiteko ze erraztasun duen. Asobal mailan bost golegile onenen artean dago, eta nahiz eta oso gaztea den, lotsagabe jarduten du kantxan.

Lagunarteko partidu bat zen, baina denoi gustatzen zaigu halakoak ere irabaztea.

Bai, denboraldiko bigarren itzulia presartzeko erabiltzen ditugu partidu hauek, baina egia da partidu bat jokatzeko bakoitzean irabaztea nahi izaten dugula, eta gaurkoan ere talde on baten kontra irabaztea tokatu zaigu.



Eta garrantzitsua, batez ere sailkapenean atzealdean dabilen talde bat zaretelako. Konfiantza hartzeko ez bada ere...

Bai, uste baino garrantzitsuagoak dira, batik bat, lehenengo itzuli txarra egin ostean 2014a irabazten hasi dugulako. Detaile txikiak baino ez dira, baina konfiantza emateko balio dutenak. Izan ere, lagunarteko partidu hauek irabazita moralki gora egiten dugu, eta atzean dabilen talde bat izanda, arlo psikologikoak garrantzia handia du. Izan ere, gaurkoa moduko partiduek erakusten digute ligan edonori irabazteko gauza izan gaitezkeela, eta mentalki indartsuago izateko balio dugu.

Asobaleko sailkapenak benetan erakusten du Bidasoa Irun zer egi-

teko gauza den? [Azkeneko postuan daude].

Sailkapenak ez du gezurrik esaten, ez dugu itzuli ona egin, baina orain ditugunak baino puntu gehiago izan behar genituzke [5 puntu dituzte], egin ditugu horretarako meritua. Partidu askotan zorteak bizkarra eman digu, eta partidu oso borrokatuen ostean esku hutsik itzuli gara etxera; halaxe joan zaizkigu puntu asko. Nekeagatik, esperientzia faltagatik... Eta horri buelta eman behar digu.

Posible da kategoriari eustea?

Jokalariok sinistuta gaude baietz, lortuko dugula.

"Halako garaipenak garrantzitsuak dira moralki indarra hartzeko"

26 | **JUDO** | Desoreka taldeak ate irekien jardunaldia egin zuten

| IMANOL SORIANO

LEHEN NAZIONAL MAILA

Elgoibarrek mentalki Ford Mugarri baino indartsuagoa dela erakutsi zuten zapatuan

Pablo Gartziazen mutilek 'pajara' galanta izan zuten bigarren zatian

EMAITZA

FORD MUGARRI ARRASATE

27-27

ALCORTA FORGING GROUP

X.URTZELAI | ARRASATE

Azukre-koskorra kafesnean beza la urtu zen Ford Mugarri Arrasate Elgoibarren kontrako partiduan. Eta hori lehenengo zatian Arrasatekoek zortzi goleko alde lortu zutela. Bai, zortzi (17-9). Eta zela da hori posible? Alegia, lehenengo zatian kontrarioaren gaintik pasa, eta bigarrenean halako beherakada izatea? Bada, galdera horren erantzuna duenak jar dadila Pablo Gartziazen mutilekin harremanetan, eskertuko dute eta bigarren zatian gertatu zitzaizenaren azalpen logiko bat.

Beherakada fisikoak ez du erantzun moduan balio, jokalariek eurek onartu zutelako partidu amaieran ez zutela aparteko nekerik sentitzen. Eta ez, atsedenean ez ziren Elgoibartik jokalaria gehiago etorri, lehenengo zatikoak ziren.

Talde moduan, gehiago dira

Eta horrek ematen du amorru handiena, alegia, garbi izatea Ford Mugarri Elgoibarrek baino askoz ere talde hobea duela jakiteak. Baina, zapatuko *pajara* ez da anekdota izan, joaneko partiduan ere beste horrenbeste gertatu zitzaielako, eta orduan ere, Elgoibarrek mutur-muturrean eman zielako.

Arrasatekoak dena ematera kantxaratu ziren, errebantxa gogoz. Eta hasieratik elgoibartarren gaintik pasa ziren, defen-

tsan serio jardunez, eta erasoan golak erraz eginda. Harmailetako zaleek bultzatuta, bazirudien partiduko bigarren zatia tramite hutsa izango zela. Bai zera.

Amore eman ez zuten taldea

Nahiz eta markagailuan zortzi goleko alde izan, etxeoak Elgoibarren gertatutakoa buruan zutela erretiratu ziren aldage-lara, jakitun, partidua ez zegoela irabazita. Eta hori jakinda ere, ezin Elgoibar geratu. Bigarren zatia hasteaz batera, kanpotarrek bizpahiru gol jarraian eginda gora etorri ziren, eta etxeoak neurri berean, behera (18-12, 22-18, 22-21). Ordura arte akats gutxirekin, orduan etorri ziren denak. Eta, lehenago ere ikusitako film bat izango balitz moduan, sikiera puntuari eutsi zioten.

KUTXA

Andoni Bernal, Elgoibarko defentsen artean jaurtiketa egin ezinka. | XABIER URZELAI

EUSKADIKO TXAPELKETA

Galdu egin dute kanpoan jokatu duten Soraluze BKEk, eta Aloñak

X.U. | ARRASATE

Euskadiko Txapelketan lehia dabilzan Soraluze BKEk –gizonezkoetan– eta Aloña Mendik emakumezkoetan– galdu egin dute etxetik kanpora izan duten hitzordueta.

Bergarako mutilek azken sailkatu Basauriren kantxan jokatu zuten, eta bigarren zatian hainbat minututan izandako

beherakada garesti ordaindu zuten (35-31). Bergarakoak oso justu dabilza jokalaria aldetik, eta aitzakia moduan balio ez badu ere, Muniategik zailtasunak izan zituen defentsa sendo bat eratzeko orduan: "Dena dela, autokritika egin behar dut, ni ere blokeatuta ibili nintzelako erabakiak hartzerako orduan. Ez nuen alternatiba garbirik

ikusten", adierazi zio GOIENARI. Markagailuak ez du erakusten kantxan izandako parekotasuna, Bergarakoak aurretik izan zirelako minutu askotan, eta azken minutuetan ere gol bateko alde baino ez zutelako bizkaitarrek: "Bigarren itzuli osoa geratzen zaigu, eta lanean jarraitu behar dugu, aurrealdeko postuek ihes ez egiteko.

Oñatiko neskek, berriz, atzerapausoa egin dute, sailkapenean atzerago dagoen Leizaran taldearen kontra 25-19 galduta. Oñatikoak bosgarren daude.



Bidasoako Alvarez, Bozidar eta Martinez gainean dituela. | IMANOL SORIANO



Adrian Rowlex, aurpegiko babesarekin. | IMANOL SORIANO

ERREGIONAL PREFERENTEA

Buruaz baino bihotzaz jokatzek gutxitan ekartzen ditu emaitza onak

- ▶ Mondra ahalegindu zen Zestoaren 1-1ekoa gaintitzen, baina presa larregirekin
- ▶ Txonanek egin zuen Arrasatekoen gola, Lopezen pase on baten ostean

EMAITZA

MONDRA
1-1
ZESTOA

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Ezpeleta, Bazanbide, Zabaleta, Mikel Gonzalez, Dueñas, Aizpurua, Markel Gonzalez, Iker Lopez, Txonan, Arrizabalaga, Iker Pavon.
Ordezkoak: Ander Ruiz, Chaves, Mendieta, Ormaetxea, Madinabeitia, Eskibel.

Zestoa: Aldalur, Uranga, Ander, Jon, Zelaia, Uri, Zubimendi, Llanos, Eñaut, Gutierrez, Eizagirre.

Beste: Zaleek haserre amaitu zuten epaileaz, jokaldi askotan faltak ez zituelako modu berean neurtu.



Xabi Arrizabalaga, eskuin hegaletik jokaldia egiten. | XABI URZELAI

XABIER URZELAI | ARRASATE

Mujika, Crespo, Losada, Aizpurua, Etxeberria, Azkarate, Iregi, Uri besalgo... Ez, ez da Gotzon Urzelai zapatuan Zestoaren kontra zelairatu zuen hamaikakoa, Mondrak min hartuta edota zigortuta dituen jokalariek dira. Eta berdegunean izan zirenek merezi duten errespetu guztiaz, halako baja kopurua igarri egiten da, nahi eta nahiez. Entrenatzaile bergararrak, baina, partidu ostean inongo momentuan ez zituen izenok aipatu, ez zuen aitzakiarik

nahi; jokatu zutenengan konfiantza osoa duelako, edota talde gaztea izan arren dagoeneko nahikoa esperientzia badutelako (Txonan, Lopez, Dueñas edota Zabaleta ez ditugu gazteen multzoan sartuko, beteranoak dira-eta) irabazteko moduko partidua zela uste zuen, eta haserre zen taldeak bigarren zatian egindako lanaz. Kontuak kontu, puntu banaketak zapore gazia utzi zuen taldean, buru-makur erretiratu ziren-eta denak.

Ondo hasi zen Mondra

Joaneko partiduan gertatu moduan, Mondraren eta Zestoaren partidua oso parekatua izan zen, eta emaitza ere halakoxea izan zen, inork ez zuen aparteko meriturik egin norgehiagoka irabazteko.

Lehenengo zatiko Mondra izan zen zaleek errekonozitu ahal izan zutena, eta hori lehenengo arrisku jokaldiak Zestoak egin zituela. Hala, Haritz Ezpeleta lanpetuta ibili zen atepaan, baina

hasierako presioa gaintetik kenduta, Mondraren jokoa hobetzen hasi zen.

Txonanen burukada

Aipatu moduan, lehenengo zatian Mondra txukun ibili zen. Berdegunean ondo kokatuta, lasai jokatuz, eta jokaldiak bata bestearen ostean lotuz. Hala, lehenengo zatiak utzi zuen jokaldi ederrena golarena izan zen (1-0). Ezker hegaletik ateratako kórner erdiraketa bat Iker Lopezen han-

ketara iritsi zen, area kanpoan, eta baloia zapaldu eta segidan egindako errekorreaz –sarritan egiten du jokaldi hori Lopezek– Zestoako jokalarien markaketa gaintitu zuen, eta segidan egindako erdiraketa ona –lapikora– Txonanek aprobetxatu zuen buruz arratsaldeko lehenengo gola egiteko. Hala, Arrasateko aurrelariak keinu polita izan zuen, eta Ezkurra presidenteari eskaini zion gola; ez du gutxiago merezi.

Penaltiak min egin zien

Bigarren zatia hasi eta 10 minutu egin zuen Zestoak berdinetaren gola (1-1). Penaltiz izan zen, Gonzalezek baloia urrundu nahian hanka jaso eta Zestoako aurrelariari penaltia egin ostean. Ordurako Arrasatekoak txartel hori bat zuen, eta argi ibili ziren hor Dueñas eta batez ere Zabaleta, epailea nahastarazi zutelako, eta txartel horia Zabaletari erakutsi ziolako. Horrela eragotzi zuten Mondra hamar jokalarirekin geratzea.

Zestoako Iñigo Uriak egin zuen 1-1ekoa, eta hor hasi zen Mondraren gainbehera. Ez Zesto minutu horietan gehiago izan zelako, baina bai Mondrak ideia garbi guztiak galdu eta presaka jokatzen hasi zelako: jokaldi ordenatu barik, lekua galduaz, eta baloi luzeen bidez jokatuz. Eta hori Iker Pavonek aukera ederra izan zuela 2-1ekoa egiteko, baina egiari zor, Zestoak ere barkatu egin zuen beste aukera batean.

ELKARRIZKETA

Gotzon Urzelai | Mondrako entrenatzailea

"Penaltiaren ostean, tamalez, ez dugu lasai jokatzen jakin"

- ▶ Bigarren zatian txarto ikusi zuen Mondra
- ▶ Lazkao izango dute datorren astean kontrario

XABIER URZELAI | ARRASATE

Partidu amaieran Gotzon Urzelai ez zegoen pozik. Puntua irabazi baino bi puntu galdu zituzten sententzioa zuen.


Ze gorputzaldirekin geratu gara?

Ba orain momentuan txarra, ezin gara pozik egon, duda barik. Oraindik ez naiz jokalariekin egon, baina burumakur ikusi

ditut asko eta asko, hortan, ez dira pozik egongo. Puntu bat batu dugu, eta horrekin geratu behar gara, batzen jarraitu eta aurrera begiratu behar dugula.

Joaneko partiduan berdindu egin zenituen, eta etxean beste horrenbeste. Eta, esango nuke berdinketa justua izan dela.

Bai, ez dut uste bietako inork merezi zuenik partidua irabazterik. Lehenengo zatian akaso gu ibili gara hobeto. Motzean eta luze noiz jokatu behar genuen ondo interpretatu dugu, eta gustura ibili gara, neurri handian partiduko erritmoa markatuz. Bigarren zatian, ostera, penaltiak min handia egin digu eta ondoren erlojuari begira jokatu dugu. Hori izan da klabea, inongo zalantza barik. Eta, penaltiaren ostean 35-40 minutuz erlojuari begira



Gotzon Urzelai. | X.U.

"Erlojuaren kontra 40 minutuz jokatzea ez da ona"

jokatzeak ez du batere mesederik egiten. Uste dut hori dela ikasi behar dugun beste gauza bat, halakoetan lasaiago jokatzen. Burua berotu egin zaigu, baloi luzeak jokatzen hasi gara, eta erdigunean ordena galdu dugu. Ondoren nekatu ere egin gara, eta ez, ez dugu gauza onik egin. Hori horrela, uste dut baietz, berdinketa emaitza justua izan dela.

Datorren astera begira...

Martitzenean entrenatuko dugu, eta ea poliki-poliki jendea errekupekatzen dugun. Lesionatutako jokalariek asko ditugu eta hori ere igarri egiten da, nahiz eta ez den aitzakia. Lazkaora joango gara, hori ere entrenatzailea aldatu duen beste talde bat da, eta partiduak irabazten hasi dena. Partidu gogorra izango da.

OHOREZKO ERREGIONALA

Banakoarekin konformatu behar izan zuen Antzuolak

Zigortuta zeuden jokalariek faltan bota zituzten etxeko jokalariek

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Epaileen zain egon eta minutu bateko isilunea egin ostean eman zioten hasiera, bigarren bueltako lehen partiduari. Anaitasuna sailkapeneko liderra da eta hori agerian geratu zen partiduan zehar. Gainera, etxekoen kasuan pasa den astean txartel gorria ikusi zuten Zubikarai eta Oinatzen falta sumatu zuten, ezin golik eginda aritu baitziren.

Anaitasuna gehiago izan zen eta etxekoek presioa mantentzen saiatu baziren ere, arean sartuta egon ziren behin eta berriz. Jon Iturbe atezainak ere lan nahikotxo izan zuen eta behin baino gehiagotan bere kalitatea agerian utzi zuen egindako geldialdiekin. Lehen zatia, beraz, hasierako markagailuarekin amaitu zen.



Antzuolak eta Anaitasunak jokatutako partiduko une bat. | ANE ETXEBERRIA

Bigarren zatian golak

Bigarren zatian iritsi ziren partiduko bi golak. Lehena sartzen Antzuola izan zen Julen Aranbarriren eskutik, bigarren zatia- ren erdi inguruan. Baina Anai-

tasunaren gola ere heldu zen etxekoen okerrerako. Partidua amaitzeko minutu gutxi batzuk falta zirela berdindu baitzuten azkoitiarrek. Azkenean, bana-koarekin konformatu behar.

OOREZKO ERREGIONALA

UDA hasi da etxeko partiduei neurria hartzen

Bigarren astez etxean jokatu zuten UDAko mutilek eta atzokoan ere garaile atera ziren. Izan ere, Touringen aurkako partiduan 2 eta 0 irabazi zuten etxekoek. Lehen gola Josuk sartu zuen lehen zatian eta bigarrena Perezek bigarrean.



JOSETXO ARANTZABAL

ARETO FUTBOLA

Eskoriatzak gutxigatik galdu zuen

Partidu bikaina jokatu zuten etxekoek baina ezin izan zuten partidua irabazi. Lehen zatia banakoarekin amaitu zuten eta bigarrean gogotsu jokatu arren, 4 eta 5 galdu zuen Saltxaileak talde ermuarraren aurka.



IMANOL SORIANO

OHOREZKO ERREGIONALA

Zapatuan Bergarak irabazi eta domekan Aloñak berdindu

A.E | DEBAGOIENA

Bergarak 1 eta 2 irabazi zuen Donostiara egindako bisitan. Bergararrak gehiago izan ziren lehen zatian, eta nahikoa izan zen horrekin. Vasconiak ere izan zituen bere aukerak, baina lehena markagailua estreinatzen Bergara izan zen. 20. minutuan Enekok buruz gola sartu zuen. Etxekoek baina ez zuten asko egin, baina behin areara heldu

eta gola sartu zuten 30. minutuan. Hortik lasterrera baina, 43. minutuan, Inñigori penaltia egin zioten eta Baltzategik gola sartu zuen (1-2). Merezitako hiru puntuak beraz, etxera eraman zituzten.

Oñatiarrek berdindu

Partidu osoan agintzen eta indartsu aritu ziren Aloñako mutilek, baina lehenengo zatian ezin asmatu ibili ziren. Bigarren zatian

aldiz, zorte gehiago izan eta 5. minutuan Unai Uribeberriak sartu zuen gola. Merezitako garaipena eskuan zuten, baina haizea eta euria indartsu hasi eta zelaia putzu bat bihurtu zenez, oñatiarrek asko sufritu zuten. Real Unioneke jokalariek orduan, euren aukerak aprobetxatu eta gola egin zuten partidua amaitzeko bi minutu faltan. Azkenean, pena handiz, bana-koarekin etxera.



Kadeteek ere galdu zuten Tolosaren aurka. | IMANOL SORIANO

SASKIBALOA

Azken laurdenean saskiratze gutxi egin eta gero, porrota MUrendako Tolosan

Nagusiek EBA mailan eta gaztetxoek Euskal ligan jokatzeke aukerak dituzte oraindik ere

A.E | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko mutilek ezin izan zuten garaipena lortu zapatu iluntzean jokatutako partiduan: 64-60 galdu zuten Tolosaren aurka. Oso partidu garrantzitsua zen, izan ere, aurten lehenengo sailkatzen denak EBA mailara zuzenean igotzeko aukera izango du. Hurrengo 4 taldeek aldiz, euren artean jokatu beharko dute igoera fasea.

Beraz, sailkapenean dauden tira-birak ikusita, aurrerapauso egiteko beharrezkoa zen garaipena arrasatearrentzat. Baina, ezinezkoa izan zen. Partidua ez zen gaizki joan, nahiko orekatuak izan zen lehia, baina azken laurdenean akats gehiegi egin zituen taldeak eta orduan galdu zuten norgehiagoka. Izan ere, azken laurdene-

ko 4 minututan, talde zuri-mo-reak ez zuten saskiratzerik egin. Denbora gehiegi saskiratzeke eta hori ondo aprobetxatu zuen kontrarioak. Esan bezala, 4 puntuko aldeaz MUko mutilek ezin izan zuten garaipena etxera ekarri, baina irudi ona eman zuten. Datorren astean berriz saiatu behar.

Kadeteek ere porrot

Kadete mailako mutilek ere galdu egin zuten partidua, hori ere Tolosaren kontra. 53-56 izan zen azken emaitza, nahiz eta partidu guztian zehar irabazten joan ziren. 12 puntuko aldea ere izan zuten, baina falta asko egin zituzten eta Badiola lesionatuaren hutsunea ere asko sumatu zuten. 20 puntuko partzialaz, tolosarrak garaile atera ziren.



EMAKUMEEN FUTBOLA

JOSETXO ARANTZABAL

Arizmendiko neskek primeran

6-2 irabazi zuten Arizmendiko neskek atzo egundian jokatutako partidua. Ligaxkako azkena izan zen eta ederki jokatu ondoren, atsedena hartu eta igoera faseko partiduetan murgilduko dira.



Neska-mutiek judoa ezagutzeko aukera izan zuten zapatuan. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

JUDO

Judoaren onurak ezagutu zituzten neska-mutiek

Desoreka judo taldeak antolatu zuen ekimena judoa bera ezagutzera emateko helburuarekin

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Giro polita sortu zen judoaren bueltan zapatuan Musakolako kiroldegian. Ate irekiak antolatu zituen Desoreka taldeak, eta koa-drila majoa animatu zen kirol hori ezagutu eta praktikatzera.

Markel Urrutia Desorekako kidearen esanetan, judoan Aretxabaletan eta Arrasaten jarduten du taldeak une honetan. "3 urtetik gorakoentzako zerbitzua hasi gara ematen, eta osasunak laguntzen digun bitartean praktikatu daite-

keen kirola da judoa. Herritarrei zabaldu gura izan diegu eskaintza hau".

Pertsona moduan heziz

Urrutiak aditzera eman duenez, hezkuntza inguruko jendeak ematen ditu klaseak: "Beraz, ez da soilik kirola lantzen, motrizitatea, emozioak, afektibitatea eta bes-telakoak ere lantzen dira. Zabala da arloa, pertsona moduan heztea ere garrantzitsua delako".

Jendea judoa praktikatzera deitu dute. Informazio gehiago: <http://www.desorekajudo.tk/>.

BORROKA LIBREA

Maider Undak erabaki du haurdunaldia tarteko, Olinpiar Jokoetarako prestaketa atzeratzea

Z.V.D.M. | ARRASATE

Oso urte ezberdina biziko du aurten Maider Una borrokalaria olinpikoak. Atzo domeka iragarri zuenez, atsedean hartuko du lehiaketei dagokienez. "Eta indar guztiak nire beste ametsa gauzatzera bideratuko ditut. Geroago, ikusiko dugu nola itzuli naitekeen lehiaketara". Hain zuzen ere, uztaile-rako espero du haurra borrokalaria arabarrak.

2015ean itzultzeko ideia

Rio de Janeiroko 2016ko olinpiar jokoak prestatzen ari zen Unda.

"Londresko jokoan ostean, 2013an ama izatea espero nuen baina espero ez nuen domina lortzeak guztia aldatu zuen eta poztasun hori luzatzea erabaki nuen". Baina gerora beste ametsa gauzatzeko unea iritsi zela jabetu zela gaineratu du.

2016ko jokoetara iristeko helburua gauzatu ahal izateko 2015ean itzuli beharko litzateke lehiaketara. "Hain zuzen ere, irailean sailkatze probak hasiko lirateke eta ordurako goi mailako lehiaketetan aritu beharko nintzateke", gaineratu du Undak.



Maider Unda Arrasaten 2013an Georgian lortutako dominaz. | GOIENA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Aretxabaleta-Touring	2-0
Real Union-Aloña Mendi	1-1
Antzuola-Anaitasuna	1-1
Vasconia-Bergara	1-2

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Berio	38	18
2 Anaitasuna	36	18
3 Tolosa	34	18
4 Aurrera	28	17
5 Real Union	25	18
6 Ostadar	25	18
7 Aloña Mendi	25	18
8 Beti Gazte	24	18
9 Antzuola	24	18
10 Bergara	23	18
11 Hondarribia	22	17
12 Aretxabaleta	21	18
13 Hernani	21	18
14 Getariako Keta	20	18
15 Vasconia	20	18
16 Touring	17	18
17 Zarautz	15	18
18 Lagun Onak	10	18

HURRENGO JARDUNALDIA

Zarautz-Aretxabaleta
Touring-Real Union
Aloña Mendi-Beti Gazte
Hernani-Berio
Hondarribia-Vasconia
Bergara-Aurrera
Tolosa-Antzuola
Anaitasuna-Getariako Keta
Ostadar-Lagun Onak

EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK

Lauro Ikastola-Aretxabaleta	1-0
-----------------------------	-----

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondra-Zestoa	1-1
---------------	-----

EMAKUMEZKOEN LIGA

Arizmendi-Eibar	6-2
-----------------	-----

EMAKU. BIGARREN MAILA

Logroño-Mondra	13-0
----------------	------

GAZTEEN OHOREZKO MAILA

Beasain-Mondra	5-1
Bergara-Tolosa	1-2
Aloña Mendi-Aurrera	3-2

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Eibar-Bergara	2-0
Tolosa-Aretxabaleta	3-0
Arrasate-Urki	1-2

EMAKUMEAK GAZTEAK

Lazkao-Aloña Mendi	2-3
Bergara	Atsedena

EMAKUMEAK, 1. KADETEAK

Arizmendi-Eibar	2-2
Aloña Mendi-Bergara	1-3
Mondra-Ilintxa	2-1

ESKUBALOIA

ASOBAL LIGA LAGUN ARTE.

Bidasoa Irun-Anaitasuna	32-29
-------------------------	-------

LEHEN NAZIONAL MAILAS

Ford Mugarri-Alcorta Forging	27-27
------------------------------	-------

EUSKADIKO TXAP.

Indupime Basauri-Soraluce BKE	35-31
-------------------------------	-------

EUSKADIKO TXAP. EMAK.

Leizaran-Aloña Mendi	25-19
----------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Saltxailleak	4-5
-------------------------	-----

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

Bide bide Donosti-MU	64-60
----------------------	-------

AUTONOMIKOIA

GDKO Ibaizabal-Natra Ofiati	78-63
-----------------------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

arri BKL-Eskoriatza	56-49
---------------------	-------

GAZTEAK ERRENDIMENDUA

Cafes Aitona A-MUA	56-43
--------------------	-------

KADETEAK ERRENDIMENDUA

MU A-Take	53-56
Soraluce Bergara KE	Atsedena
Añorga Kadete A - Aloña Mendi	69-44

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Kanpanzar ART-RC Rioja	14-12
------------------------	-------

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK | ASTELEHENERO, 20:03, 23:56



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

ESKUBALOIA

Fernando Bolea | Bidasoaren entrenatzailea

"Asobaleko taldeen kontra lehiakorra izatea zaila da; hortik haratago, dena da positiboa guretzat"

- ▶ Bidasoa taldea sailkapeneko azkena da bost punturekin, lehen itzulia bukatu ostean
- ▶ Egubakoitzean lagunarteko partidua jokatu zuten Anaitasunaren kontra Oñatin

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Eskubaloiko Europako txapelketa dela-eta Asobal ligak atsedena dauka. Hori horrela, lagunarteko partidua jokatu zuten Bidasoak eta Anaitasunak Oñatin, Aloña Mendiko eskubaloiz sailak antolatuta. Guk irundarren entrenatzaile Fernando Bolearekin (Zaragoza, 1965) berba egiteko aprobeztatu genuen.

Asobal ligarako igoran kale egin ostean, gonbidapena jaso zenuten eskubaloien gorengo mailan jokatzeke.

Zilarrezko mailak eta Asobalek ez daukate zerikusirik. Taldeen eta jokalarien mailak oso bestelakoak dira. Baina Bidasoak erronka moduan hartu zuen gonbidapena: ekonomia atala betetzeko ate asko jo genituen. Gainera, jokolariendako aldaketa itzela izan zen. Hazten dauden jokalaria genituen, eta bat-batean Asobal mailan jokatzeke aukera zuten.

Guk gorengo mailara salto egin gura genuen, baina kantxan irabazita eta beharrezko denbora hartuta. Dena den, erronka onartzea erabaki genuen, eta hemen gaude: sendo lanean.

Lehen itzulia bukatu da eta azken lekuan zaudete bost punturekin. Nolako balorazioa egiten duzu?

Sailkapenari begiratuz gero denboraldia ona ez dela argi dago. Puntu gutxi ditugu, eta, proportzio horrekin jarraitzen badugu, zailtasunak izango ditugu mailari eusteko. Baina oso pozik nago jokalariek egiten diharduten lanarekin. Euren konpromisoa izugarria da. Esperientzia hartzen dihardute eta euren eboluzioa oso ona da. Bestalde, txalotzeko modukoa da irundarrek eta eskubaloizaleek eman diguten babesa. Gozamina da Artalekun partidua jokatzea. Lerro hauen bidez, eskerrik beroenak.

Klubak oso garbi zuen zaila izango zela Asobal mailako taldeen kontra lehiakorra izatea. Hortik haratago, dena da positiboa guretzat.

Ligako bigarren itzulia nola aurreikusten duzue?

Duda barik, gogorra, baina erronka da guretzat. Lehen itzulian bost puntu bakarrik batu ditugu, baina beste hainbat lortzeko aukera izango dugula uste dut, batez ere, etxeko partiduetan. Jokalariai baikor daude, eta ni neu ere bai.

Etxetik kanpo bi berdinketa lortzeko gai izan gara. Partidu batzuk gol gutxiko aldearekin galdu ditugu, eta hainbatetan, guk baino aurrekontu handiagoa

duten taldeak estu hartu ditugu. Horrek guztiorrek pentsarazten dit bigarren itzulian, zorte apur batekin, gora begira ipiniko gara. Baina zaila izango da.

Deskriba egiguzu zure taldea.

Guk egiten dugun eskubaloiak ez dauka zerikusirik Asobaleko goi mailako taldeek egiten dutenarekin. Gure eskubaloia arinagoa da.

Goi mailako eskubaloiak hiru ezaugarri ditu: altuera, indarra eta abiadura. Guk, egun, hiru ezaugarri horietako bakarra daukagu: abiadura. Ez gara altuak eta ez gara oso indartsuak.

Hori horrela, erasoko jokaldiak askoz gehiago landu behar ditugu, eta pibotearekin jokatu ahal izateko, lehen lerroaren mugikortasuna indartu behar dugu. Gainera, lehiakorrak izan behar dugu. Aurkaria estu hartu behar dugu defentsan eta, ahal dugun heinean, eskubaloia ona egin.

Altuera eta indarra falta zaigunez, beste talde batzuek baino lan handiagoa egin behar dugu. Une erabakigarrietan baloia ez galtzea ere landuko dugu.

Krisiak ere eragin zuzena izan du eskubaloian. Taldeen maila asko jaitsi dela esango nuke. Iritzi berekoa zara?

Bai, duda barik. Asobal ligan jokatzeke maila duten 40 bat jokalarik atzerriko txapelketetan jokatzen dute. Espainiako Selektzioaren bizkarrezurrak ez du Asobalen jokatzen. Duela urte batzuk atzerriko jokalaria etortzen ziren gurekin jokatzen. Oraingo joera bestelakoa da.

Diru faltak ekarri du jokalaria onenek atzerriko bidea hartu behar izatea. Ondorioz, Asobal liga asko moteldu da eta talde asko desagertu dira.

Baina ni krisiaren alde onak azpimarratuko ditut. Atzerrian diharduten jokalaria horiek Asobalen lehiatuko balira, egun Espainiako ligan jokatzen duten askok ez lukete lekurik izango lehen mailan. Zilarrezko ligan eta B mailan egongo liriateke. Horrek jokalaria multzoa zabaltzea dakar. Espainiako jokalaria onenak kanpora badoaz, harrobiko jokalaria askoz gehiago behar dira taldeak osatzeko. Formazio hori ezinbestekoa da.

Bidasoako jokalaria izan zinen bost urtez. Entrenatzaile izateko eskaintza jaso zenuenean, zer pasa zitzaizun burutik?

Guadalajarako ibilbidea bukatuta, Salva Pombar kirol zuzendariaren deia jaso nuen eskaintza eginda. Bartzelonaren deia jaso



Fernando Bolea, Oñatiko Zubikoa kiroldegian | IMANOL SORIANO

"Bigarren itzulari aurre egiteko baikor daude jokalariai eta ni neu"

"Oraingo eskubaloiak ez du zerikusirik guk egindakoarekin"

izanak baino ilusio handiagoa egin zidan. Banekien ez zela punta-puntako taldea, baina berriro ere kolore horia sentitzeko aukera izango nuela lehenetsi nuen. Bidasoaren urterik onenetan jokalaria izan ostean, oso bestelako egoera gaintzeko nire laguntza ematea erabaki nuen. Ez nuen bitan pentsatu.

Badel Zagreb esaten badizut, ze oroitzen datokizu burura?

Duda barik, klubak izan duen unerik pozgarriena, eta baita nirea ere. Europako txapelketa

hura irabaztea gertaera gogoangarria izan zen klubarendako, zaleendako, Irunendako eta jokalariondako. Batez ere, azpimarratuko nuke Artalekun jokatutako partidua. Atsedendian gol bakarrek alde genuen, eta 30-20 emaitzarekin bukatu genuen lehia. Itzela izan zen.

Zagreb jokaturako itzuliko partiduan, 10 goleko aldearekin jokatu genuen, eta, gol bakarrenatik galdu ostean (27-26), Europako txapelketa irabazi genuen.

Bidasoa ez zen txapelketa hura irabazteko hautagaia, baina eskubaloizaleek ondo gogoratzen dituzte talde hartako jokalariai.

Hala da. Ordu hartan 8-9 jokalaria indartsu genituen; besteak beste, Svensson, Kiselev, Perunicic, Rubiño, Etxaburu, Ordoñez... Gainera, ez genuen lesio larririk izan urte osoan eta gure konpromisoa izugarria zen.

Orduko Bartzelona edo Santander taldeekin alderatuta, maila txikiagoa genuen, baina kasta handia eta lanerako gogo. Aurretik irabazitako liga txapelketekin bolada onean sartu ginen, eta Europako txapelketa une gogoangarriena izan zen.

Beste bi izen aipatuko dizkizut: Beñardo Garzia eta Juantxo Villarreal.

Izen horiekin berba bakarria datorrit burura: lana. Baina ez bakarrik euren lana. Presidentea eta entrenatzailea izanik, askotan agertzen ziren hedabideetan. Azpimarratuko nuke euren azpitik zeuden klubeko beste ordezkarien lana. Jokalariai gustura egoteko euren esku zegoen guztia egiten zuten. Juantxo Villarreal Bidasoaren ikurra izan da.

Eskubaloiko Europako txapelketa hasi berri da. Entrenatzaile edo zale ikuspuntuarekin ikusiko duzu?

Entrenatzaile, zale eta jokalaria ohi moduan. Oraingo eskubaloiak ez dauka zerikusirik guk egiten genuenarekin. Ni hegaleko ezker-tiarra nintzen, eta, orain egiten dituzten jokaldiak eta mugimenduak ikusita, harrituta geratzen naiz.

Entrenatzaile ikuspuntutik begiratuta badago zer ikasia, baina itsutu barik. Selektzioetako entrenatzaileek erabiltzen dituzten taktikak nik ezin ditut nire taldean erabili, jokalaria ezberdinak ditudalako.

Jokalariai ere gauza bera esan diet. Ikus eta goza dezatela eskubaloiaz, eta, ahal badute, ikasteke, baina nork bere ezaugarriak aintzat hartuta.

Familiaren eta eskolaren arteko harremanak beharrezkoak dira

Gaiaren inguruko doktore tesia egin du EHUko irakasle Joxe Amiamak

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Eskola eta familia helburu berbera daukaten bi sistema dira: "Guraso eta irakasleok denok nahi dugu pertsona zoriontsu, arduratsu, orekatu, kompetenteak eraikitzen lagundu, modu integratzean: plano afektiboan, kognitiboan, fisikoan eta sozialean". EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea Joxe Amiamaren hitzak dira; aditua da familiaren eta eskolaren arteko harremanean. "Ezin du sistema batek bestea bakarrik utzi", dio. Haurraren hobebeharez lehendabizi, baina baita familiaren eta eskolaren onurarako eta komunitatearen osasunerako ere, garrantzitsua

da familiaren eta eskolaren arteko harreman zainntzea. Ados dago Elena Lopez de Arana, Huheziko irakaslea: "Haurraren garapen osasuntsua ziurtatzeko behar turik gaude elkar ulertzera eta elkar laguntzera, bestela ez dago modurik". Haur Hezkuntzari zuzendurik *Hik hasi-k* antolatutako Eskola eta Familia jardunaldietan Lopez de Aranak Alexander Barandiaran irakaslearekin batera egin zuen berbaldiko hitzak dira.

Alabaina, bai sistema bata zein bestea bakarrik sentitzen dira. Eskolaren bakardadeaz hitz egin du Amiamak: "Eskola bakarrik gelditu da hainbat ikasketa

erakusteko. Karga handia jarri dugu eskolarengan, familiaz gain instituzio bakarra baita hezten duena. Familiaren egitura ere aldatu egin da, murriztu egin da, batetik, funtzioak aldatu dira, bestetik, eta inoiz baino agudoago uzten ditu seme-alabak eskola instituzioaren esku". Adituak, beraz, ados daude familiak eta eskolak aliatuak izan behar dutela haurren heziketan. Bide horretan beharrezkoa ikusten dute sistema batak bestearekiko dituen aurreiritziak alboratzea.

Gaiaren inguruko doktore tesia egin du Amiamak. Ondorio interesgarriak jaso ditu, eta lotura egin dugu *Guraso.com*-en.

Nerabeek, batez beste, 150 euro gastatzen dituzte hilero, eta gertuko senitartekoak dira diru-iturri nagusia

Kontsumitzaile nerabeen argazkia egin dute 'Keepunto' atari digitalean, eta diote gurasoek heziketa finantzario egokiagoa eman beharko luketela

L.Z. | ARRASATE

Nerabeei zuzendutako atari digitala da *Keepunto.com*, eta nerabeen ohitura finantzarioen inguruan egin duten ikerketaren aurrerapena eskaini dute egunotan. Behin betiko txostena otsailean aurkeztuko dute.

Webguneko ordezkari Raul de la Cruzek aditzera eman duenez, nerabeek, batez beste, 40 euroko ordainsaria jasotzen dute hilero. "Hilean egiten duten gastua, ordea, 150 euro da, batez beste. Nola izan daiteke hori? Hilero aitortua duten 40 euroko ordainsariaz gain, aurkitzen dutelako diru gehiago eskuratzeko modua: zinemara joateko, opari bat egiteko, arropa erosteko... Gurasoek ordainsari txikiagoak ematen dizkiete, eta gurasoak ez badira aitona-amonak, izeba-osaabak... Inguruko senitartekoak dira haien diru-iturri nagusia", azaltzen du de la Cruzek. Hala, adituaren esanetan, inor benetan konturatu gabe nerabeek hilean 150 euroko gastua egitera iristen dira. "Batez bestekoak kontu handiz hartu behar dira beti, baina, gure ikerketaren arabera, nerabeek arropa —26 euro hilean—, janaria —24 euro hilean— eta teknologia —20 euro hilean— kontsumitzen dituzte, besteak beste".

Gurasoen erantzukizuna

Kontsumitzaile nerabeen argazkia egin dute *Keepunto*-koek,



Nerabea. | ORANGE ACID

baina, arduradunaren esanetan, ondo asko izan zitekeen nerabeen gurasoen argazkia. "Gurasoak gara nerabe horien hezkuntza finantzarioaren erantzuleak, eta horrelako jokabidearekin ez gara nerabeen mesedetan ari. Esfortzuen eta ahaleginaren kultura gehiago landu beharko genuke", esan du. De la Cruzek onartzen du krisi ekonomikoak eragina izan duela nerabeen egunerokoan: "Orain bost urte nerabeen %65ek jasotzen zuten ordainsari bat astero. Gaur egun %65ek ez dute ordainsaririk jasotzen", adierazi du.

Adituaren esanetan, erreminta finantzarioak eskaini beharko genizkieke nerabeei: "150 euro gastatzen dituzte hilero, eta asko

eta asko ez dira jakitun ez dutelako erremintarik dituzten gastuen jarraipena egiteko". Nerabeak konturatzen dira eta onartzen dute trukean ezer egin barik lortzen dutela hileroko ordainsaria. "Aurrezten eta euren dirua kudeatzen erakutsi beharko genieke. Batzuetan aurreztu egin behar da, beste batzuetan erosi edo inbertitu... Gastuak gestionatzen eta erantzukizunez erabakiak hartzen erakutsi beharko genieke". De la Cruzek esanetan gurasoek trukean ezer eskatu gabe seme-alabak finantzatzen jarraitzen badugu, ez dute ahalegintzeko beharra sentituko. "Eta kuriozoso da ze erronkak ipintzen badizkiezu, normalean gogoz saiatzen dira", dio adituak.

Virginia Espin | 'Coach'-a, terapeuta eta musikaria

"Uste dut gurasotasun kontzienteagorantz egin beharko genukeela"

Hamabi orduko 'guraso coaching' tailerra gidatuko du Oñatin eguenetik aurrera

L.Z. | ARRASATE

Gurasoen prestakuntzaz arduratzeko, Oñatiko ikastetxeek, guraso elkarteek eta Udalak osatutako lan-mahaiak tailer berezia antolatu du. Bada, seme-alaben potentziala eta talentua pizteko erremintak emango ditu Virginia Espin terapeuta eibartarrak.

Zer da guraso coaching-a?

Orain oso modan dagoen diziplina da *coaching*-a, baina badira urte batzuk existitzen dela. Kirolarekin lotuta sortu zen bere egunean, enpresa munduan ere asko egiten da orain, eta hezkuntzarako ere baliagarria da. Egia esan, aplikazio ezberdinak ditu. Orain oso modan dagoen diziplina da. *Guraso coaching*-a da teknika horiek gurasotasunerako aplikatzea.

Coach-aren lana da pertsonen potentzial guztiak garatzen laguntzea. Bestela esanda, nola konektatu nire indarra eta nire potentzialak bizitzan zentzua ematen didanarekin. Abiapuntua, hemen, nork bere burua onartzea da. Pauso garrantzitsua da norberaren garapenerako, eta ardatza da gure gaitasun naturalak identifikatzeko gero potentziatzeko. Zeintzuk dira nire gaitasun pertsonalak? Denok ditugu eta garrantzitsua da identifikatzea. Horretan laguntzen du, besteak beste, *coach*-ak.

Gaur egungo gizartearen gurasoek baliabide berriak behar ditugu? Diote orain arteko erreferentziek ez dutela balio.

Coach baten ikuspegia garatzen badugu, erreminta berriak lortuko ditugu. Erreminta berriak, batez ere, gure seme-alaben garapenerako espazio bultzatzaileagoak sortzeko. Guraso perfektuak ez dira existitzen eta ez dira sekula existitu. Hori da abiapuntua. Egiten dugu ahal duguna, eta nahiko ondo egiten dugula esango nuke. Baina uste dut gurasotasun kontzienteagorantz egin beharko genukeela. Guraso gara eta askotan ez gara kontziente edo ez gara ohartzen jokatzeko dugun rola garrantziaz. Ze leku hartzen du gurasotasunak nire bizitzan? Nire seme-alaben garapenerako zer-nolako espazioak sortzen ditut? Antzerako galderak egingo dizkiogu gure buruari Oñatiko tailerrean. Familia bakoitzak dauka izaera kolektibo bat; hori islatzen



Virginia Espin. | VIRGINIA ESPIN

da arauetan, sinesmenetan, garatzen ditugun harremanen nolakotasunean, elkarrekin egoteko dugun eran, arduetan... Eta horrek guztiak sortzen du espazio mota bat. Seme-alabak espazio horretan garatzen dira. Batzuetan oso espazio bultzatzailea izaten da; beste batzuetan, ez horrenbestearainokoa. Espazio mugatzaileak ere sortzen dira.

Kontziente bagara zelako espazioa sortzen dugun, zelako elkarrizketak izaten ditugun, zela definitzen ditugun gure seme-alabak eta nola begiratzen ditugun... hor eragin dezakegu sortzen dugun espazio horren nolakotasunean. Kontzientzia hartuz espazio bultzatzaileagoa edo osasungarriagoa sor dezakegu, eta, horrela, seme-alaben potentzialak eta talentuak piztu eta bultzatu. Horrekin lotuta bai, baliabide berriak behar ditugu, eta lor ditzakegu.

Hamabi orduko tailerra izango da. Noiz eta non egingo duzue? Bidebarrieta kaleko askotariko erabilerako aretoan izango dira otsailaren 27ra bitarteko eguenetan, 18:15etik 20:15era. Saioak euskaraz izango dira, eta interesatuek Oñatiko udaletxean eman behar dute izena.

"Guraso perfektuak ez dira existitzen, egiten dugu ahal duguna"

"Sor ditzakegu garapenerako espazio bultzatzaileagoak"



KULTURA



Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kideak, egubakoitzeko emanaldiko une baten. | IMANOL SORIANO



Gonzalez Bastidaren senideak eta udal ordezkariak lehen lerroan egon ziren. | I.S.

Bergara liluratu zuen kontzertu hunkigarria

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Miguel Gonzalez Bastida omentzeko kontzertua eskaini zuen barikuan

TXOMIN MADINA | BERGARA

"Oso gustura egon gara, hunkituta". "Ederra izan da; 5. Sinfonia, oso ederra". "Sinestezina izan da; aldian behin etortzen dira, eta aprobetxatu egin behar da".

Egubakoitz gauean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Bergaran eskaini zuen emanaldiaren ostean ikusleei entzundako batzuk dira horiek. EOSek Bergara bisitatzen zuen bosgarren aldia zen, eta oraingoan, berezia zen motiboa: Miguel Gonzalez Bastida musikari bergararra omentzea. Udala izan zen antolatzailea.

Udal Pilotalekua, beteta

Udal Pilotalekuan izan zen kontzertua, eta goraino bete zen berau: sarrera guztiak agortu ziren, eta

800 pertsonak gozatu ahal izan zuten ordu eta erdi inguru iraun zuen emanaldiaz. Bergararrak asko, baina baita beste herri batzuetatik joandako musikazaleak ere. Egon zen baita ere sarreak erosteko berandu ibili eta kanpoan geratu zenik ere.

DATUA
800
IKUSLE
Sarreak agortuta zudeenez, ez zen lehiatilan gehiago erosteko aukerarik egon.

Pieza bat opari

Iragarrira zegoen moduan, omen duaren pieza batekin hasi zen kontzertua, Lorea-rekin, hain zuzen ere. Une berezia izan zen gainera, omenduaren seme Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendu zuen-eta pieza horretan Euskadiko Orkestra sinfonikoa.

Johannes Brahmsen *Biolin, biolontxelo eta orkestrarako kontzertua*-rekin jarraitu zuen emanaldia. Kasu honetan, eta gai nontzeko emanaldi guztian Lorenz Nasturica-Herschowici izan zen zuzendaria; zuzentzeaz gain, bakarlari moduan ere ibili zen biolina jotzen. Bakarlari lanak egin zituen baita ere Juan Ignacio Emmek, bere kasuan biolontxeloarekin.



Ezkerrean, Lorenz Nasturica-Herschowici zuzendaria biolina jotzen. | I.S.

Atsedenerako tarte bat hartu ostean, ikusle askori oilo-ipurdia jarri zion Beethovenen 5. Sinfonia jo zuen EOSek. Berez hor amaitzen zen programa, baina egon zen azken oparirik: Euskadiko Orkestra Sinfonikoak *Agur jaunak* jo zuen, eta ikusleek, aulkietatik zutituta, ahotsa jarri zioten musikari. Txalo zaparrada luzearekin eskertu zuten ikusleek EOSen kontzertua.

Emanaldia amaitutakoan, pozik zeuden iaz zendu zen Miguel Gonzalez Bastidaren senideak. "Oso berezia izan da, oso polita; dena primeran irten da, eta familia guztia oso hunkituta gaude" zioen Patrizia Gonzalez, Miguelen bilobak. Jende asko egongo zela uste arren, Udal Pilotalekua bete-

tzerik espero ez zutela gaineratu zuen, eta adierazi zuen aita ere gustura geratu zela Euskadiko Orkestra Sinfonikoa zuzendu ostean: "Oso ondo geratu da Lorea, gozoa, maitasun handiarekin". "Pozik egongo da" adierazi zuen bilobak aitona galdetzean.

EOSen zuzendari lanetan ibili zen Lorenz Nasturica-Herschowicik bere aldetik, Udal Pilotalekuaren akustika goraiatu zuen, eta publikoa primerakoa izan zela gaineratu.

Egubakoitzean telebistan

Goiena telebistak osorik grabatu zuen atzoko kontzertua eta datoren egubakoitzean, hilaren 24an, ikusteko aukera izango da, 22:15etik aurrera.

4. edizioa Kantari

Arrasate eta Aramaio 2013-01-18

Aurtengo azken saioan, Arrasateko eta Aramaioko neska-mutilek Aurduritasuna alde batera utzi eta gogotsu abestu zuten. Arrasateko 175 gaztetxo eta Aramaioko 12 aritu ziren kantuan. Halaber, Port Aventurako bidaiaren zozketa burutu zen. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Arrasaten grabatutako saioak hilaren 21etik aurrera emitituko ditu Goiena telebistak martitzen eta eguenetan 19:30ean; biharamunetan, errepikapena 13:00ean; zapatuan, 12:30 eta 19:00ean asteko bi saioak batera; eta domekan, 12:30 eta 19:00ean ere bi saioak batera.





Beste saioetako argazkiak ikusteko eta Kantari-ri buruzko informazioa jasotzeko: blogak.goiena.net/kantari




Saio honetako argazki guztiak ikusteko: <http://goiena.net/debagoiena/1390134217226>
EDO erabili aldamenko qr kodea.





Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekalde 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Barrez lehertarazi zuen Espaloia Guapok

- ▶ Hiru saio eman ditu David Guapo bakarlariak
- ▶ II. Monologo Mostrako lehen gonbidatua izan da

ZURIÑE V.D.M. | ELGETA

"Tipo jatorra, guapoa, musikaria... etxerako modukoa". Hala aurkeztu zuen Ruben Sanchez gasteiztarak David Guapo Elgetako II. Monologo Mostraren irekieran, zapatuan. Hiru saio eskaini ditu asteburuan Guapok, eta Espaloia jendez lepo bete zen hiruetan bakarriketatant aditua denak esateko zituenak entzun eta ordu eta erdiz barre egiteko. Eta ez zuen hutsik egin.

Publikoarekin hartu-emana

Que no nos frungan la fiesta izeneko saioan, Guapok jorratutako gaiak askotarikoak izan ziren. Emanaldian zehar jarraitu beharreko arauak hasi zen eta 15 minututan umore klabean zer egin eta zer ez esan zien ikus-entzuleei. Besteak beste, argazki zein bideorik ez ateratzeko eskatu zien;

eta hala ere, ez zuen lortu guztiak arauak jarraitzerik. Norbait harapatuz gero, aretoko argiak piztu eta pertsona hori bere umorearen jomuga bilakatzen zuen, beti ere broma giroan, *rollo* onean.

Zineari buruz ere egin zuen berba, telebistako programak izan zituen hizpide, eta baita iragarkiek bizitako bilakaera ere. Eta teknologia berriei ere tartea eskaini zien komikoak. Besteak beste, bikoteak telefonoa kuxkuxean ibiltzea guardia zibilaren kontrolkin alderatu zuen. "Zergatik nago urduri, dena behar bezala badaukat?". Ikusle batek baino gehiagok identifikatuta ikusi zuen bere burua...

David Guapok publikoarekin hartu-emana bilatzen du. Norbait bere tokitik altxatuz gero argiak pizteko eskatu eta txistea egiten du, situazioa sortuz.

Adibidea ipintzearen, lehenengo ilaran eserita zegoen neska bati esker jakin genuen zergatik emakumeek joan beharko luketen binaka komunera... Erantzuna jakin gura duenak, Guapori galde diezaiola!

Amaiera musikala

Amaiera musikala izan zuten II. Monologo Mostrako lehenengo gonbidatuaren saioek. Gitarra eskuetan, euskarazko abestiaz ere ausartu zen bakarlaria: *reggaeton-noak* izendatu zuen. Saioaren amaieran aitortu zion Goienari esaldi pare bat falta zaizkiola euskara menperatzen duela esateko. "Entzun bikain egiten dut, ulertu ez arren. Gainera, erakutsi dugu hizkuntza sexia dela euskara".

Azken abestia Pedro Gimenez artista ezagunarekin bate-



David Guapo bakarlaria Espaloiko emanaldian. | IMANOL SORIANO

ra interpretatu zuen. Gimenezek 2014ko Munduko Artista Ezezagunik Ezagunena saria jaso duela adierazi zuen. Hala, biek "Abesti asmatua" sortu zuten, publikoak esandako hitzekin inprobisatutako kantua. Barre

algara eta txalo zaparrada artean amaitu zuen emanaldia David Guapok. Hori bai, saioan atera ezin izan ziren argazkien txanda izan zen ostean, eta gura zuten guztiak aukera izan zuten monologistaz egoteko.

Cristian Varela, Uto Carem eta Cuartero DJen tekno erritmora dantzan ipini zen New Guass

- ▶ Izen handiko DJek inauguratu dute Bergarako aretoko tekno musika jaialdien urte berria
- ▶ DJ Cristian Varela izan zen karteldegiko izen nagusia eta haren emanaldiak ez zuen hutsik egin

Z.V.D.M. | BERGARA

Punta-puntako DJa izan da New Guass aretoko urteko lehenengo tekno musika jaialdiko kartel-burua: Cristian Varela madrildarra.

"Jaialdira nazioarteko DJa ekaritzeak jendeari atenzioa eman dio eta horrek jende gehiago erakarri du, zalantza barik", azaldu du David MK New Guasseko DJak.

Hain zuzen ere, zazpi bat autobus bertaratu ziren Bergararaino teknoaz gozatzeko; inguruetatik bai, baina baita Burgos aldetik ere, esate baterako.

Izan ere, Varelaren izena ez da nolanahikoa -mundu mailan aritzen da, Tokion, Londres zein Ibizan, esaterako- eta aretoarekin duen harremana ez da berria:

"2009an ere egon zen eta esan genezake New Guass aretoaren ibilbidean betetze handiena berak lortu zuela irekiera urte hartan". Ordu eta erdiko saioa eskaini zuen Varelak, eta New Guasseko dantzalekuan bildutakoek ez zioten dantza eta salto egiteari utzi.

Uto Karem, Cuartero...

Halere, nazioartean aski ezaguna den DJaz gain, bestelako musika jartzaileak ere aritu ziren zapatuan. Uto Karem italiarrak ere bere jarraitzeak zain zituen, gorputza mugitzeko prest. Eta baita Malagako Cuarterok ere. "Gorantz doan DJa da, aurretik etorkizun oparoa daukana". David MK berak ere Diego Gonazalezekin batera tekno saioa eskaini zuen.

"Urteko lehenengo saioa izanda oso pozik gaude eman duenarekin. Urtarrileko festek horrelako arrakasta edukitzea ez da erraza izaten. Horrexegatik egin genuen apustu izen handiko DJengatik, eta ongi atera zaigu".

Hurrengoa prestatzen

Otsailaren 8an izango da hurrengo jai handia, *Winter Gaua* egin-go dute eta David MK izango da gidarietako bat. "Instrumentuekin fusionatzen dudana saioa da, dekorazioa oparoa izaten da aretoan, gainera". DJak berak dioenez, ordutegi berezia izango du jaiak kasu horretan, arratsaldetik aurrera irekiko baitituzte ateak eta goizaldera arte luzatuko da. "Lan asko dugu aurretik".



Cristian Varela madrildarra New Guass aretoan. | IMANOL SORIANO



Jendea teknoaren erritmora dantzan. | IMANOL SORIANO



Hiztegitxoak.eu webgunearen irudia. | GOIENA

'Hiztegitxoak.eu' kontsulta webgune berria martxan da

Hainbat esparrutan erabiltzeko baliagarri da webgunea, eskoletan, adibidez

EÑAUT ABARRATEGI | DEBAGOIENA
Euskaratik 35 hizkuntzarako noranzkoan eta alderantziz, oinarriko hiztegiak lortzeko aukera eskaintzen du *Hiztegitxoak.eu* webguneak. Hala, egunerokotasunean hizkuntza ezberdinetako hitzunen artean zubi hizkuntza euskara izatea bultzatu nahi da. Kontuan hartu beharra dago munduan 6.500 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla. Hizkuntzak dira kulturen adierazle garran-

tzitsuenetakoak eta beraz, munduko kultura aniztasunari eusteko, hizkuntzak zaindu egin behar dira. Euskarak Euskal Herria du bizitoki bakar eta, jakina denez, egoera gutxiagotuan dago. Gainera, gurean beste hizkuntza ugari bizi dira, asko azken urteetan etorritakoek ekarriak.

Eskola eremua eta beste
Hiztegitxoak.eu webgune berria hainbat esparrutan baliagarri

izan daiteke, hala nola, eskola eremuan. Honela, elkarren arteko harremanerako oinarriko hiztegi hauekin, elkarren arteko ezagutza eta aitortza bultzatu nahi da euskara erdigunean jarriz. Webgunearen bidez, 330 hitzeko oinarriko hiztegia eskura daiteke. Era berean, erabiltzaileek hizkuntza berrietako oinarriko hiztegiak txertatu ditzakete, webgunea gero eta hizkuntza gehiagorekin elikatuz.

Zazpi urte igaro dira Apple-k bere lehen smartphone-a kaleratu zuenetik: Iphone-a

Iphone-ak Coca Colak sortzen duen diru sarreraren ia bikoitza eskuratzen du

E.A. | ARRASATE
Munduko telefono mugikor eza-gunetako batek, hau da, Iphone-ak zazpi urte bete ditu. Askotan aipatu da multinazional horrek teknologia esparrua aldarazi ote duen. Baina egia dena da, jende askoren markarik kuttunena bihurtu dela Ameriketako enpresa hori.

Apple enpresaren apustua garbia izan zen hasieratik, euren mugikor berria aurkeztu zutenean. Goraka zihoan merkatu baten parte izan nahi zuten, eta hori gutxi ez balitz, merkatu horri goitik behera aldatzeko beharra ikusi zuten.

Telefono mugikorra beste paradigma batera eramateko beharra ikusi zuten: sare sozialak eta teknologiarekin zerikusia duten enpresek euren arreta jarriko zuten Steve Jobsen "jostailu" berrian.

Iphone-aren zenbakiak
2007. urtetik 2013ko irailaren 13ra bitartean, Apple-k 420 milioi Iphone saldu zituen. Adituen arabera, marka guztiak hautsi ditu Kaliforniako enpresak.

Hasieran, aditu batzuk ez zuten begi onez ikusi ukipen pantaila hura zeukan telefono mugikorra, eta praktikotasun gutxi izango zuela eman zuten aditzera. Baina denborarekin, argi ikusi da aditu haiek oker zebiltzala.

Besterik ez bada ere, lehen aipatutako datuek argi erakusten dute Steve Jobs eta bere inguruan zeuden adituek izandako ideia oso ondo hartu duela gizarteak. Etorkizuneko mugikorren merkatua nolakoa izango zen aurreikusitako zutela esan genezake.

Bestelako kopuru batzuk nabarmenduta, berriz, Iphone-ak Apple enpresaren diru sarreraren %53a suposatzen du. Hau da,

Apple-k jasotzen duen diruaren erdia baino gehiago bere telefono mugikorraren salmentatik jasotzen du.

Beste adibide bat: Iphoneak bakarrik, Coca Colak sortzen duen diru sarreraren ia bikoitza baino gehiago eskuratzen du. Kopurutan: Iphone-ak 91.300 milioi dolar irabazi ditu azken urtean. Datu oso esanguratsua dira Ameriketako Estatu Batuetako beste enpresa handi batzuekin alderatzen badira. Adibidez, Microsoft enpresak 77.900 milioi dolar eskuratu zituen. Bestetik, Coca-Colak 48.000 milioi-ko diru sarrera izan zuen eta Disney enpresak, aldiz, 45.000 milioi dolar. Iphone-ak telefono mugikorren industriaren diru sarreraren %50a baino gehiago suposatzen du. Eta kontuan hartu beharrekoa da Android sistema erabiltzailea duten telefonoen kopurua ere gora doala.

Berritasunekin dator apirilean aurkeztuko den Samsung S5a

E.A. | ARRASATE

Samsung enpresaren harribitxi berria apirilean aurkeztuko dute. Enpresatik aditzera emandakoaren arabera, gainera, Samsung S5 telefonoa, berritasun esanguratsuekin etorriko da. Horien artean, iris-eskanerra izango duela nabarmentzen dute; baita hatz-markak eskaneatzeko sistema ere. Bi kasuetan, helburua da telefono berriaren segurtasuna handitzea. Eta bi horiekin batera, Galaxy Gear izeneko aplikazio berria ere ekarriko du Samsung enpresaren telefono berriak.

Zuzenketak egin beharra

Hori bai, berritasunak sartzeaz gainera, Samsung-ek zuzenketak batzuk ere egin beharko lizkioke apirilean merkaturatu

gura duen Samsung S5 telefonoari. Izan ere, eta besteak beste, smartphone horien erabiltzaile gehienek keketako bat da ez dituela berrikuntzak enpresak agindutako bezain bizkor egiteko aukerarik ematen. Eta hori, adibidez, lehiakide duten HCT moduko enpresek 2013an zuzendu duten akatsuetako bat izan da. Beraz, Samsung enpresak hori kontuan hartu ezean, arrisku handia dauka merkatu zati handi bat galtzeko.

Zuzenketak egin beharra

Kontuak kontu, egia dena da Samsung enpresak merkatuan duen dispositibo kopurua (maila altukoak, ertainekoak zein baxukoak) kontaezinezkoak direla.



Samsung telefonoaren pantailaren itxura. | GOIENA

'Tarifa finkoa' liburuetan izan daiteke industria horren etorkizuna

Plataforma batzuei esker posible da liburuak irakurtzea tarifa finko batzuen bitartez.

E.A. | ARRASATE

Scribd, Oyster edo 24symbols moduko plataformek eskaintzen dute liburuak online irakurtzeko aukera. Askorentzako eza-gunak dira Spotify, Deezer edo Radio moduko plataformak musika edo irratia entzuteko. Bada, musikaz aparte, orain liburuak ere irakur daitezke.

Irakurtzeko moduak

24symbols plataforma 2010. urtean sortu zuten Aitor Grandes eta Justo Hildalgok. Plataforma horretan bi modu daude liburuak irakurtzeko. Alde batetik, liburu jakin batzuk daude dohainik irakurri ahal daitezkenak. Bestetik, 5 eta 9

euro bitarteko kopurua ordainduta, liburu gehiago irakurri ahal izango dira.

Bestalde, azken bi urteotan beste bi plataforma handi jaio dira Ameriketako Estatu Batuetan: lehen aipatutako Scribd eta Oyster. Bi horiek finantzazio iturri oso garrantzitsuak dituzte atzean. Scribd-ek 14 milioi dolarreko atea Oysterrek berriz, 17 milioiokoa. Zentzu horretan, adituak euren kezkak agertzen hasi dira, esanez ea plataforma horien bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa nolakoa izango den. Askok aipatzen dute oraindik ikustear dagoela plataforma horien etorkizuna, oso berriak direlako.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGA

Hau gehiegi da!

Hau gehiegi da! Duela gutxi hitz egin nuen telebistan sukaldarien arteko lehiaketak egiteko obsesio konpultsi-boaz. Kate bat bestearen atzetik gainera, baita EITB ere. Sukaldea ikuskizun mediaticoan bilakatu da telebistari esker (erruz?).

TVE pausu bat haratago joan da 'Master Chef Junior' saioarekin. Audientziaren % 21 arrakastatsuekin, haur txiki gazte eta inuzenteak helduon mundu perbertso, zital eta lehiakorrera eraman dute. Galtzaileen negar malkoak bilatuz eta irabazlearen berbaldi sasjakintsua goraiapatuz. 12 urteko errioxar batek irabazi zuen, ahoa itxita askoz ere ederragoa den pertsona horietako batek.

Etor daitezela gero esanez Espainiako telebista publikoak familia eta giza balioak defendatzen dituela... Horiek al dira ba, gure gaztetxoei igorri nahi dizkiegun balioak? Lehiakortasunez, albokoa izorrratu eta irabazlearen morboa sukaldea bezalako oinarritzoki sakratu eramatea?

Horrez gain, Telecincok, bere 'TopChef' arrakastatsua ostean, azkenburukoak eraso dituzte 'Deja sitio para el postre' saioarekin. Aurreko programa guztien kopiaren kopia oparatu.

Aski da! Sukalde saioak noiz arte? Erabat asperturik gaude, faborez.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 20



'Berriak'

Asteburuan gurean albiste izan diren kontuak eta eguneko berriak jaso ahal izango dituzue. | 14:45

12:00 Atik Zra
12:53 Ikuskizuna: Ilusio gaua
13:28 Onein
14:04 Ikuskizuna: Ilusio gaua
14:34 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:20 Ur eta lur
15:54 Onein
16:30 Berriak
16:55 Eguraldia
16:58 Zorion Agurrak
17:03 Bideo klipak
17:48 Klaketa
18:24 Ikuskizuna: Ilusio gaua
18:53 Zorion Agurrak
19:00 Berriak
19:25 Eguraldia
19:28 Onein
19:53 Ikuskizuna: Ilusio gaua
20:23 Eguraldia
20:30 Berriak
20:55 Eguraldia
20:58 Erreportajea
21:10 Berbetan
21:45 Harmailatik
22:30 Berriak
22:55 Eguraldia
22:58 Harmailatik
23:43 Gurean gaur

MARTITZENA, 21



'Kantari'

Asteburuan Arrasateko Amaia antzokian grabatutako Kantariko lehenengo saioa eskainiko dituzue. | 19:33

12:00 Saloi dantzak
12:20 Harmailatik
13:08 Klaketa
13:46 Zorion Agurrak
14:21 Erreportajea
14:36 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:53 Onein
16:24 Zorion Agurrak
16:30 Berriak
16:55 Eguraldia
16:58 Zorion Agurrak
17:03 Klaketa
17:39 Harmailatik
18:24 AsteON
18:55 Zorion Agurrak
19:00 Berriak
19:25 Eguraldia
19:28 Zorion Agurrak
19:33 Kantari
20:03 Zorion Agurrak
20:12 Erreportajea
20:30 Berriak
20:55 Eguraldia
20:58 AsteON
21:28 Berbetan
22:03 Erreportajea
22:30 Berriak
22:55 Eguraldia
22:58 Gurean gaur

EGUAZTENA, 22



'Eguraldia'

Pello Zabala eguraldi adituaren eskutik iragarpena jaso ahal izango duzue albistegi ostean. | 15:10

12:00 Harmailatik
12:40 Onein
13:03 Kantari
13:28 Saloi dantzak
13:48 AsteON
14:18 Erreportajea
14:35 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Aizank!
15:51 Harmailatik
16:31 Berriak
16:56 Eguraldia
16:59 Harmailatik
17:44 Berbetan
18:24 Aniztasunean bizi
18:51 Zorion Agurrak
19:00 Berriak
19:25 Eguraldia
19:28 Bideo klipak
19:48 Aizank!
20:26 Zorion Agurrak
20:30 Berriak
20:55 Eguraldia
20:57 Zurriolako butaka
21:27 Atik Zra
22:20 Erreportajea
22:30 Berriak
22:55 Eguraldia
22:58 Atik Zra
23:51 Gurean gaur

EGUENA, 23



'Planik bai?'

Asteburuari begira jarriko gara eta bailarran izango diren kultura agendaren berri izango duzue. | 16:58

12:00 Harmailatik
12:45 Onein
13:08 Ikusi irratia
13:56 Zurriolako butaka
14:26 Zorion Agurrak
14:35 Erreportajea
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Berbetan
15:53 Onein
16:24 Zorion Agurrak
16:30 Berriak
16:55 Eguraldia
16:58 Planik bai?
17:18 Zurriolako butaka
17:48 Berbetan
18:23 Aizank!
19:00 Berriak
19:25 Eguraldia
19:28 Planik bai?
19:48 Kantari
20:16 Erreportajea
20:30 Berriak
20:55 Eguraldia
20:58 Planik bai?
21:18 Zurriolako butaka
21:53 Klaketa
22:30 Berriak
22:55 Eguraldia
22:58 Gurean gaur
23:28 Planik bai?
00:08 Planik bai?
00:28 AsteON
00:58 Planik bai?
01:18 Zurriolako butaka

EGUBAKOITZA, 24



'AsteOn'

Gure Esku Dago ekimenari buruz hitz egingodizuegu AsteOn saioko erreportajearen tartean. | 21:18

12:00 Planik bai?
12:20 Onein
12:51 Kantari
13:16 Bideo klipak
13:36 Ikusi irratia
14:24 Planik bai?
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Berbetan
15:53 Onein
16:24 Zorion Agurrak
16:30 Berriak
16:55 Eguraldia
16:58 Planik bai?
17:18 Zurriolako butaka
17:48 Berbetan
17:28 Zorion Agurrak
17:37 Aniztasunean bizi
18:04 Klaketa
18:40 Planik bai?
19:00 Berriak
19:25 Eguraldia
19:30 Klaketa
20:06 Planik bai?
20:30 Berriak
20:55 Eguraldia
20:58 Planik bai?
21:18 AsteON
21:48 Berriak
22:13 Eguraldia
22:16 Planik bai?
22:38 Kontzertua

ARRASATE IRRATIA

Kirmen Uribe
elkarrizketatuko dugu
107.7ko uhinetan

Jainko txiki eta jostalari hura poesia eta musika ikuskizuna da eta Bergarako Zabalotegin eskainiko dute egubakoitzean, 19:00etan. Egitasmo horretako kide da Kirmen Uribe eta astean izango dugu Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratisaioan. Ikuskizunaren xehe-tasunak emango dizkigu.

The Soulbreaker
Company taldearen
kontzerturako sarrerak

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, eguenean Gasteizko The Soulbreaker Company taldeak rock garaikidea ekarriko du gaztetxera. Sarre-rak zozketatuko ditugu, eta zozketan parte hartzeko 943 25 05 05era deitu beharko duzue, edo mezua bidali *irratia@goiena.com* helbidera.

'Hamlet' antzezlanari
buruzko elkarrizketa
Arrasate Irratian

Domekan, hilak 26, Artedrama taldearen *Hamlet* antzezlanaren eskainiko dute Amaia antzokian, 19:30ean. Bada, bertako protagonistekin hitz egingo dugu asteon Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratisaioan. Elkarrizketaren tartean izango ditugu protagonistak eta haiek kontaktuko dizkigute lanaren nondik norakoak.

TELE-ALBISTEAK

Arrasaten grabatutako
Kantariko saioak
telebistan martitzenetik

Arrasateko eta Aramaioko gaztetxoek saioak martitzenetan eta eguenetan ikusgai, 19:30ean



Arrasaten grabatutako Kantariko saioetako une bat. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Zapatuan, hilak 18, egin ditu Goiena telebistak Kantari karaoke ikuskizunaren laugarren edizio azken grabazioak. Arrasateko Amaia antzokian izan dira grabazio horiek eta bertan parte hartu dute Arrasateko 175 artistak eta Aramaioko 12 gaztetxo kantarik. Guztira, zazpi saio ekoiztu ditu Arrasaten Goienak eta ikusgai izango dira bihurtik aurrera telebistan. Bihar, martitzena, eskainiko dituzue Arrasaten grabatutako lehenengo saioa, 19:30ean, eta bigarren saioaren estreinaldia eguenean izango da, 19:48an.

Hurrengo saioen estreinaldiak ere martitzenetan eta eguenetan izango dira, 19:30 inguruan.

Saio horiek amaiera emango diote Kantariren laugarren edizioari, 600 izar gaztekin parte hartu duten edizio borobilarri.

Saioak telebistan eskaini ostean, blogera igoko ditugu. Internet bidez edozein tokitan Kantari ikusi ahal izateko, hau da blogaren helbidea: www.blogak.goiena.net/kantari.

Asobal mailako lagunarteko
partidua ikusgai izango
duzue 'Harmailatik' saioan

Arrasateko Ford Mugarriren eskubaloi partidua ere ikusi ahal izango duzue, baita futbola ere

A.T. | ARRASATE

Joan den asteburuan hainbat kirol kontu izan dira Debagoieneko herrietan eta horiek eman dutena erakutsiko dituzue gaur, astelehena, *Harmailatik* kirol saioan, 21:45ean.

Eskubaloia

Lehen mailako eskubaloiaz gozatzeko aukera izan zen egubakoitzean Oñatin. Zubikoa kiroldegian urteroko partidua izaten da Asobal mailako lagunartekoa, eta egubakoitzean, behin baino gehiagotan egon diren Bidasoa Irunek eta Helveitia Anaitasunak jokatu zuten

partidua. Horrek eman zuena erakutsiko dituzue gaurko saioan, besteak beste.

Eskubaloiarekin jarraituta, Arrasateko Ford Mugarririk ere etxean jokatu du asteburuan. Zapatuan izan zuen partidua Iturripen eta Alcorta Forging taldea hartu zuen. Bertan jaso genituenak ere erakutsiko dizkizue gaur iluntzean eskainiko dituzuegun saioan.


Futbola

Mondrak Zestoa hartu du asteburuan eta Mojategiko zelaian gertatu zena erakutsiko dituzue.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Marina Axpe Del Amo
Urtarrilaren 25ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Muxu asko etxeko danon eta, bereziki, Carlaren, aita txoren eta amaxoren partetik. Oso ondo pasatu! Maite zaitugu. Mua.



ARRASATE
Txaber Urgoitia Agirre
Urtarrilaren 24an, 6 urte. Zorionak, laztana! Patxo handi bat etxeko partetik!



ESKORIATZA
Serafin Sanchez Alonso
Urtarrilaren 23an, urtebetetzea. Emaztearen eta umeen partetik, egun ona pasatu zure urtebetetze egunean.



ARRASATE
Luken Ormaetxea Artola
Urtarrilaren 23an, 8 urte. Zorionak, Luk! Patxo potolo-potoluak familixa danon eta, batez be, Eleneren partetik. Pastela zure kontu!



OÑATI
Ander Iciar Garcia
Urtarrilaren 22an, 3 urte. Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat etxeko guztion partetik.



ARRASATE
Oihan Iriando Lasaga
Urtarrilaren 22an, 4 urte. Zorionak familiako partetik eta muxu handi bat!



ARETXABALETA
Ekaitz Oscoz Barrena
Urtarrilaren 22an, 11 urte. Zorionak, *guapeton!* 11 urte jada. Merendola ederra eingo degu. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta jarraitu orain arte bezala, etxeko txapelduna izaten. Muxu potoluak Iratiren, amaxoren eta aita txoren partetik. Aupa UDA!



ESKORIATZA
Aimar Ortiz Esnaola
Urtarrilaren 21ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Merendola goxoa prestatu. Amaxoren, aita txoren eta bereziki Anerren partetik. Sei muxu txokolatetzkoak. Pila bat maite zaitugu. Mua!



BERGARA
Danel Zuazubiskar
Urtarrilaren 19an, 10 urte. Zorionak, Danel. Aita txo, amaxo, Naia eta amamaren partetik.



ANTZUOLA
Maider eta Alain
Maiderrek 7 urte, urtarrilaren 19an eta Alainez 3 urte, 28an. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu urtebetetzean. Muxu asko etxeko danon partetik.



ARRASATE
Paula Andres Carmona
Urtarrilaren 19an, 7 urte. Zorionak eta muxu asko gurasoen eta familia guztiaren partetik.



DEBAGOIENA
Manex Gomez Gomez
Urtarrilaren 19an, 2 urte. Zorionak, txikitxo! Oso ondo pasatu zure egunian! Muxu handi bat zure familiaren partetik!



ARRASATE
Aimar Merchan Garai
Urtarrilaren 18an, urtebete. Zorionak, pirata! Muxu eta besarkada handi-handi bat familia osoaren eta, bereziki, Joni, Irati, Haritz eta Izaro lehengusuen partetik.



ARRASATE
Eider Kortabarría Aranzabal
Urtarrilaren 18an Eider Kortabarría Aranzabalek 6 urte betetzen ditu. Etxeko partetik, muxu sorta ederra, printzesa!



GASTEIZ
Roman Olalde
Urtarrilaren 17an, 10 urte. Zorionak etxeko partetik.



BERGARA
June Arando Salaberria
Urtarrilaren 16an, 10 urte. Zorionak, txori txiki! Ondo pasatu eguna eta jaso patxo potolo-potolo bat etxeko guztion eta, batez ere, Malenen eta Uxueren partetik.



ARRASATE
Gaizka Arizabaleta Rodriguez
Urtarrilaren 16an, 8 urte. Zorionak bihotz-bihotzez. Zoragarria zara, Gaizka! Patxo erraldoia etxeko partetik.



ARRASATE
Saioa Baena Gorosabel
Urtarrilaren 14an, 35 urte. Zorionak, amaxo! Patxo potolo bat lbairan, Jonen eta familia guztiaren partetik!



BERGARA
Naia Caballero Nuñez
Urtarrilaren 13an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Zazpi urte! Ondo pasatu zure eguna! Muxu asko etxeko partetik. Eta txokolatetzko muxu pilo bat amaxoren partetik!



BERGARA
June Gabilondo Kapelastegi
Urtarrilaren 13an, urtebete. Zorionak, printzesa! Urtebete gurekin. Muxuak aita txoren, amaxoren eta Naiaren partetik.



ARETXABALETA
Haizea Duandikoetxea Otxoa
Urtarrilaren 13an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat etxeko partetik!



ARRASATE
Irati Zaitegi Manzanos
Urtarrilaren 13an, 7 urte. Zorionak, Irati! Oso ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituzte *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

HILETA

**Maria Angeles
Gordoa Altolagirre**

Juan Arregiren alarguna



2014ko urtarrilaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Haren aldeko meza
gaur izango da, urtarril 20, 19:00ean,
Oñatiko San Migel parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Oñatin, 2014ko urtarrilaren 20an.

OROIGARRIA

**Maria Angeles
Gordoa Altolagirre**

Miren Arregi Goienako lankidearen amona



2014ko urtarrilaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.**goiena**Goiena Komunikazio Taldea.
Oñatin, 2014ko urtarrilaren 20an.**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ESKER ONA

**Zelestina
Larrañaga Zarraoa**

Juan Aristegi Agirianoren alarguna

*Supazterean zelako
hutsunea dagon ama
hain zinen benetakua
adonarik gabeko dama
baina ez da alperrik izango
poz-pezik egin dazun lana**guk zabalduko dogu-ta
erakutsitako dana
ingurua ta ingurukoak
mimatzea zure afana
borondate ta kemenak
zure izena darama**"pa" gaxo honekin hartuizu
merezitako atsedena
eta zuk dakizun horrei
emaiezu beste bana*

Mila esker zuen maitasuna erakutsi diguzuen guztiei, etxekoien izenean.

Bergaran 2014ko urtarrilaren 20an.

OROIGARRIA

**Zelestina
Larrañaga Zarraoa**

Juan Aristegi Agirianoren alarguna



2014ko urtarrilaren 16an hil zen, 85 urte zituela.

*Ilargi betian argixaz
izar berri bat zerura
zure argi berezixa
bialdu gure ingurura.**Muxu bat amama*Amagoia, Adur, Maite, Iratxe, Ainhoa, Izar eta June.
Bergaran 2014ko urtarrilaren 20an.**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta
ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta
traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA**JAIOTAKOAK****Maria Garcia
Mondragon**Arrasate 3,900 Kilo. Urtarri-
laren 16a. Gurasoak: Olaia eta
Raul. Argazkian, Maria ama-
ma Pepiren besoetan.**Aiur Zenikaonandia
Alberdi**Durango 3,5 Kilo. Urtarrilaren
14a. Gurasoak: Amaia eta
Hodei. Argazkian, Aiur ama-
ren besoetan.**June Alonso
Rodriguez**Aretxabaleta 3,040 Kilo. Urta-
rrilaren 10a. Gurasoak: Beatriz
eta Jose Roman. Argazkian, June
jaioberria amaren besoetan.**Izaro Herce
Lopez**Bergara 2,800 Kilo. Urtarri-
laren 11. Gurasoak: Itziar eta
Egoitz. Argazkian, Izaro jaiob-
berria gurasoekin.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

zorionak!Eroskik zuen lehen beharretarako,
OPARIA*

egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

Jaio da!**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari-
tza batera.**Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AI, ENE!

Etxeko erosotasuna, azken muturreraino

Komunera egunkariarekin edo aldizkariarekin joaten direnei komun honen parean telebista jarritz gero, akabo!
www.inventosraros.com




AHOBERO

"Burgosko atentatuak gaitzesten ditut, nola ez"

ANA BOTELLA | MADRILGO ALKATEA

Burgosko Gamonal auzoan Udalak eraiki gura duen bulebar berriaren aurka kalera irten dira bizilagunak era baketsuan protestatzera, baina gutxi batzuen istiluek ere eman dute zeresana. Batzuek atentatu hitza erabiltzeko duten erraztasunak harritu gaitu; edo ez?
www.lasexta.com

EGURALDIA



Max. 8°

Min. 2°

Oso hodeitsu egongo da eta zaparradak botako ditu, sarriago goizean eta ipar partean.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-01-20

HAMARREKOA

Dolores Redondo Urtebete pasa da donostiarrek Baztango trilogiaren lehen zatia argitaratu zuenetik, eta Herbehereetan, Norvegian edo Italian ere irakurri ahal izan dute; bigarren zatian ere kalean da | TXOMIN MADINA

"Nobela beltza idazteko buru oso gaiztoa eduki behar da"

1. Hezurren ondarea hirutik bigarrena da. Hasiera eta bukaera bezain ezinbestekoa?

Zaindari ikusezina icebergaren punta da eta Hezurren ondarea gorputza; baina ez da ahaztu behar zati garrantzitsuena ur azpiko zatia dela, *Ofrenda a la tormenta*.

2. Zergatik erakarri dituzte hainbeste irakurle Amaia Salazarren ikerketek?

Uste dut arrazoia dela, egiazko emakumeen moduan, protagonistak duen indar eta hauskortasun nahasketa.

3. Oraingoan gainera, haurdun hasten du eleberria.

Emakumea da nobela honen gai nagusia, eta amatasuna, matriarkatuaren oinarri kultural eta pertsonaia batzuen karakterizazio psikologikoa bezala. Eguneroko ikuspegitik ere bai: garapen profesionalaren eta guraso izatearen arteko gatazka konpondu ez duen gizartean amek sentitzen duten erruduntasuna eta exigentzia.

4. Hirugarren alea idatzi duzu?

Horretan nabil, elkarrizketa amaitzean jarraituko dut. Ez dut presiorik sentitzen: trilogia eleberri bakarra balitz bezala ulertu behar da; lehen hitza idazterakoan banekien zein izango zen amaiera.

5. Noizko pantaila handian?

Millenium-en ekoizle Peter Nadermannek egokituko du, eta aurrea doa proiektua; espero dut laster berri onak izatea.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Eskola berri bat egingo nuke"

"Egunero gauza bat egingo nuke. Gaur, esaterako, Sarrigurengo eskola publikoko ikasleei eskola berri bat egingo nieke: egun ez dira kabitzen, eta gaixoak sardina lata baten baleude bezala daude. Muxu bat euren dako".

6. Donostiarra izanik, nondik dator Baztanekin duzun lotura?

Eleberriaren kokalekua aukeratu behar nuen, gainerakoa argi neukan. Baztan aukeratu nuen kokaleku geografikoagatik, edertasunagatik, aberastasun historikoagatik, kondairen indarragatik... Ia-ia esango nuke Baztanek aukeratu ninduela ni.

7. Zuri esker, Baztan mundu osoan da ezaguna. Ordaindu dizute zer bait hango turismo arduradunek?

Hurrengo FITUR-en egongo naiz Baztan promozionatzeko; ordainketari dagokionez, bizilagunen maitasunarekin ordainduta sentitzen naiz; Baztani, eman didan zer bait bueltatu ahal badiot, nahikoa da.

8. Bizitzeko baina, Baztanen partez, Erribera aukeratu duzu.

Maitasuna da *ñoñostiar* bat bere etxetik atera dezakeen gauza bakarra, eta tuteratar batek du errua. Oso pozik bizi naiz Erriberan, baina Baztanen nago ahal dudun guztietan.

9. Nobela beltza idazteko, buru apur bat gaiztoa eduki behar da?

Oso gaiztoa esango nuke nik, kar, kar, kar... Pentsa ezazu egun guztia krimenak planeatzen ematen dudala.

10. Idazlea izateaz gain, sukaldaritza ikasitakoa ere bazara. Zein da zure plater izarra?

Arrain zopa *Gure erara* bertan seko geratzeko modukoa da (eta ez darama arsenikorik).

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Aspertuta

Elife Gonzalez Espainian Gobernu-buru eta Europako eta munduko handikien artean nor izan ondoren, zeregin argirik ez zuela ikusi eta, "txinatar lore-ontzi" definitu zuen bere burua, "non ipini ere, han traban dagoena", zehaztuz.

Kierkegaard filosofo daniarrak nabarmentzen du Jainkoak berak bere aktibitate ez eternoaz asperturik deliberatu zuela kosmosa sortzea. *Il dolce far niente*az nekatze hari zor diogu, ondorioz, Jainkoak astelehen goiz batean mundugintzari ekin eta, zazpigarren eguna bitartean, horretan jardun izana.

Baina Gonzalez apenapen den Jainkoa baino jainkogo eta gogaiturik bizi den azken zantzua oraintxe bi aste eman du, Gas Natural enpresa lagatzea erabaki duenean, "total asperturik" zegoela seinalatuz. Urtean 126.500 euroko saria kobratzen zuen gas-enpresan aspertuta egotea.

Jakinekua da txinatar lore-ontziak direla polit ala itsusi, zein begik ikusi; merkeak, baina, sekula ere ez. Galdera, orain da Gonzalezek gas-enpresaren saria kobratzen segituko duen ala sari horri uko egingo dion. Horretaz, jakina, inork ez daki, ez du entzun ezer.

Arrasateko hipermerkatua



EROSKI

zurekin



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Etxeko ehun-gaiak, atsedena, etxetresna elektrikoak
2014ko otsailaren 12ra arte

Lumazko betegarri naturala

24€

Zuria edo bi kolorekoa, 90 cm

Aukeran:
135 cm, 32€
150 cm, 35€



% 50 pikolin

produktuetan

Deskontua aplikatuta daukate eskaintzan dauden PSPek

Encanto koltxoia
135 x 190 cm
~~99€~~
499€

Pack Duo A Mi Plin
biskoelastikazko burkoa 67 cm
~~99€~~
44,90€

Jubilo koltxoia
135 x 190 cm
~~99€~~
499€